# 17/2015 FORU DEKRETUA, ekainaren 16koa, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.[1]

**AZALPEN OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

## ERREGALAMENDUAREN AURKIBIDEA


**I. TITULUA ZERGADUNA....8**

1. artikulua. .... 8
2. artikulua. Ondare sozietateak. .... 8
3. artikulua. Ondare sozietateen betebehar formalak. .... 8

**II. TITULUA ZERGA OINARRIA....9**

I. KAPITULUA. ZUZENKETAK GASTUEN ALORREAN .... 9
4. artikulua. Amortizazio planak. .... 9
5. artikulua. Gutxieneko amortizazioa. .... 9
6. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak. .... 9
7. artikulua. Amortizazio askatasuna, amortizazio azkartua, eta baterako amortizazioa. .... 10
8. artikulua. Amortizazio askatasuna. Eskaera. .... 11
9. artikulua. Merkataritza funts finantzarioa. .... 11
9 bis artikulua. Finantza gastuen kengarritasunari muga handiagoa aplikatzeko proposamena. .... 12
10. artikulua. Ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuen planak. .... 13
11. artikulua. Gastu ez-kengarriak. .... 13
II. KAPITULUA. ZUZENKETAK SARREREN ALORREAN .... 13
12. artikulua. Berrinbertsio plan bereziak. .... 13
13. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa: betebehar formalak. .... 14
13 bis artikulua. *(indargabetua)* .... 14
14. artikulua. Alderdi politikoen berezko ustiapen ekonomiko salbuetsiak. .... 15
III. KAPITULUA. ZUZENKETAK BALORAZIO ERREGELEN ALORREAN ETA ABUSUAREN AURKAKO NEURRIAK .... 16
*Lehen sekzioa. Zenbait eragiketa loturen merkatuko balio normala zehaztea .... 16*
15. artikulua. Bazkide profesionalen zerbitzu prestazioak. .... 16
*Bigarren sekzioa. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak dokumentatzeko betebeharrak .... 16*
16. artikulua. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak dokumentatzeko betebeharrak: salbuespenak eta informazio betebeharrak. .... 17
17. artikulua. Zerbitzu prestazioak, haien ordainsariak lanaren edo jarduera ekonomikoen etekintzat hartzen direnean. .... 17
18. artikulua. Finantzaketa eragiketak. .... 18
19. artikulua. Ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan ematea eta haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubide errealak eratu edo lagatzea. .... 18
20. artikulua. Zergadunaren berariazko dokumentazioa kasu jakin batzuetan. .... 19
20 bis artikulua. Herrialdez herrialde informatzeko obligazioa. .... 19


---

[1] 2015eko ekainaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

*Hirugarren sekzioa. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea* ... *20*
21. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea. ... 20
*Laugarren sekzioa. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketen aurretiazko balorazio akordioak* ... *22*
Lehenengo azpisekzioa. Eragiketa lotuen inguruko akordioak zergapekoek eskatuta lortzeko prozedura. ... 22
22. artikulua. Aurretiazko jarduketak. ... 22
23. artikulua. Prozedura hastea. ... 22
24. artikulua. Aurkeztutako dokumentazioaren araubidea. ... 23
25. artikulua. Akordioa tramitatzea, amaitzea eta ondorioak izatea. ... 24
26. artikulua. Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak baloratzeko akordioa aplikatzeari buruzko informazioa. ... 25
27. artikulua. Aurretiazko balorazio akordioa aldatzea. ... 25
28. artikulua. Aurretiazko balorazio akordioa luzatzea. ... 26
Bigarren azpisekzioa. Beste administrazio batzuekin eragiketa lotuei buruzko akordioak lortzeko prozedura ... 27
29. artikulua. Arau aplikagarriak. ... 27
30. artikulua. Prozedura hastea. ... 27
31. artikulua. Tramitatzea eta ebaztea. ... 27
Hirugarren azpisekzioa. Azpikapitalizazio koefizienteari buruzko aurretiazko akordioen berezitasunak ... 28
32. artikulua. Beste azpikapitalizazio koefiziente bat zehazteko prozeduraren aplikazioa. ... 28
III. BIS KAPITULUA: EMAITZAREN APLIKAZIOAREN ARLOKO ZUZENKETAK ... 28
32. bis artikulua. Erreserba berezia ekintzailetza sustatzeko eta jarduera produktiboa sendotzeko: proiektu enpresarial garrantzitsuak ezartzen dituzten entitateetako partaidetzen eskurapena. ... 28
IV. KAPITULUA. SARRERAK ETA GASTUAK DENBORAN EGOZTEA. SORTZAPENAZ BESTEKO IRIZPIDEAK ONARTZEA ... 30
33. artikulua. Sortzapenaz besteko egozpen irizpideak onartzea. ... 30

**III. TITULUA ZERGA ZORRA ... 31**

I. KAPITULUA. KUOTA OSOA ETA GUTXIENEKO TRIBUTAZIOA. ... 31
33 bis artikulua. Kuota osoa eta gutxieneko tributazioa. ... 31
II. KAPITULUA. BESTE KENKARI BATZUK. ... 31
34. artikulua. Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueren kenkariak aplikatzeko txosten arrazoitua. ... 31
35. artikulua. Txostenaren ondorioak eta Zerga Administrazioaren ahalmenak. ... 32
35 bis artikulua. Negozio prozesuak berrikuntza teknologikoaren esparruan. ... 32
35 ter artikulua. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzea. ... 34
36. artikulua. Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzea helburu duten proiektuetan egiten diren inbertsio eta gastuen kenkaria. ... 35
36 bis artikulua. Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuen finantzaketan parte hartzea. ... 42
37. artikulua. Kenkaria enplegua sortzeagatik. ... 43
37 bis artikulua. Ikus-entzunezko lanak produzitzeko inbertsio eta gastuen kenkaria. Kultur ziurtagiria eta filmotekako gordailua. ... 46
37 ter artikulua. Ikus-entzunezko lanak ekoizteko inbertsio eta gastuen kenkaria. Kreditu tituluen eta material grafikoaren inguruko beharkizunak. ... 46
37 quater artikulua. Ikus-entzunezko lanak produzitzeko inbertsio eta gastuen kenkaria. Obra zailak. ... 47
37 quinquies artikulua. Arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatik aplikatu beharreko kenkaria. Kultur ziurtagiria eta ikuskizuna gauzatzekoa. ... 47
37 sexies artikulua. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Beharkizunak. ... 49
37 septies artikulua. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Mugak. ... 50
37 octies artikulua. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Erregularizazioa. ... 51
37 nonies artikulua. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Datuak zabaltzea. ... 51
37 decies artikulua. Kultura sustatzeko pizgarriak egiaztatzen dituzten zergadunen informazio betebeharrak. ... 51
37 undecies artikulua. Kenkariak enpresek gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioengatik. Urteko soldata gordina entitate enplegatzailean. ... 52
37 duodecies artikulua. Kenkaria bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak ezartzeagatik. ... 52

**IV. TITULUA ZERGA ARAUBIDE BEREZIAK** .... 53
I.KAPITULUA. ITSAS GARRAIOKO ENPRESEN ARAUBIDEA. .... 53
38. artikulua. Aplikazio eremua eta jakinarazpenaren edukia itsas garraioko enpresen araubidean. 53
39. artikulua. Komunikazioa egiteko epeak, aplikazioa luzatzea, aplikazioari uko egitea eta ukoak edo ez-betetzeak dakarren zehapena.. .... 54
39 bis artikulua. Itsas garraioko enpresen informazio betebeharrak. .... 54
II. KAPITULUA. BESTE ZERGA ARAUBIDE BEREZI BATZUK. .... 55
40. artikulua. Espainiako zein Europako ekonomia intereseko taldeen eta aldi baterako enpresa elkarteen betebeharrak. .... 55
40. bis artikulua. Muga jartzea ekonomia intereseko taldeetako bazkideei diru kopuruak egozteari. .... 56
40 ter artikulua. Errenta jakin batzuk lortzen dituzten arrisku-kapitaleko entitateek egin beharreko komunikazioak. .... 57
41. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidearen aplikazioa eta araubide horretara bildutako entitateen informazio betebeharrak. .... 58
42. artikulua. Aplikatzea bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak, aktibo nahiz pasibo osoaren lagapenak eta europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste estatu batera aldatzea arautzen dituen araubide berezia. .... 58
43. artikulua. Higiezinen errentamendu jarduera kualifikatua egiten duten entitateen araubide bereziaren aplikazioa. .... 60

**V. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA** .... 61
I. KAPITULUA. ESKABIDEAK IZAPIDETU ETA ONESTEKO PROZEDURA OROKORRA .... 61
44. artikulua. Eskabideak izapidetu eta onesteko prozedura orokorra. .... 61
II. KAPITULUA. ENTITATEEN INDIZEA. .... 62
45. artikulua. Entitateen indizea. .... 62
46. artikulua. Entitateen indizean alta berritzea eta bazterreko oharra deuseztatzea. .... 62
47. artikulua. Lankidetzan jarduteko betebeharra. .... 62
48. artikulua. Ofiziozko itzulketa. .... 63
III. KAPITULUA. KONTURAKO ORDAINKETAK .... 63
49. artikulua. Atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errentak. .... 63
50. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharraren salbuespenak. .... 63
51. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egitera behartuta dauden subjektuak. .... 69
52. artikulua. Aktibo finantzarioen kalifikazioa eta horiek eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko betekizun fiskalak. .... 71
53. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria. .... 73
54. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortzea. .... 74
55. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren portzentajea. .... 74
56. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa. .... 75
57. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak. .... 75
58. artikulua. Ordainketa zatikatuak. .... 76
Xedapen gehigarri lehena. Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak. .... 76
Bigarren xedapen gehigarria. Higiezinetako inbertsio kolektiboko erakundeen araubidea. .... 78
Hirugarren xedapen gehigarria. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea aplikatzea. .... 79
Laugarren xedapen gehigarria. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea errebokatzea. .... 79
Bosgarrena xedapen gehigarria. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko 2014 eta 2015erako portzentajea. .... 80
Seigarren xedapen gehigarria. *(indarrik gabea)* .... 81
Zazpigarren xedapen gehigarria. *(indarrik gabea)* .... 81
Zortzigarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak. .... 81
Bederatzigarren xedapen gehigarria. Aparteko mozkinen gaineko tributazio gehigarria. .... 81
Xedapen iragankor lehena. Dokumentazio betebeharretatik salbuestea ondasun higiezinen errentamenduan, azpierrentamenduan edo haiek erabili eta gozatzeko eskubide errealen eraketan edo lagapenean. .... 83
Bigarren xedapen iragankorra. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea. .... 83
Hirugarren xedapen iragankorra.Kultura sustatzeko pizgarriak 2023ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera aplikatzeko aukeratzea. .... 84

Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, nabarmen aldatu du Gipuzkoako Lurralde

Historikoan indarrean dagoen araudia zergari lotuta dauden pertsona juridikoek eta gainerako entitateek jasotzen dituzten errenten tributazioari dagokionez, hala ikuspegi sistematikotik nola tributuaren erregulazio substantibotik begiratuta.

Foru arau horretako xedapen indargabetzaile bakarreko 4. apartatuan xedatzen denez, foru arau hori garatzen duen erregelamendua onartu arte indarrean jarraituko dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua garatzeko emandako erregelamenduzko xedapenek (funtsean, Sozietateen gaineko zergaren erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuak)-, betiere foru arau berrian xedatutakoarekin bat datozen neurrian.

Hainbat apartatutan, foru arauak dio zenbait alderdi erregelamendu bidez garatuko direla. Horrela gertatzen da, esate baterako, eskaeren inguruko prozedurekin, administrazioa aurrez lotzeko prozedurekin, edo erregulazioan jasota dauden hainbat kontzeptu zehaztu beharrekin.

Gainera, indargabetutako araudtik erregulazio berrirako trantsizioa egiteak berekin dakar zenbait kasutan zergadunek aukera jakin batzuk egin behar izatea edo eskaera batzuk tramitatzea, eta horrek ezinbesteko egiten du zergaren foru arau berria erregelamendu bidez garatzea.

Ildo horretatik ere, nabarmendu behar da sozietateen gaineko zergaren erregulazioan oso alderdi berritzaileak jasotzen direla, eta horiek osorik aplikatzeko, ezinbestekoa gertatzen dela haien formulazioa areago zehaztea edo zergaren foru arauan aipatzen diren erregelamenduzko xedapenak garatzea.

Hortaz, foru dekretu honen xedea da erregelamendu bidez garatzea urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa. Horretarako, zergaren erregelamendua onartzen du, haren erregulazioa osatzeko eta araudi berria aplikagarria den lehen zergalditik aurrera zergadunei segurtasun juridikoa emateko.

Ohartarazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat organok idatzitako derrigorrezko txostenen ondorioz ahalegin handia egin dela foru dekretu honen gaztelaniazko bertsioa Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren xedapenetara oraindik are gehiago egokitzeko asmoz, betiere genero hizkerari dagokionez. Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia-itunak 3.a) artikuluan xedatzen duenari jarraiki, ez dira aldatu Zergen Lege Orokorrean definituta datozen terminoak. Bai, ordea, egokitu dira gainerako terminoak.

Honenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholku Bartzordeari entzun eta gero, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

# XEDATZEN DUT

### Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko zergaren erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da sozietateen gaineko zergaren erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa datorrena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua garatzeko.

### Xedapen gehigarri bakarra. Araudiari buruzko aipamenak.

Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuari Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudian egiten

zaizkion aipamen guztiak foru dekretu honetan onartzen den erregelamenduko xedapenei egindakoak direla joko da.

### Xedapen indargabetzaile bakarra.

**1.** Foru dekretu hau indarrean jartzen denean, indarrik gabe geratuko da ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena, salbu eta haren lehen, zortzigarren, hamargarren eta hamahirugarren xedapen iragankorrak, aplikagarri diren egoeretan ondorioak izaten jarraituko baitute.

**2.** Halaber, indargabeturik geratuko dira foru dekretu honetan eta bere eranskineko erregelamenduan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, hauek izan ezik: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak xedapen indargabetzaile bakarraren 3. apartatuan ezarritakoarengatik oraindik indarrean daudenak garatzeko onartutakoak.

## AMAIERAKO XEDAPENAK.

### Lehena. Abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua, zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzekoa, aldatzea.

Hurrengo aldaketak sartzen dira zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatzen dituen eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duen abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretuan:

**Bat.** 2. artikuluaren 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Zerga kontsultak egiteko legitimatuta daudenek eurek zuzenean edo ordezkari bidez aurkez ditzakete horiek. Ordezkari bidez aurkeztuz gero, kontsulta aurkeztean ordezkariak bere ordezkaritza frogatu behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 45., 46. eta 47. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz eta irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz.».

**Bi.** 3. artikuluaren 4. eta 5. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«4. Kontsulta ordezkari bidez aurkezten bada, ordezkaritza frogatzen duen agiria erantsi behar zaio idatziari irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, xedatutakoari jarraikiz».

«5. Zilegi izango da kontsultak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz aurkeztea, baldin eta artikulu honen 3. apartatuan aipatzen diren pertsona edo entitateen identifikazioa bermatuta geratzen bada irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, aurreikusten dituen prozeduretako bat dela medio.

Kasu horretan, Zerga Administrazioari iritzia osatzeko lagungarri gerta dakizkiokeen gainerako datu, elementu eta agiri guztiak paperean aurkeztu ahal izango dira».

**Hiru.** 8. artikuluaren 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

3. Aurretiazko tributazio proposamenak egiteko legitimatuta daudenek eurek zuzenean edo ordezkari bidez aurkez dezakete proposamena. Ordezkari bidez aurkeztuz gero, proposamena aurkeztean ordezkariak bere ordezkaritza frogatu

behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 46.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz.

**Lau.** 9. artikuluaren 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Aurreko apartatuan aipatu den idatzian honako datuok ere jaso beharko dira: zergapekoaren izen-abizenak, sozietate izena, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia (proposamena ordezkariak aurkezten badu, berarenak ere bai) eta, horrez gainera, lekua eta data. Proposamena nork bere izenean nahiz ordezkari modura aurkezten duen pertsona fisikoak sinatu behar du idatzia.

Era berean, proposamena ordezkari bidez aurkezten bada, ordezkaritza frogatzen duen agiria erantsi behar zaio proposamenari, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, xedatutakoari jarraikiz».

**Bost.** Xedapen gehigarri bat gehitzen da. Hona hemen haren edukia:

«Xedapen gehigarri bakarra. Aurretiazko tributazio proposamen bereziak.

1. Sozietateen gaineko zergaren erregelamenduko lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren kasuetan, Zerga Administrazioak aurretiazko tributazio proposamen berezia izapidetuko du xedapen gehigarri honetan ezarritako arauekin bat etorriz.

2. Sozietateen gaineko zergaren erregelamenduko lehen xedapen gehigarriak 1. apartatuan aipatzen dituen eragiketak egiten dituzten zergadunek dute aurretiazko tributazio proposamen berezia aurkezteko legitimazioa.

Sozietateen gaineko zergan baterakuntza fiskalaren araubide berezian tributatzen duten zergadunen kasuan, aurretiazko tributazio proposamen berezia aurkezteko legitimazioa entitate nagusiari dagokio.

Apartatu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, foru dekretu honen 8. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

3. Aurretiazko tributazio proposamen bereziak aurkezteko epea, haiek ondorioak sortu behar dituzten zergaldia amaitu eta hurrengo hiru hilabeteak igarotakoan bukatuko da.

Nolanahi ere, zergaren foru arauak 53. artikuluko 5. apartatuan aipatzen duen kasuan, aurretiazko tributazio proposamen berezia aurkezteko epea luzeagoa izango da. Hain zuzen ere, ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia kontabilitate emaitza positiboaren kargura zuzkitu den ekitaldiko urteko kontuak onartzeko ezarritako epea amaitu arte luzatuko da epea.

4. Aurretiazko tributazio proposamen bereziaren idazkian sozietateen gaineko zergaren erregelamenduko lehen xedapen gehigarrian kasu bakoitzerako eskatzen diren datuak jaso behar dira, eta idazkiari xedapen berean ezarritako agiriak erantsi behar zaizkio. Orobat, foru dekretu honen 9. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren alderdiak ere zehaztu behar dira, esanguratsuak baldin badira.

5. Aurretiazko tributazio proposamen bereziek ez badituzte betetzen xedapen gehigarri honetako 3. apartatuan ezarritako betekizunak, besterik gabe artxibatuko dira.

Aurretiazko tributazio proposamen bereziak ez baditu betetzen 2. eta 4. apartatuetan aipatutako beharkizunak, interesdunari hamar eguneko epea

emango zaio akatsa zuzendu dezan edo falta diren agiriak aurkeztu ditzan; era berean, adieraziko zaio hala egin ezean bere idatzia besterik gabe artxibatuko dela.

6. Aurretiazko tributazio proposamen bereziak izapidetzean foru dekretu honen 10. artikuluko 1. apartatuan ezarritako arauak aplikatuko dira. Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak txosten bat prestatuko du Ogasuneko zuzendari nagusiarentzat, non aztertu behar baitu zer elementu garrantzitsu hartu behar diren kontuan –egitezkoak zein zuzenbidezkoak– aurretiazko tributazio proposamen berezia ebazteko; txostena ez da izango ebazpen proposamena.

7. Ogasuneko zuzendari nagusiak modu arrazoituan ebatzi behar du zergadunak aurkeztutako aurretiazko tributazio proposamen berezia onartzea edo errefusatzea.

Aurretiazko tributazio proposamen bereziari Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroan sarrera eman zaion egunetik aurrera eta sei hilabeteko epean ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, proposamena ezetsitzat joko da.

8. Bere autolikidazioan bidezko manuak aplikatzeko zergadunak beharrezkoa badu haien aplikazioa baimenduta egotea eta, horretarako, aurretiazko tributazio proposamen berezi bat onartu beharra badago, zergadunak ezingo ditu horiek aplikatu proposamena onartu izanaren jakinarazpena jaso arte.

9. Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 128. artikuluan xedatutakoa gorabehera, zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen den egunean ebatzi gabe badago zergadunak foru arauaren 53.5 artikuluan ezarritako ondorioetarako aurkeztutako aurretiazko tributazio proposamen berezia, zergadunak hilabeteko epea izango du, Ogasuneko zuzendari nagusiak proposamenaren alde emandako ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera, sozietateen gaineko zergaren autolikidazio osagarria aurkezteko, eta haren bidez emaitzaren aplikazioari dagokion zuzenketa hautatzeko, hain zuzen aipatutako foru arauak 53. artikuluan aurreikusitakoa. Esandako foru arauaren 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, kasu horretan ulertuko da zergadunak zerga aitortzeko borondatezko epearen barruan egiten duela hautua».

### Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau «Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

### Hirugarrena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ahal izango ditu foru dekretu hau eta haren eranskinean jasotako erregelamendua garatu eta aplikatzeko.

## ERANSKINA:
## SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA.

# I. TITULUA
# ZERGADUNA

**1. artikulua.** (Edukirik gabe)[2]

## 2. artikulua. Ondare sozietateak.

**1.** Zergaren foru arauak 14.1.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta ez beste ezertarako, letra horretan aipatzen diren entitateak ez badaude Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudiaren menpe, ondare sozietatetzat hartuko dira zergaren foru arauaren 14. artikuluan horretarako ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

**2.** Banatu gabeko mozkinak, zergaren foru arauaren 14.2.b) artikuluan aipatuak, jarduera ekonomikoak egitetik datozen zehazteko, mozkin horiek sortu diren zergaldian indarrean zegoen araudia hartuko da kontuan.

**3.** (Edukirik gabe)[3]

**4.** (Edukirik gabe)[4]

## 3. artikulua. Ondare sozietateen betebehar formalak.

**1.** Ondare sozietateek informazio hau jaso behar dute beren urteko kontuen memorian:

a) Ondare sozietate izan gabe tributatutako zergaldietan erreserbetarako aplikatutako mozkinak.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 66. artikuluan eta haren hurrengoetan ondare sozietateentzat aurreikusten duen araubide berezian tributatu zuten zergaldietan erreserbetarako aplikatutako mozkinak, edo, zergaren foru arauaren 14. artikuluan ezarritakoaren araberako ondare sozietate izanik, aplikatutakoak.

c) Dibidenduak eta mozkin-partaidetzak erreserben kontura banatu badira, zein erreserba aplikatu den zehaztu behar dute, hau da, aurreko a) eta b) letretan aipatutako bietatik zein aplikatu den mozkin motaren arabera.

**2.** Urteko memorian aipatu beharrekoak 1.b) apartatuan jasotzen diren erreserbak dauden bitartean aipatu behar dira, nahiz eta entitatea ez izan ondare sozietatea hurrengo ekitaldi horietan.

**3.** Halaber, gastuak errenta iturrien artean banatzeko egindako kalkuluei buruzko informazio xehatua agertu behar da memorian.

---

[2]Artikulu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bat apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu.

[3]Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu.

[4] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu.

**4.** Artikulu honetan ezarritako informazio betebeharrak 1.b) apartatuan aipatu diren erreserben titulartasuna hartzen duten ondorengo entitateei ere exijituko zaizkie.

# II. TITULUA
# ZERGA OINARRIA

## I. KAPITULUA. Zuzenketak gastuen alorrean

### 4. artikulua. Amortizazio planak.

**1.** Zergadunek amortizazio plan bat onartzeko eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari, erregelamendu honen 44. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraituz, eta artikulu honetan jasotako berezitasunekin.

**2.** Eskaerak datu hauek jaso beharko ditu:

a) Amortizazio plan bereziaren xede diren ondare elementuen deskribapena. Zer jarduerari dauden atxikita eta non dauden kokatuta adieraziko da.

b) Zer amortizazio metodo proposatzen den, eta metodo horren arabera amortizazioak denboran nola banatuko diren.

c) Proposatutako amortizazio metodoaren justifikazioa.

d) Ondare elementuen eskurapen prezioa edo produkzio kostua.

e) Ondare elementuak zein egunetan jarriko diren funtzionatzeko moduan.

Ondare elementuak oraindik eraikitzen ari badira, azaldu beharko da noizko aurreikusten den haiek funtzionatzeko moduan jartzea.

**3.** Elementuak eraikitzen ari diren bitartean edo horiek funtzionatzeko moduan jarri ondorengo hiru hilabeteen barruan aurkeztu behar da eskaera.

**4.** Onartutako amortizazio planak zergadunak eskatuta aldatu ahal izango dira, betiere aurreko apartatuetan jasotako arauak errespetatuz. Aldaketak ondorioak sortu behar dituen zergaldiko lehenengo hiru hilabeteen barruan aurkeztu behar da eskaera hori.

**5.** artikulu honetan ezartzen den prozedura zergaren foru arauak 16.2.b), 16.9, 17.6 eta 20.3 artikuluetan aipatzen dituen kasuetan aplikatuko da, eta, kasu bakoitzean, zergadunak frogatu behar du artikulu horietako bakoitzean ezarrita dauden betekizunak betetzen direla.

### 5. artikulua. Gutxieneko amortizazioa.

Egindako zuzkidura benetako balio-galerarekin bat datorrela frogatzen den kasuetan izan ezik, ondare elementu bat zergaldiren batean amortizatu bada gutxieneko amortizazio koefizientea aplikatzetik ateratzen den zenbatekotik beherako kopuruan (gutxieneko amortizazio koefizientea kalkulatzen da 100 zati zergaren foru arauaren 17.6 artikuluan aipatzen den gehieneko amortizazio epea eginez), eta jarduketa horretatik ondorioztatzen den tributazioa txikiagoa bada gutxieneko amortizazioa aplikatuta ordaindu beharko zena baino, gutxieneko amortizazio hori hartuko da kontuan bidezko erregularizazioak egiteko.

### 6. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak.

**1.** Zergaren foru arauak 18.3 artikuluan ezarritakoa aukeratuz gero, horren berri eman behar zaio Zerga Administrazioari.

**2.** Aukera hori ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu baino lehen jakinarazi behar da.

**3.** Komunikazioan datu hauek jaso behar dira gutxienez:

a) Zer aktibo den finantza errentamenduko kontratuaren xedea.

b) Aktiboaren eraikuntza zein egunetan hasi eta zein egunetan amaituko den.

c) Finantza errentamenduko kontratuaren kuotak zenbatekoak diren eta kuota horiek noiz ordainduko diren.

d) Adierazi behar da aktiboak, teknika eta diseinu aldetik, ezaugarri berezikoak direla, eta ez direla seriean produzitzekoak.

## 7. artikulua. Amortizazio askatasuna, amortizazio azkartua, eta baterako amortizazioa.

**1.** Zergadunak zergaldi batean ibilgetu materialeko, ibilgetu ukiezineko eta higiezinetako inbertsioetako elementuak batera amortizatzea aukeratu badu, eta zergaldi horretan baterako amortizazioaren zenbateko kengarria ez bada izan amortizazio metodo hori aplikatzen zaien ondare elementuen eskurapen prezioaren edo produkzio kostuaren 100eko 10 baino handiagoa –elementuok aktiboan noiz sartu diren kontuan hartu gabe–, amortizatzeko geratzen den balio fiskal garbi osoa kendu ahal izango da zergaldi horretan.

**2.** Zergadunak mikroenpresa izateko baldintzak betetzeari uzten badio, eta baterako amortizazioa aplikagarri zuen ekitaldietan ondare elementuak batera amortizatu baditu, bestelako amortizazio arauak aplikatzen dituen zergaldietan zer kantitate dagoen amortizatu gabe kalkulatzeko, kopuru hauek kendu behar dira ondare elementuen eskurapen preziotik edo produkzio kostutik:

— Baterako amortizazioa aplikatu den urteetan amortizazio horretara bideratutako zuzkidurak.

— Baterako amortizazioa aplikatu ez den urteetan kengarriak izandako kontabilitate zuzkidurak, halakorik izan bada.

— Narriaduragatik izandako galera, halakorik izan bada, zerga oinarrian kendu denean.

**3.** Aurreko 2. apartatuan aipatu den amortizatu gabeko kantitatea kalkulatu ondoren, honela jokatu behar da:

a) Ondare elementuaren kontabilitate balioa handiagoa bada aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatutako zenbatekoa baino, diferentzia hori izaera positiboz integratuko da zerga oinarrian, elementuaren amortizazioaren arabera, elementua erabat amortizatu arte geratzen den balio bizitzan zehar.

b) Ondasunaren kontabilitate balioa txikiagoa bada aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatutako zenbatekoa baino, diferentzia izaera negatiboz integratuko da entitateak mikroenpresetarako erregelen arabera tributatzen ez duen lehen zergaldiko zerga oinarrian. Diferentzia hori integratuko da nahiz eta galera-irabazien kontuan egotzita ez egon.

c) Apartatu honetan aipatzen diren integrazioak amortizazio kontzeptupean egingo dira.

**4.** Amortizazioa dela-eta sortutako itzulketa aplikatzearen ondorioetarako –zergaren foru arauaren 21. artikuluko 6. apartatuan jasota dago itzulketa hori–, baldin eta zergadun batek zergaren foru arauan aurreikusitako amortizazio askatasuna, amortizazio azkartua edo baterako amortizazioa aplikatu badizkie ondare elementuei, eta, geroago, ondare sozietateen erregelen arabera hasten

bada tributatzen, araubide hori aplikatzen den zergaldi bakoitzeko zerga oinarriari itzultzeko dauden kopuruak gehitu behar dizkio gutxienez. Kopuru horiek kalkulatzeko, elementuen eskurapen prezioari edo produkzio kostuari gutxieneko amortizazio koefizientea aplikatuko zaio, hain zuzen ere eragiketa honetatik ateratzen den koefizientea: 100 zati zergaren foru arauak 17.6 artikuluan aipatzen duen gehieneko amortizazio-aldia.

## 8. artikulua. Amortizazio askatasuna. Eskaera.

**1.** Zergaren foru arauak 21. artikuluaren 1. apartatuko e) eta f) letretan aipatzen duen amortizazio askatasuna aplikatzea eskatzeko, erregelamendu honen 44. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraitu behar zaio, artikulu honetan jasotzen diren berezitasunekin.

**2.** Zergadunak eskaera bat aurkeztu behar dio Zerga Administrazioari, datu hauek adierazita:

a) Ondare elementuen deskribapena, zer jarduerari dauden atxikita eta non dauden kokatuta.

b) Elementuak lehenago aipatutako e) letrakoak badira, justifikatu behar da enpresaren jardueraren eragin kutsagarria murriztu eta zuzentzeko erabiltzen direla.

Ondorio horietarako, zergaren foru arauak 21.1 artikuluaren azken-aurreko paragrafoan aipatzen duen txostena, Gipuzkoako Foru Aldundian arlo horretan eskumena duen Departamentuak egin ahal izango du, Zerga Administrazioak eskatuta.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ofizialek lurzoru kutsatuak garbitzeko proiektu bat onetsiz emandako ebazpena, eta aurreko f) letran jasotako elementuek proiektuarekin lotura zuzena dutelako justifikazioa.

d) Ondare elementuen eskurapen prezioa edo produkzio kostua.

e) Aipatutako e) eta f) letretan jasotzen diren jarduerei ondare elementuak zein egunetan atxiki diren.

**3.** Ondare elementuak eraikitzen ari diren bitartean edo horiek jarduerei atxiki ondorengo hiru hilabeteen barruan aurkeztuko da eskaera.

## 9. artikulua. Merkataritza funts finantzarioa.

Zergaren foru arauak 24. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, artikulu horretan jasotakoa aplikatuz zerga oinarria murriztu duten ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren autolikidazioekin batera, zergadunek ondoko datuak aurkeztu behar dituzte:

a) Zuzenean partaidetutako entitateari dagokionez:

1.ª Identifikazioa eta partaidetza portzentajea.

2.ª Jardueren deskripzioa.

3.ª Partaidetzen eskurapen balioa eta eskurapen data, eta kontabilitatean dagokien ondare garbiaren balioa, urteko kontu homogeneizatuetatik abiatuta zehaztua.

4.ª Diferentziarik badago partaidetzen eskurapen prezioaren eta partaidetza horiei haien eskurapen datan egozgarri zitzaien kontabilitateko ondare garbiaren artean, justifikatu behar da zein irizpide erabiliko diren, batetik, diferentzia hori balioari eta denborari dagokionez homogeneizatzeko, eta, bestetik, diferentzia hori entitate partaidetuen ondasun eta eskubideei egozteko.

b) Partaidetzak eskuratzen zaizkion entitateak, aldi berean, beste batean parte hartzen duenean, zergaren foru arauak 24. artikuluaren 2. apartatuan adierazitako zentzuan:

1.ª Zuzenean partaidetutako entitatearen identifikazioa, entitate horretan hartutako partaidetza portzentajea, eta haren jardueren deskripzioa.

2.ª Zeharka partaidetutako entitateen identifikazioa, zeharkako partaidetza portzentajea, eta haien jardueren deskripzioa.

3.ª Partaidetzen eskurapen balioa eta data, eta kontabilitatean dagokien ondare garbiaren balioa, behar bezala homogeneizatu egon behar duten urteko kontu bateratuetatik abiatuta zehaztua. Kontu horiek, bestalde, Merkataritza Kodean eta hura garatzeko arauetan jasotako irizpideak aplikatuz prestatuko dira.

4.ª Diferentziarik badago partaidetzen eskurapen prezioaren eta partaidetza horiei haien eskurapen datan egozgarri zitzaien kontabilitateko ondare garbiaren artean, justifikatu behar da zein irizpide erabiliko diren, batetik, diferentzia hori balioari eta denborari dagokionez homogeneizatzeko, eta, bestetik, diferentzia hori entitate partaidetuen ondasun eta eskubideei egozteko.

c) Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren entitateen partaidetzak eskuratzeko egindako inbertsioaren zenbatekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak hogeita seigarren xedapen iragankorrean arautzen duen kenkariaren oinarrian sartutakoa.

### 9 bis artikulua. Finantza gastuen kengarritasunari muga handiagoa aplikatzeko proposamena.[5]

**1.** Zergaren foru arauak 25 bis artikuluko 8. apartatuan aipatzen dituen kasuetan, finantza gastu garbiei artikulu horren 1. apartatuan ezarritakoa baino kengarritasun muga handiagoa aplikatzea proposatu nahi bada, muga hori kalkulatzeko prozedura, zeina oinarrituko baita taldeak hirugarrenekin dituen finantza gastu garbiek sozietate taldearen mozkin operatiboan adierazten duten koefizientean, Erregelamendu honetako 23. artikulutik 28. artikulura bitartean ezarritako arauak aplikatuz gauzatuko da, betiere artikulu honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

**2.** Aipatutako 8. apartatuan aurreikusten den proposamenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute zergapekoek:

a) Entitatea kide den sozietate taldearen deskribapena.

b) Entitatearen urteko kontuak eta entitate hori kide den sozietate taldearen urteko kontu bateratuak.

c) Sozietate taldeak hirugarrenekin dituen finantza gastu garbien kalkulua eta xehetasuna.

d) Sozietate taldearen mozkin operatiboaren kalkulua eta xehetasuna.

---

[5] Artikulu hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

e) Finantza gastu garbien kengarritasunerako proposatzen den muga handiagoa eta haren justifikazioa, hura aplikatzeko oinarrizkotzat jo behar diren zirkunstantzia ekonomikoak adierazita.

### 10. artikulua. Ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuen planak.

**1.** Zergadunek ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuen plan bat onartzeko eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari, hain zuzen ere zergaren foru arauaren 26.2 artikuluan aipatutakoa, erregelamendu honen 44. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraituz, eta artikulu honetan jasotako berezitasunekin.

**2.** Eskaerak datu hauek jaso beharko ditu:

a) Zergadunak ingurumenari kalterik ez eragiteko edo horiek konpontzeko bere gain hartutako betebeharren edo konpromisoen deskripzioa.

b) Jarduketaren deskripzio teknikoa eta jarduketa egin beharraren justifikazioa.

c) Ingurumen alorreko jarduketarengatik aurreikusitako gastuen zenbatekoa, eta zenbateko horren justifikazioa.

d) Ingurumen alorreko jarduketarengatik aurreikusitako gastuen zenbatekoa denboran egozteko irizpidea, eta irizpide horren justifikazioa.

e) Ingurumen alorreko jarduketa hasteko data.

**3.** Eskaera aurkeztu behar da ingurumen alorreko jarduketa egiteko betebeharra edo konpromisoa sortu ondorengo hiru hilabeteen barruan.

**4.** Ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuetarako onartzen dien planak zergadunak eskatuta aldatu daitezke, betiere artikulu honetan ezarritako arauak betez gero. Aldaketak ondorioak sortu behar dituen zergaldiko lehenengo hiru hilabeteen barruan aurkeztu behar da eskaera hori.

### 11. artikulua. Gastu ez-kengarriak.

Zergaren foru arauak 31. artikuluaren 1. apartatuko h) letran xedatutakoaren ondorioetarako, artikulu horretan aipatzen diren gastuen zati bat baino ez bada ordaindu eskudirutan, eskudirutan ordaindutako zatiari dagokion zenbatekoa izango da ez-kengarria.

## II. KAPITULUA. Zuzenketak sarreren alorrean

### 12. artikulua. Berrinbertsio plan bereziak.

**1.** Inbertsioaren ezaugarri tekniko edo ekonomikoak direla-eta, frogatzen bada nahitaezkoa dela inbertsio hori egitea zergaren foru arauak 36.1 artikuluan aurreikusitakoa baino epe luzeagoan, zergadunek berrinbertsio plan bereziak onartzeko eskatu diezaiokete Zerga Administrazioari.

Erregelamendu honen 44. artikuluan jasotako prozedura orokorraren arabera egin eta tramitatuko da eskaera, artikulu honetako hurrengo apartatuetan zehaztutako berezitasunak kontuan hartuta.

**2.** Eskaerak datu hauek jaso beharko ditu:

a) Eskualdatu diren edo eskualdatzeko dauden ondare elementuen deskripzioa.

b) Eskualdaketaren zenbatekoa, benetakoa edo aurreikusia.

c) Berrinbertsioa jasoko duten ondare elementuen deskripzioa.

d) Berrinbertsioa denboran gauzatzeko planaren deskripzioa.

e) Berrinbertsio plan berezia justifikatzen duten berariazko zirkunstantzien deskripzioa.

**3.** Berrinbertsio plan berezia epe hauetan aurkeztuko da, kasuen arabera:

a) Sei hilabeteko epean, aparteko mozkina eragin duen eskualdaketaren egunetik aurrera.

b) Eskualdaketa egiteko aurreikusi den egunaren aurreko sei hilabeteen barruan.

c) Inbertsio aurreratua egiteko edo hasteko aurreikusi den egunaren aurreko sei hilabeteen barruan.

Aurreko b) letran jasotako kasuan, eskualdaketa egin behar da berrinbertsio plan berezia onartu ondorengo sei hilabeteko epean; aldiz, c) letran jasotako kasuan, eskaera aurkeztu ondorengo sei hilabeteen barruan egin edo hasi behar da inbertsioa.

**4.** Era berean, zergadunek berrinbertsio plan bereziak onartzeko eskatu dezakete, baldin eta gerora agertutako zirkunstantziak direla-eta, denak ere behar bezala arrazoituak, berrinbertsio prozesua ezin bada osatu zergaren foru arauak 36.1 artikuluan ezartzen duen epean.

Horrelakoetan, zergadunek eskaera bat aurkeztu behar dute aurreko 2. apartatuan aipatutako datuak bilduta, eta bertan zehaztu behar dute dagoeneko berrinbertsioaren zer zati egin duten eta zenbat denbora beharko duten hura osatzeko.

Apartatu honetan aipatzen diren kasuetan, zergaren foru arauak 36.1 artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik eskatu behar da berrinbertsio plan berezia.

**5.** Berrinbertsio plana ez bada betetzen, dela osorik dela zati batean, zergadunak bere zerga egoera erregularizatu beharko du, zergaren foru arauak 36. artikuluaren 5. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Proposatutako inbertsioaren eta benetan egindakoaren arteko proportzioa kontuan hartuz egingo da erregularizazioa.

## 13. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa: betebehar formalak.

**1.** Zergadunek datu hauek jaso behar dituzte urteko kontuen memorian:

a) Zergaren foru arauak 36. artikuluan jasotako araubidera bildutako errentaren zenbatekoa.

b) Zerga oinarrian sartu ez diren errentak zein zergalditan sortu diren.

c) Berrinbertsioa jaso duten ondare elementuen deskripzioa eta berrinbertsioaren zergaldiak.

**2.** Aipamen horiek egin behar dira zergaren foru arauak 36. artikuluaren 4. apartatuan ezartzen duen epeak iraun bitartean.

## 13 bis artikulua. *(indargabetua)*[6]

---

[6] Artikulu hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren bi apartatuak indargabetu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak..

**14. artikulua. Alderdi politikoen berezko ustiapen ekonomiko salbuetsiak.**

**1.** Zergaren foru arauak 38. artikuluaren 2. apartatuan aurreikusten duen salbuespenaz gozatzeko, alderdi politikoek eskaera aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, salbuespenak ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu aurretik.

Eskaerarekin batera, salbuespena eskatzen duen alderdi politikoak honako hauek aurkeztu behar ditu: eraketa-eskrituraren eta estatutuen kopia soila, Barne Ministerioko alderdi politikoen erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria, eta, azkenik, salbuespen-eskaerarekin lotuta dauden ustiapen ekonomikoak berezko jarduerarekin bat datozela azaltzen eta justifikatzen duen memoria.

Ondorio horietarako, ulertuko da ustiapen ekonomikoak alderdi politikoaren berezko jarduerarekin bat datozela:

a) Zuzenean edo zeharka, alderdi politikoaren helburuak lortzen laguntzen dutenean.

b) Salbuespen honetaz gozatzeak jarduera berean aritzen dien enpresekiko lehian distortsiorik eragiten ez duenean.

c)[7] Pertsona talde generikoei berdintasun baldintzetan ematen zaienean. Baldintza hori ez dela betetzen ulertuko da sustatzaileak, afiliatuak, konpromisarioak eta zuzendaritza eta administrazio organoetako kideak, edo haien ezkontideak, izatezko bikote lagunak edo laugarren gradurainoko ahaideak, horiek barne (izan ahaidetasun harremana odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa, edo adopzioa), jardueraren hartzaile nagusiak direnean edo haren zerbitzuak erabiltzeko baldintza bereziak dituztenean.

**2.** Zerga Administrazioak modu arrazoituan ebatzi behar du eskatutako salbuespena. Salbuespena aplikatzeko, ezinbestekoa izango da une orotan betetzea zergaren foru arauaren 12.2 artikuluan, 38. artikuluan eta artikulu honetan bertan ezarritako baldintzak eta beharkizunak.

Zerga Administrazioak ez badu jakinarazten ebazpena sei hilabeteko epean, salbuespena eman dela ulertuko da.

**3.** Aurreko apartatuetan adierazitako salbuespena behin emanda, hurrengo zergaldietan aplikatzeko, ez da beharrezkoa izango eskaera berriro aurkeztea, salbu eta hura emateko kontuan hartutako inguruabarrak edo aplikatu beharreko araudia aldatzen badira.

Salbuespena aplikatzeko exijitutako baldintza edo beharkizunetan aldaketa esanguratsuak gertatzen badira, alderdi politikoak haien berri eman behar dio Zerga Administrazioari. Alderdi politikoari 10 eguneko entzunaldia eman ondoren, salbuespena aplikatzen jarraitu behar den ala ez erabaki dezake Zerga Administrazioak. Era berean jokatuko da Zerga Administrazioak edozein bide erabilita jakiten duenean salbuespena aplikatzeko baldintzak edo beharkizunak aldatu direla.

**4.** Salbuespen hau aplikatzeko ezarritako beharkizunak ez betetzeak hura aplikatzeko eskubidea galtzea ekarriko du, ez-betetzea gertatu den zergalditik bertatik aurrera.

---

[7] Letra hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 5. artikuluak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu ).

**5.** Atxikitzeko edo kontura sartzeko obligaziotik salbuetsita daudela frogatzeko –zergaren foru arauak 38. artikuluaren 2. apartatuan jasotakoari jarraituz–, alderdi politikoek bidezko ziurtagiria aurkeztu behar dute, Zerga Administrazioak luzatua. Ziurtagiria eskatzen dutenean, Barne Ministerioko Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiriaren kopia erantsiko dute.

Ziurtagiriak jasota utzi behar du bere indarraldia ematen den egunean hasten dela eta eskatzailearen zergaldiarekin batera amaituko dela.

# III. KAPITULUA. Zuzenketak balorazio erregelen alorrean eta abusuaren aurkako neurriak

## *Lehen sekzioa. Zenbait eragiketa loturen merkatuko balio normala zehaztea*

### 15. artikulua. Bazkide profesionalen zerbitzu prestazioak.

Zergaren foru arauak 42. artikuluaren 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, bazkide profesional batek -pertsona fisiko batek- entitate lotu bati egindako zerbitzu prestazioen kasuan, zergapekoak ulertu ahal izango du hitzartutako balioa bat datorrela merkatuko balio normalarekin, baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Entitatea zergaren foru arauaren 13. artikuluko 1. edo 2. apartatuetan aurreikusten diren entitateetako bat izatea; ekitaldian izandako sarreren 100eko 75 baino gehiago jarduera profesionalak betetzetik etortzea; bitarteko material zein pertsonal egokiak edukitzea; eta, azkenik, ekitaldiko emaitza, euren zerbitzu prestazioengatik bazkide profesional guztiei dagozkien ordainsarien kenkaria aplikatu baino lehen, positiboa izatea.

b) Bazkide profesional guztiek entitateari egindako zerbitzuengatik jasotako ordainsarien zenbatekoak ezin du izan a) letran aipatzen den emaitzaren, hau da, kenkaria aplikatu aurreko emaitzaren 100eko 85 baino txikiagoa.

c) Bazkide profesional bakoitzari dagozkion ordainsarien zenbatekoak baldintza hauek bete behar ditu:

1.ª Bazkideek sozietateak ondo funtziona dezan egiten duten kontribuzioaren arabera zehaztu behar da zenbateko hori, eta, gainera, beharrezkoa da aplikagarri diren irizpide kualitatibo eta/edo kuantitatiboak idatziz jasota uztea.

2.ª Ordainsarien zenbatekoak ezin du izan sozietatean antzeko eginkizunak entitateko bazkide profesionalen pareko dedikazioarekin betetzen dituzten soldatapeko langileen batez besteko soldata baino txikiagoa. Soldatapeko langilerik ez badago, ordainsarien zenbatekoak ezingo du izan Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 17. artikuluaren lehen paragrafoan lanaldi osoko bazkideentzat ezarritako zenbatekoa (edo lanaldia bestelakoa bada zenbateko proportzionala) bi halakoa baino txikiagoa.

2. zenbaki honetan ezartzen den baldintza bazkide profesionaletako batek ez betetzeak ez du eragotziko gainerako bazkide profesionalei apartatu honetan aurreikusitakoa aplikatu ahal izatea.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzea zergapekoak aukeratzen duenean, orduan bakarrik izango dira aplikagarriak bertan jasotako irizpideak.

## *Bigarren sekzioa. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak dokumentatzeko betebeharrak*

## 16. artikulua. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak dokumentatzeko betebeharrak: salbuespenak eta informazio betebeharrak.

**1.** Zergaren foru arauak 43. artikuluaren 7. apartatuan aipatzen duen salbuespena eskatzeko, nahitaez bete behar dira zergaren foru arauaren 43.6 artikuluan eta erregelamendu honetako ondoko artikuluetan ezarritako baldintza guztiak, eragiketa bakoitzerako finkatutako gutxieneko atalasea gainditzeari dagokiona izan ezik.

Apartatu honetan dokumentazio betebeharretatik salbuesteko aurreikusten den prozedura erregelamendu honen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz izapidetuko da. Ogasuneko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena, baina ebazpena eman aurretik, Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiaren txostena beharko da azaldutako betekizun guztiak betetzen direla ziurtatzeko.

**2.** Zergaren foru arauak 43. artikuluaren 5. apartatuko d) eta g) letretan, artikulu horretako 6. apartatuan, eta artikulu honetako aurreko apartatuan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zerbitzu prestazioei haien ordainsariak lan etekintzat hartzen direnean edo pertsona fisikoa den bazkide profesional batek hari lotutako entitateekin egindako jarduera ekonomikoetatik datozenean. Jarduera ekonomiko horietatik etorriz gero, zerbitzu prestazioei aplikatuko zaie erregelamendu honetako 15. artikuluan xedatutakoa; alabaina, zergapekoak ez badu aukeratzen artikulu horretan jasotakoa edo bertan ezarritako betekizunak betetzen ez baditu, orduan dokumentazio betebehar orokorrak izango dira aplikagarriak.

**3.** Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezartzen duen eran eman behar dute zergapekoek eragiketa lotuen inguruko informazioa.

## 17. artikulua. Zerbitzu prestazioak, haien ordainsariak lanaren edo jarduera ekonomikoen etekintzat hartzen direnean.

**1.** Dokumentazio betebeharrak zergaren foru arauaren 43.6 artikuluko a) letran aipatzen den kasuan betetzetik salbuesteko, baldintza hauek ere bete behar dira:

a) Beharrezkoa da dokumentatzea lotutako pertsona fisikoak ordainsaria ematen dion entitateari egindako funtzio edo jarduerak, motaren arabera bereizita (gerentziakoak edo zuzendaritzakoak, administratiboak, erosketak edo salmentak kudeatzekoak, eta bestelakoak).

Lotutako pertsona fisikoek ez badute lanaldi osoko dedikaziorik, egoera hori justifikatu behar da, zergaren foru arauak 43. artikuluaren 6. apartatuko a) letran aipatzen duen gutxieneko atalasea hainbanatzeko.

Lotutako pertsona fisikoak bazkideak badira eta haietako batzuek zerbitzuak ematen badizkiote entitateari, sozietate itunak aurkeztu beharko dira haien bitartez dokumentatzeko zer jarduera edo funtzio egiten dituen sozietatean bazkide bakoitzak eta zer irizpide aplikatu diren bakoitzaren ordainsariak zehazteko.

b) Gerentzia edo zuzendaritza lanak egiten dituzten pertsona fisiko lotuen ordainsaria ezin da izan txikiagoa besteren konturako langile batek, izaera hori izan gabe eta zerbitzu prestazio horretan pareko dedikazioarekin, jaso dezakeen ordainsaririk handiena baino.

c) Ordainsariak banku transferentzia bidez ordaindu behar dira, hilean behin, urte osoan zehar, eta nahitaezkoa izango da zergaren foru arauaren 43. artikuluko 6. apartatuaren a) letran aipatzen den gutxieneko atalasea kopuru bereko hamabi hilekotan zatitzea.

**2.** Pertsona fisiko batek harekin lotutako hainbat entitateri egiten badizkie zerbitzuak, zergaren foru arauaren 43. artikuluko 6. apartatuaren a) letran ezarritako gutxieneko atalasea hainbanatu beharko da, haietako bakoitzean eskaini duen denboraren eta bete dituen funtzioen arabera.

Zergaren foru arauaren 43. artikuluko 6. apartatuaren a) letran eta artikulu honetan ezarritako betekizunak betetzat jotzeko, aurreko paragrafoan ezarritakoaz gainera, ezinbestekoa da lotutako pertsona fisikoari haren zerbitzuak jaso dituzten entitateek guztira ordaindutako zenbatekoa izatea, behinik behin, zergaren foru arauak 43.6.a) artikuluan ezarritako gutxieneko atalasa adinakoa.

## 18. artikulua. Finantzaketa eragiketak.

**1.** Pertsona edo entitate lotuen arteko finantzaketa eragiketak zergaren foru arauaren 43. artikuluko 6. apartatuaren b) letran aipatzen denaren arabera daude dokumentazio betebeharretatik salbuetsita, eta eragiketa horien artean sartzen dira ez bakarrik berariazko mailegu-eragiketak eta emandako kredituen zenbatekoak, baita merkataritzaz kanpoko aurrerakinak eta ordaindu gabeko ordainsariak ere.

**2.** Zergaren foru arauak 43.6 artikuluko b) letran aipatzen duen salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek ere bete behar dira:

a) Eragiketa bakoitzaren baldintzak dokumentatu behar dira, hala nola interes tasa, indarraldia, amortizazio kuoten eta interesen mugaegunak (kopuruok nola kalkulatu diren berariaz zehaztuta), mailegu hartzailearen esku jarritako kapitalen jatorria, eta itzulketak kargatzeko edo ordaintzeko eta interesak ordaintzeko erabilitako banku kontuak. Gauza bera egin beharko da bazkideekin eta administratzaileekin eduki diren kontu korronteei dagokienez.

b) Eragiketetatik ondorioztatzen diren ordainketak zergaldi bakoitzean egin behar dira, banku transferentziaren bidez, eta gutxienez transferentzia bat urtean.

## 19. artikulua. Ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan ematea eta haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubide errealak eratu edo lagatzea.

**1.** Dokumentazio betebeharrak zergaren foru arauak 43.6 artikuluko c) letran aipatzen duen kasuan betetzetik salbuesteko, baldintza hauek ere bete behar dira:

a) Eragiketa idatzizko kontratu baten bitartez formalizatu behar da, bertan datu hauek labur azalduta: higiezinaren ezaugarriak, eragiketan parte hartzen dutenen identifikazioa, eragiketaren iraupena, errentariak edo lagapen-hartzaileak urtean ordaindu beharreko errenta, eta errentamendu edo azpierrentamenduarengatik nahiz eskubide errealaren eraketa edo lagapenagatik ordaindu beharreko kuotak exijitzeko mementoa.

b) Eragiketetatik ondorioztatzen diren ordainketak zergaldi bakoitzean egin behar dira, banku transferentziaren bidez, eta gutxienez transferentzia bat urtean.

**2.** Higiezinak ez badu esleituta balio katastralik, zergaren foru arauak 43. artikuluaren 6. apartatuko c) letran ezartzen duen 100eko 4ko portzentajea aplikatuko zaio eskurapen balioaren 100eko 80ari edo, eskurapen balioa baino handiagoa bada, Administrazioak azken eskualdaketan egiaztatutako balioaren 100eko 80ari. Egiaztatutako balioaren kasuan, ezinbestekoa da eskualdaketa artikulu honetan ezarritako arauak aplikatu aurreko lau urte naturalen barruan egina izatea.

Aurreko arau horiek aplikatu ezin badira, tasatzaile independente batek kontratua sinatu den eguna erreferentzia hartuta egindako tasazioaren 100eko 80ari aplikatuko zaio 100eko 4ko portzentajea.

**3.** Zergaren foru arauaren 43.6.c) artikuluan edo artikulu honetako aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera zehaztutako balioa erreferentzia gisa erabiliko da kontratuaren iraunaldiko lehen urtean zehar (datatik datara kontatu behar da urte hori). Hurrengo lau urteetan urtero eguneratu beharko da balio hori, kontsumoko prezioen indizeak urtetik urtera duen bilakaeraren arabera, eta urte horietako bakoitzean erreferentzia izango da Estatistika Institutu Nazionalak berrikuspen egunaren aurretik argitaratutako azken balioa.

Bost urtean behin, berriz kalkulatu beharko da higiezinaren balioa, artikulu honetan ezarritako metodoa aplikatuta.

## 20. artikulua. Zergadunaren berariazko dokumentazioa kasu jakin batzuetan.

**1.** Zergaren foru arauak 43. artikuluko 4. apartatuan ezartzen dituen dokumentazio betebeharrak bere osoan izango dira exijigarriak, salbu eta eragiketan esku hartu dutenetako bat zergaren foru arauaren 13. artikuluko 1. edo 2. apartatuetan aipatutako entitateetako bat denean, edo, bestela, pertsona fisiko bat denean, eta, gainera, eragiketa horiek paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan dauden pertsona edo entitateekin egin direnean. Izan ere, horrelakoetan, berariazko dokumentazio betebehar hauek izango dituzte zergapekoek:

a) Zergaren foru arauak 43. artikuluaren 4. apartatuko a), b), c) eta e) letretan jasotakoak, baldin eta eragiketak zergaren foru arauaren 43. artikuluak 5. apartatuko g) letraren 2. zenbakian aurreikusten dituenak badira.

b) Zergaren foru arauak 43. artikuluaren 4. apartatuko a) eta e) letretan jasotakoak, baita balioa zehazteko erabilitako magnitudeak, portzentajeak, ratioak, fluxu deskontuei aplikatu beharreko interes tasak, aurreikuspenak eta gainerako baloreak ere, baldin eta eragiketa zergaren foru arauaren 43. artikuluak 5. apartatuko g) letraren 3. zenbakian aipatzen duen eragiketa bada.

c) Zergaren foru arauak 43. artikuluaren 4. apartatuko a), c) eta e) letretan jasotakoak, zergaren foru arauaren 43. artikuluak 5. apartatuko g) letraren 4. zenbakian aurreikusten dituen kasuetan.

d) Zergaren foru arauak 43. artikuluaren 4. apartatuko a) letran jasotako betebeharra, bai eta erregelamendu honen 15. artikuluan jasotako baldintzak bete izanaren justifikazioa ere, aipatutako artikuluan ezarritakoa aplikagarri duten zerbitzu profesionalen prestazioak direnean.

e) Zergaren foru arauak 43. artikuluaren 4. apartatuko a) eta e) letretan jasotako betebeharrak, bai eta erabilitako balorazio metodoaren identifikazioa eta horretatik eratorritako balio tartea ere, gainerako kasuetan.

**2.** Zergaren foru arauak 46. artikuluaren 2. apartatuko a) letran xedatutakoaren ondorioetarako, artikulu honen aurreko apartatuan ezarritakoa aplikatu behar den kasuetan, artikulu honen aurreko apartatuko b), d) eta e) letretan aipatzen diren informazioak datu multzo desberdinak izango dira.

## 20 bis artikulua. Herrialdez herrialde informatzeko obligazioa.[8]

[8] Artikulu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren lehenengo ordinalak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari dagokio onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 43. artikuluaren 10. apartatuan ezartzen duen informazio obligazioa betetzeko aurkeztu beharreko aitorpen eredua eta beronen aurkezpen modua, baita obligazio hori bitarteko elektronikoen bidez betetzeko kasu eta baldintzak ere, hala behar denerako.

2. Artikulu honetan aurreikusitako informazioa aurkezteko epea hamabi hilabete igaro ondoren bukatuko da, zergaldia amaitzen denetik aurrera.

## *Hirugarren sekzioa. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea*

### 21. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea.

**1.** Ikuskapen prozedura batean egin beharreko erregulazioaren xede bakarra balorazioa zuzentzea ez denean, zuzenketatik eratortzen den likidazio proposamena ez da dokumentatuko zerga obligazioaren gainerako elementuengatik egin beharreko aktan, beste akta batean baizik. Akta horretan justifikatu behar da merkatuko balio normala zergaren foru arauak 42.4 artikuluan jasotako metodoetako bat erabilita kalkulatu izana, eta behar bezala adierazi behar da zer arrazoi izan diren zergadunak egindako balorazioa zuzentzeko. Akta horretatik eratorritako likidazioa behin-behinekoa izango da, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 145. artikuluaren 3. apartatuko b) letran jasotakoaren arabera.

**2.** Zergapekoak errekurtsoa edo erreklamazioa aurkezten badu balorazioa zuzendu ondoren egindako behin-behineko likidazioaren aurka, eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei likidazio horren eta berrikuspen prozeduraren berri emango zaie, prozeduran agertzeko aukera izan dezaten, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 230.3 eta 238.3 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

Ezarritako epeak amaitu eta zergapekoak ez badu errekurtso edo erreklamaziorik aurkeztu, behin-behineko likidazioa jakinaraziko zaie eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei, nahi izanez gero elkarrekin berraztertze errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteko.

**3.** Zergaren foru arauak 42.4 artikuluan jasotako metodoak aplikatzeko beharrezkoa izan denean ondasun edo eskubideen balioa egiaztatzea martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 56.1 artikuluan jasotako bitarteetako bat erabilita, zergapekoak perituen tasazio kontrajarria sustatu dezake, ondasun edo eskubide horien balio egiaztatua zuzentzeko. Zergapekoak perituen tasazio kontrajarria sustatzen badu, organo eskudunak Administrazioko peritu batek egindako txostena jakinarazi behar die bai zergapekoari eta bai eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei. Orobat, 15 eguneko epea emango die elkarrekin peritu bat izendatu dezaten, kontuan izanik peritu horrek baloratzekoak diren ondasun edo eskubideen izaerari ongi egokitzen zaion titulua eduki behar duela. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 129. artikuluan jasotakoaren arabera tramitatuko da.

---

erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketak, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izango ditu.

Behin amaituta perituen tasazio kontrajarriaren prozedura, aurreko 2. apartatuan adierazitakoari jarraituz jokatuko da, tasazioaren baliotik eratorritako behin-behineko likidazioaren aurka aurkez daitezkeen errekurtso edo erreklamazioei dagokienez.

Apartatu honetan jasotakoaren arabera perituen tasazio kontrajarriaren prozedura sustatu daitekeenean eta bidezko epeak amaitu direnean zergapekoak tasazio hori sustatu gabe edo errekurtso edo erreklamaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko likidazioa eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei jakinaraziko zaie, hala nahi dutenek perituen tasazio kontrajarria elkarrekin sustatu edo errekurtso edo erreklamazioa elkarrekin aurkezteko. Alderdi edo entitate lotuen artean adostasunik ez egoteagatik, perituen tasazio kontrajarria eskatzearekin batera errekurtsoa eta erreklamazioa aurkezten bada, aurrenik perituen tasazioa izapidetuko da, zergaren foru arauak 42. artikuluko 2. apartatuko jasotako balioa zehaztearren. Perituen tasazio kontrajarriaren eskaera aurkezteak ondorio etengarriak izango ditu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 129.1 artikuluan jasotakoaren arabera, eta berekin ekarriko du perituen tasazio kontrajarriarekin batera aurkezten diren errekurtso eta erreklamazioak ez onartzea.

Behin amaituta aurreko paragrafoan jasotako perituen tasazio kontrajarriaren prozedura, alderdi edo entitate lotuek elkarrekin aukeratu dezakete, aurreko 2. apartatuan jasotakoari jarraituz, berraztertze errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztea tasazioaren baliotik eratorritako behin-behineko likidazioaren kontra.

**4.** Behin zergapekoari egindako likidazioa irmo bihurtuta, Zerga Administrazioak gainerako pertsona edo entitate lotuen zerga egoera erregularizatuko du, balio egiaztatua eta irmoa aintzat hartuta, eta behar den kasuetan, berandutze interesak onartuta. Erregularizazio hori gauzatzeko, likidazio bat egingo da, hain zuzen ere irmotasuna gertatzen den unean autolikidazio epea amaitua duen azken zergaldiari dagokiona. Zergaldirik gabeko zergak direnean, erregularizazio hori gauzatzeko egin beharreko likidazioa, zergapekoari egindako likidazioak irmotasuna hartzen duen uneari dagokiona izango da.

Likidazio horretan, kontuan hartuko da zer ondorio dituen egiaztatutako balio irmoak Zerga Administrazioaren balio zuzenketak eragindako zergaldietako bakoitzean, eta behar den kasuetan, likidazio horretan berandutze interesak ere sartuko dira. Erregulazioak itzulketa bat ekartzen badu eragiketa lotuak ondorioak izan dituen zergaldietan, interes horiek kalkulatuko dira autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik edo autolikidazioa epez kanpo aurkezten den egunetik eragiketa horren balio egiaztatua gainerako pertsona edo entitate lotuen aurrean eraginkorra gertatzen den arte –eraginkortasun hori zergaren foru arauak 45. artikuluaren 6. apartatuko c) letran eta aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera, beti–.

Era berean, eragiketa lotuak ondorioak sortzen baditu Administrazioaren erregularizazioak hartzen duen zergaldia amaitu ondorengo zergaldietan, zergapekoek balio egiaztatua aplikatu beharko dute zergaldi horietako aitorpenetan.

Aurreko likidazioa egiteko, ikuskaritzako organoek martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 136. artikuluan aurreikusten dituen ahalmenak erabil ditzakete, bai eta informazioa lortzeko beharrezko irizten dituzten jarduketak egin ere.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, gainerako pertsona edo entitate lotuek, behin dakitenean zergapekoari egindako likidazioa irmoa dela eta, beraz,

balio egiaztatuak irmotasuna baduela, beren zerga egoera erregularizatu dezakete, hala nahi badute, Administrazioak egitea itxaron gabe; horretarako, bidezko aitorpenak zuzenduko dituzte 4. apartatu honetan jasotakoaren arabera.

**5.** Artikulu honetan araututako prozedura ez zaie aplikatuko balorazio zuzenketak eraginda dauden pertsona edo entitateei, lurralde espainiarrean egoiliarrak ez badira edo bertan establezimendu iraunkorrik ez badute, zergaren foru arauak 45. artikuluaren 6. apartatuko d) letran jasotakoari jarraituz.

Balorazio zuzenketak eragindako pertsona edo entitateek ez badute egoitza lurralde espainiarrean -non eta ez diren hartan kokatutako establezimendu iraunkorrak- eta barne ordenamenduan sartutako itun edo hitzarmen bati heldu ahal badiote, adiskidetasunezko prozedurara edo arbitraje prozedurara jo behar dute balorazio zuzenketak sortutako zergapetze bikoitza ezabatzeko, zergaren foru arauak 45. artikuluaren 6. apartatuko f) xedatutakoarekin bat etorriz.

**6.** Artikulu honetako aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, lotutako pertsonek edo entitateek aldebiko doikuntza egiteko eskatu ahal izango dute, are balorazioa irmoa izan baino lehen ere, baldin pertsona edo entitate lotu guztiak, Gipuzkoako Foru Ogasunak ikuska ditzakeenak, ados agertzen badira. Hala gertatuz gero, zerga ikuskaritzak batera erregularizatu ahal izango du denen zerga egoera.

## *Laugarren sekzioa. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketen aurretiazko balorazio akordioak*

### *Lehenengo azpisekzioa. Eragiketa lotuen inguruko akordioak zergapekoek eskatuta lortzeko prozedura.*

#### 22. artikulua. Aurretiazko jarduketak.

**1.** Pertsona edo entitate lotuek Zerga Administrazioari eskatu nahi badiote haien arteko eragiketen merkatuko balio normala zehaztu dezala, aurrenik eskaera bat aurkeztu behar diote bertan datu hauek agertuta:

a) Eragiketak egingo dituzten pertsona edo entitateen identifikazioa.

b) Eragiketen deskripzio laburra.

c) Egin nahi den balorazio proposamenaren oinarrizko elementuak.

**2.** Zerga Administrazioak aurretiazko eskaera aztertuko du, eta interesdunei behar diren azalpenak eskatu diezazkieke; gainera, aurretiazko balorazio akordioa bideragarria den edo ez jakinaraziko die horiei.

#### 23. artikulua. Prozedura hastea.

**1.** Lotutako pertsona edo entitateek erregelamendu honen 44. artikuluan ezarrita dagoen prozedurari jarraituz eta artikulu honetan jasotako berezitasunekin eskatu diezaiokete Zerga Administrazioari beraien arteko eragiketen merkatuko balioa aldez aurretik zehaztu dezala. Eskaeran merkatuko balioan oinarritutako balorazio proposamen bat jaso beharko da –proposatutako metodoa azalduta–, eta proposamenari analisi bat erantsi behar zaio metodoaren aplikazioak lehia librearen printzipioa errespetatzen duela justifikatzeko.

Balioa zehazteko eskatzen duten pertsona edo entitate guztiek sinatu behar dute eskaera; horrez gainera, Zerga Administrazioari frogatu behar diote baloratzeko eskatzen diren eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitateek balorazio eskaeraren berri badutela eta hura onartzen dutela.

[9]**2.** Eskaerari erantsi behar zaio zergaren foru arauaren 43. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan aipatzen den dokumentazioa, balorazio proposamenari aplikagarri zaion heinean, eta kasuaren zirkunstantzietara egokituko da.

Elkarri laguntzeko tresnen indarrez, beharrezko gertatzen bada balorazio proposamenaren ebazpenari buruz informazio trukea egitea beste estatu batzuekin edo nazioarteko zein nazioz gaindiko entitateekin, zirkunstantzia hori berariaz adierazi beharko da proposamenean, nahiz eta horrek ez duen kentzen prozedura ebazteko eskumena duen zerga administrazioak ofizioz aintzat hartzea zirkunstantzia hori. Horrez gain, datu hauek adierazi beharko dira:

a) Entitate eskatzailearen merkataritza taldea edo talde fiskala, eta balorazioak eragindako entitate ez-egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo kode baliokideak.

b) Enpresa jarduerаren deskribapena edo balorazio proposamenean jasotako transakzioena zein transakzio-segidena (egindakoena edo egingo direnena). Edozelan ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.

c) Balorazio proposamenean aipatzen diren transakzio edo eragiketengatik ukituta gerta daitezkeen estatuak.

d) Balorazio proposamenaren ebazpenagatik ukituta gerta daitezkeen beste estatu batzuetako egoiliarrak.

e) Elkarren laguntzari buruzko araudi aplikagarriaren arabera eskatu daitezkeen bestelako datuak.

**3.** Eskaera tramitera ez onartzea erabaki daiteke, modu arrazoituan beti, zirkunstantzia hauetako bat gertatzen denean:

a) Nabaria denean balorazio proposamenak ez daukala oinarririk merkatuko balio normala zehazteko.

b) Balorazio proposamena lehen ere onartu ez diren beste balorazio proposamen batzuen oso antzekoa denean.

c) Balorazio proposamenaren bitartez saihestuko litzatekeen zergapetze bikoitzaren arriskurik ez dagoela irizten zaionean.

d) Proposamenari ezezkoa emateko arrazoi izan daitekeen beste edozein zirkunstantzia gertatzen denean.

## 24. artikulua. Aurkeztutako dokumentazioaren araubidea.

**1.** Kapitulu honetan araututako prozedurari dagokionez bakarrik izango ditu ondorioak aurkeztutako dokumentazioak, eta prozedura horretarako baino ezingo da erabili.

**2.** Aurreko artikuluetan xedatutakoak ez du esan nahi zergadunek ez dituztenik bete behar martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 29. artikuluan edo bestelako xedapen batean ezarritakoaren arabera dituzten betebeharrak, horiek betetzeak erregelamendu honen 26. artikuluan aipatutako dokumentazioari eragiten diotenean.

---

[9] Apartatu hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

**3.** Proposamenean atzera egiten bada, edo hura iraungi edo ezesten bada, dokumentazioa interesdunari itzuliko zaio.

## 25. artikulua. Akordioa tramitatzea, amaitzea eta ondorioak izatea.

**1.** Zerga Administrazioak proposamena aztertuko du, aurkeztutako dokumentazioarekin batera.

**2.** Erregelamendu honen 44. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den epean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, ezetsitzat jo ahal izango da proposamena.

**3.** Edozein zergapekok proposamenean atzera egiteak prozedura amaitzea ekarriko du berekin.

**4.** Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak hauetako bat egin dezake:

a) Zergapekoak aurkeztutako balorazio proposamena onartu.

b) Hasiera batean aurkeztutakoa ez bezalako balorazio proposamen bat onartu, zergapekoarekin adostasunarekin.

c) Zergapekoak egindako balorazio proposamena ezetsi.

**5.** Aurretiazko balorazio akordioa agiri batean formalizatuko da, eta agiri horretan datu hauek jasoko dira gutxienez:

a) Non eta noiz formalizatu den.

b) Proposamenean aipatzen diren zergapekoen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Zergapekoek akordioaren edukiari emandako adostasuna.

d) Proposamenean aipatzen diren eragiketen deskripzioa.

e) Balorazio metodoaren funtsezko elementuak eta, egonez gero, metodo horretatik eratorritako balio tartea, bai eta hura aplikatzeko oinarrizkotzat jo behar diren zirkunstantzia ekonomikoak ere, bereziki kasu kritikoak.

f) Akordioa zein zergaldi edo zein likidazio-alditan aplikatuko den, eta noiz jarriko den indarrean.

**6.** Balorazio proposamena ezesten bada, zergapekoak identifikatzeaz gainera, Zerga Administrazioak proposamena ezesteko izan dituen arrazoiak jasoko dira ebazpenean.

**7.** Onartutako proposamenetik eratortzen dena aplikatu behar dute Zerga Administrazioak eta zergapekoek.

**8.** Zerga Administrazioak egiaztatu dezake onartutako proposamenean jasotako gertakari eta eragiketak bat datozela benetan izandakoekin eta onartutako proposamena behar bezala aplikatu dela.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen bada onartutako proposamenean jasotako gertakari eta eragiketak ez datozela bat benetan izandakoarekin edo onartutako proposamena ez dela behar bezala aplikatu, Zerga Administrazioak zergapekoen zerga egoera erregularizatuko du.

**9.** Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena edo proposamena ezesten duen presuntziozko egintza ezin dira errekurritu, baina horrek ez du eragozten eman daitezkeen likidazio egintzen aurka bidezko errekurtsoak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izatea.

**10.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak izango du eskumena prozedura hasi, bideratu eta ebazteko.

### 26. artikulua. Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak baloratzeko akordioa aplikatzeari buruzko informazioa.

Zerga honen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioekin batera, zergapekoek idatzi bat aurkeztu behar dute onartutako aurretiazko balorazio akordioaren aplikazioari buruz, eta bertan honako informazio hau jaso, besteak beste:

a) Autolikidazioan jasotako zergaldian edo likidazio-aldian egin direnetatik, zein eragiketari aplikatu zaien aurretiazko akordioa.

b) Aurretiazko akordioa aplikatzearen ondorioz aurreko eragiketak egiteko ezarri diren prezio edo balioak.

c) Zer aldaketa garrantzitsu izan diren, izan badira, aurretiazko akordioan aipatutako balorazio metodoa aplikatzeko oinarrizkotzat jo behar diren zirkunstantzia ekonomikoetan.

d) Zer eragiketak egin diren zergaldian edo likidazio-aldian, aurretiazko akordioan aipatutakoen antzekoak, zein preziotan egin diren, eta zer desberdintasun ageri diren horien eta aurretiazko akordioaren esparruan sartzen diren eragiketen artean.

Dena den, beste administrazio batzuekin sinatzen diren akordioetan, zergapekoak urtero aurkeztu beharreko dokumentazioa akordiotik beretik eratorritakoa izango da.

### 27. artikulua. Aurretiazko balorazio akordioa aldatzea.

**1.** Aurretiazko balorazio akordioa onartzean aintzat hartutako zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatzen badira, akordioa aldatu ahal izango da zirkunstantzia ekonomiko berrietara egokitzeko. Akordioa aldatzeko prozedura ofizioz zein zergapekoek eskatuta abiatu daiteke, betiere erregelamendu honen 44. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraituz, eta artikulu honetan jasotzen diren berezitasunekin.

**2.** Aldaketa eskatzen duten pertsona edo entitateek sinatu behar dute akordioa aldatzeko eskaera. Horiek, gainera, Zerga Administrazioari frogatu behar diote baloratzeko eskatzen diren eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitateek badutela aldatzeko eskaeraren berri eta hura onartzen dutela. Eskaerak informazio hau jaso behar du:

a) Zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatu izanaren justifikazioa.

b) Zirkunstantzia horiek aldatzearen ondorioz egin beharreko aldaketa.

Eragindako edozein pertsona edo entitatek eskaeran atzera eginez gero, akordioa aldatzeko prozedura amaituko da.

**3.** Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta zergapekoei entzunaldia eman ondoren –hamabost eguneko epea izango dute horretarako–, Zerga Administrazioak ebazpen arrazoitua emango du, eta ebazpen horretan honako hau egin dezake:

a) Zergapekoek eskatutako aldaketa onartu.

b) Hasieran aurkeztutakoa ez bezalako balorazio proposamen bat onartu, zergapekoarekin adostasunarekin.

c) Zergapekoek proposatutako aldaketa ezetsi, eta hasiera batean onartutako aurretiazko balorazio akordioa berretsi edo indargabetu.

**4.** Akordioa aldatzeko prozedura Zerga Administrazioak abiatzen duenean, proposamenaren edukiaren berri emango zaie zergapekoei, eta horiek hilabeteko epea izango dute, proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, ondoko hau egiteko:

a) Aldaketa onartzeko.

b) Beste aldaketa bat proposatzeko, behar bezala justifikatuta.

c) Aldaketa errefusatzeko, zergatiak adierazita.

**5.** Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Zerga Administrazioak ebazpen arrazoitua emango du, eta ebazpen horretan honako hau egin dezake:

a) Aldaketa onartu, zergapekoek ontzat eman badute.

b) Zergapekoek proposatutako aldaketa onartu.

c) Hasierako balorazio proposamena onartzeko erabakia indarrik gabe utzi.

d) Hasierako balorazio proposamena aplikatzen jarraituko dela adierazi.

**6.** Beste Zerga Administrazio batekin akordioren bat sinatu bada, aurretiazko balorazio akordioa aldatzeko lehendabizi beharrezkoa izango da administrazio horrekin hartutako akordioa aldatzea. Horretarako, erregelamendu honen 29. artikuluan eta haren hurrengoetan jasotako prozedurari jarraituko zaio.

**7.** Erregelamendu honen 44. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den epean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, aldatzeko proposamena ezetsitzat jo ahal izango da.

**8.** Akordioa aldatzeko prozedurari amaiera ematen dion ebazpena edo proposamena ezesten duen presuntziozko egintza ezin dira errekurritu, baina horrek ez du eragozten eman litezkeen likidazio egintzen aurka bidezko errekurtsoak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izatea.

**9.** Aldaketa onartzeak erregelamendu honen 25. artikuluan jasotako ondorioak izango ditu, aldaketa eskatu ondoren edo, hala badagokio, aldatzeko proposamena komunikatu ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.

**10.** Hasierako aurretiazko balorazio akordioa indargabetzeak berekin ekarriko du erregelamendu honen 25. artikuluan jasotako ondorioak desagertzea aldaketa eskatu ondoren edo, hala badagokio, aldatzeko proposamena komunikatu ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.

**11.** Zergapekoek eskatutako aldaketa ezesteak berekin ekarriko du:

a) Erregelamendu honen 25. artikuluan aurreikusitako ondorioak berrestea, zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatu direla frogatzen ez denean.

b) Erregelamendu honen 25. artikuluan aurreikusitako ondorioak desagertzea, aldaketa ezetsi ondoren egiten diren eragiketei dagokienez, gainerako kasuetan.

## 28. artikulua. Aurretiazko balorazio akordioa luzatzea.

**1.** Zergapekoek lehendik onartu den akordio baten balio-epea luzatzeko eska diezaiokete Zerga Administrazioari, erregelamendu honen 44. artikuluan ezartzen den prozedura orokorrari jarraituz, eta artikulu honetan jasotzen diren berezitasunekin. Eskaera hori balio epea amaitu baino sei hilabete lehenago aurkeztu behar da, eta eskaerari bidezko frogagiriak erantsi behar zaizkio hasierako eskaeran azaldutako zirkunstantziak ez direla aldatu justifikatzeko.

**2.** Aurretiazko balorazio akordioa luzatzeko eskaera akordioa sinatu zuten pertsona edo entitateek sinatu behar dute. Horrez gainera, horiek Zerga Administrazioari frogatu behar diote eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitate lotuek badutela luzapen eskaeraren berri eta hura onartzen dutela.

**3.** Erregelamendu honen 44. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den epean ez bada jakinarazten aurretiazko balorazio akordioaren balio epea luzatu izana, eskaera ezetsitzat jo ahal izango da.

**4.** Akordioaren luzapena erabakitzen duen ebazpena edo hura ezesten duen presuntziozko egintza ezin dira errekurritu, baina horrek ez du eragozten eman litezkeen likidazio egintzen aurka bidezko errekurtsoak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izatea.

## *Bigarren azpisekzioa. Beste administrazio batzuekin eragiketa lotuei buruzko akordioak lortzeko prozedura*

### 29. artikulua. Arau aplikagarriak.

**1.** Beste zerga administrazio batzuekin akordioak lortzeko prozeduran sekzio honetan ezarritako arauak aplikatuko dira, azpisekzio honetan jasotzen diren berezitasunekin.

**2.** Beste zerga administrazio batek Zerga Administrazioari eskatzen badio pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketen balorazio akordio bat sinatzeko prozedura bat has dezala, sekzio honetan ezarritako arauei jarraitu zaie, aplikagarriak diren neurrian.

### 30. artikulua. Prozedura hastea.

**1.** Zergapekoek eskatzen badute aurkeztutako proposamena pertsona edo entitate lotuek egoitza duten herrialde edo lurraldeko beste zerga administrazio bati ere aurkezteko, Zerga Administrazioak baloratuko du egokia den prozedura hori hastea edo ez. Prozedura ez hastea erabakiz gero, arrazoiak eman beharko dira, eta ezingo da ezespenaren aurka egin.

**2.** Aurretiazko balorazio prozedura baten barruan, Zerga Administrazioak egoki irizten badu gaia eraginda gerta daitezkeen beste herri administrazio batzuei ere aurkeztea haiek azter dezaten, pertsona edo entitate lotuei emango die horren berri. Zergapekoa ados agertzea ezinbesteko baldintza izango da gaia beste zerga administrazioari jakinarazteko.

**3.** Prozedura hasteko eskaerarekin batera, erregelamendu honen 23. artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu behar du zergapekoak.

### 31. artikulua. Tramitatzea eta ebaztea.

**1.** Beste zerga administrazioekiko harremanetan, pertsona edo entitate lotuek balorazio proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak aurkeztu behar dituzte.

Bi zerga administrazioen ordezkariek hala adostuz gero, zergapekoek parte hartu dezakete akordioa zehazteko jarduketetan.

**2.** Zerga administrazioen akordio proposamena interesdunei jakinarazi behar zaie, eta ezinbestekoa izango da interesdunek proposamena onartzea administrazioek akordioa sinatu dezaten.

Akordio proposamenaren aurka egiteak balorazio proposamena ezestea ekarriko du.

**3.** Akordio proposamena onartuz gero, organo eskudunak akordioa sinatuko du beste zerga administrazioekin, eta haren kopia helaraziko zaie interesdunei.

**4.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiari dagokio prozedura hasi, informatu eta bideratzea, artikulu honetan aipatzen diren administrazioekin bidezko harremanak ezartzea, eta ebazpen proposamena prestatzea.

Ogasuneko zuzendari nagusiak ebatziko du prozedura, eta berak izenpetuko du beste zerga administrazioarekiko akordioa.

### *Hirugarren azpisekzioa. Azpikapitalizazio koefizienteari buruzko aurretiazko akordioen berezitasunak*

### 32. artikulua. Beste azpikapitalizazio koefiziente bat zehazteko prozeduraren aplikazioa.

**1.** Zergaren foru arauak 47. artikuluaren 4. apartatuan aipatzen dituen kasuetan, beste azpikapitalizazio koefiziente bat zehazteko prozeduran aplikatuko dira erregelamendu honetako 22 - 28 bitarteko artikuluetan ezarritako arauak, artikulu honetan jasotzen diren berezitasunekin.

**2.** Zergapekoek Zerga Administrazioari proposa diezaiokete zergaren foru arauaren 47.1 artikuluan ezarrita dagoen koefizientearen ordez beste bat aplika dadila, artikulu bereko 4. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz. Proposamenarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Entitatearen urteko kontuak.

b) Zergapekoaren ustez, zenbateko zorpetzea lortuko zuen, ondare garbiaren ikuspegi fiskaletik, lotu gabeko pertsona edo entitateetatik, merkatuko baldintza normaletan, eta horren justifikazioa.

c) Zein sozietate taldetako kide den entitatea.

d) Entitateak zein entitate lotuekin hartu duen edo hartuko duen zorra.

e) Proposatzen den zorpetze koefizientea eta haren justifikazioa, haren aplikaziorako oinarrizkotzat jo behar diren zirkunstantzia ekonomikoak adierazita.

## III. BIS KAPITULUA: Emaitzaren aplikazioaren arloko zuzenketak[10]

### 32. bis artikulua. Erreserba berezia ekintzailetza sustatzeko eta jarduera produktiboa sendotzeko: proiektu enpresarial garrantzitsuak ezartzen dituzten entitateetako partaidetzen eskurapena. [11]

---

[10] Kapitulu hau, ekainaren 27ko 14/2017 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren bat apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua eta, aurretiazko tributazio proposamen bereziei dagokienez, 2006ko abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2017-06-29ko GAO).. Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatuko da.

[11] Artikulu hau, ekainaren 27ko 14/2017 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren bat apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua eta, aurretiazko tributazio proposamen bereziei dagokienez, 2006ko abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

**1.** Zergaren foru arauaren 53.2 artikuluaren c) letran jasotakoaren ondorioetarako, garrantzitsutzat hartzen dira baldintza hauetako edozein betetzen duten proiektu enpresarialak:

a) Jarduera, produktu edo merkatu berrien garapena ekartzea. Jarduera, produktu edo merkatu berritzat hartuko dira erreserba gauzatu aurreko hiru urteetan kenkaria aplikatzen duen entitateak edo horri edo entitate partaidetuari lotutako pertsona edo entitateek garatuak ez direnak, zergaren foru arauak 42. artikuluaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera. Horretarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

a’) Jarduera ekonomiko berria: jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifen barruan talde desberdin batean sailkatua.

b’) Produktu berriak: entitate partaidetuak aurretik garatutako produktuetatik funtsean desberdinak diren ezaugarri edo aplikazioak dituztenak.

c’) Merkatu berriak: entitate partaidetua kokatuta ez dagoen merkatua. Dena den, ez dira joko merkatu berritzat paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean sortzen diren merkatu berriak.

Jarduera, produktu edo merkatu berriak erreserba gauzatu ondoko bigarren zergaldia amaitu aurretik garatu behar dira.

b) Lehendik dauden jarduera, produktu edo merkatuak zabaldu edo finkatzea. Proiektu enpresarialek lehendik dauden jarduera, produktu edo merkatuak zabaldu edo finkatzen dituztela ulertuko da salmenten, diru sarreren edo mozkinen hazkundea edo jardueratik eratorritako galeren murriztapena 100eko 10ekoa denean. Portzentaje hori zehazteko, konparatu egingo dira erreserba gauzatu aurreko ondoko bigarren zergaldian aldagai horiek izandako emaitza eta erreserba gauzatu aurreko ondoko hiru zergaldietan aldagai horiei dagokien emaitzaren batez bestekoa.

c) Enplegu egonkorrak sortzea. Enplegu egonkorra sortzen dela joko da zergaren foru arauko 66. artikuluan jasotako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen plantillak gutxienez 100eko 5eko hazkundea duenean. Hazkunde horrek gertatu behar du erreserba gauzatu den zergaldia bukatu ondorengo bigarren zergaldia amaitu baino lehen.

**2.** Zergaren foru arauaren 53.2 artikuluaren c) letran jasotakoaren ondorioetarako, proiektu enpresarial garrantzitsuak entitate partaidetuaren ondare garbiaren funtsezko hazkundea dakarrela ulertuko da haren ondare garbiaren hazkundea, urteko kontu ikuskatuetan islatua, gutxienez 100eko 5ekoa denean eta erreserba gauzatu ondorengo bi zergaldietan mantentzen denean. Horretarako, erreserba gauzatzetik eratorritako ondare garbiaren hazkundea hartuko da kontuan.

**3.** Zergaren foru arauaren 53.2 artikuluaren c) letran jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da entitate partaidetuak kapitala eskuratzeko zailtasuna duela:

a) Magnitudeari dagokionez, entitate partaidetua mikroenpresa, enpresa txikia edo ertaina denean erreserba gauzatzen den momentuan.

---

argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2017-06-29ko GAO).. Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatuko da.

b)[12] Berrikuntzari dagokionez, entitate partaidetua berria edo sortu berria denean. Beharkizun hau betetzen dela ulertuko da entitatea eratu denetik zazpi urte baino gutxiago igaro direnean.

c) Egitekoak diren inbertsioen arriskuari dagokionez, zergaren foru arauaren 62.etik 64.era bitarteko artikuluetan jasotako kenkarietarako eskubidea ematen duten ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko jarduerak egiten dituenean. Beharkizun hau erreserba gauzatzen denean edo ondorengo bi zergaldietan bete ahal izango da.

## IV. KAPITULUA. Sarrerak eta gastuak denboran egoztea. Sortzapenaz besteko irizpideak onartzea

### 33. artikulua. Sortzapenaz besteko egozpen irizpideak onartzea.

**1.** Entitateek kontabilitatean sarrerak eta gastuak denboraren arabera egozteko erabiltzen duten irizpidea ez bada sortzapen-irizpidea, beste bat baizik, irizpide horrek zerga eraginkortasuna izatea eskatu dezakete. Eskaera Zerga Administrazioari egingo zaio, eta haren aurrean izapidetuko da, erregelamendu honetako 44. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraituz, eta artikulu honetako hurrengo apartatuetan jasotzen diren berezitasunekin.

**2.** Eskaerak datu hauek jaso behar ditu:

a) Zer sarrera eta gastu egozten diren denboraren araberako irizpideari jarraituta, haien izaera zein den, eta zergadunaren eragiketa multzoan nolako garrantzia duten.

b) Zein egozpen irizpidetarako eskatzen zerga eraginkortasuna. Denboraren araberako irizpidea nahitaez bete beharrekoa bada, betebeharra ezartzen duen kontabilitate araua zehaztu beharko da.

c) Justifikatu behar da denboraren arabera egozpena egiteko proposatutako irizpidea egokia dela urteko kontuen irudi fidela emateko, eta azaldu behar da nola eragiten duen zergadunaren ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan.

**3.** Eskaera aurkeztu behar da ondorioak sortu behar dituen lehen zergaldia amaitu baino gutxienez sei hilabete lehenago.

**4.** Zergaren foru arauak 54. artikuluaren 2. apartatuko bigarren paragrafoan jasotzen dituen kasuetan, 1. apartatuan aipatzen den eskaerak datu hauek jaso behar ditu:

a) Denboraren araberako egozpen irizpideak zer sarrerari eta zer gasturi eragiten dieten.

b) Memoria bat, non azaldu behar den zer berezitasun dituen eskaera egin duen entitateak, eskatutako irizpidearen aplikazioa justifikatzeko.

c) Justifikatu behar da eskatutako egozpen irizpidea ongi egokitzen dela aurreko letran aipatutako berezitasunetara.

d) Justifikatu behar da erabilitako irizpideak ez duela ezertan aldatuko entitatearen sarrera edo gastuen zerga kalifikazioa.

---

[12] Letra hau, irailaren 29ko 11/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluak aldatu du. Aipatu foru dekretuak, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2021-10-04ko GAO).

# III. TITULUA
# ZERGA ZORRA

## I. KAPITULUA. Kuota osoa eta gutxieneko tributazioa.[13]

### 33 bis artikulua. Kuota osoa eta gutxieneko tributazioa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 59. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da egiten diren inbertsioek foru arau horren 61. artikulutik 65. artikulura bitartean ezarritako kenkariak aplikatzeko eskubidea eman dezaketela artikulu horietan jasotzen diren inbertsioetako edozein egiten denean; horretarako, ez da beharrezkoa izango frogatzea adierazitako kenkariak aplikatzeko baldintzak betetzen direnik.

## II. KAPITULUA. Beste kenkari batzuk.[14]

### 34. artikulua. Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueren kenkariak aplikatzeko txosten arrazoitua.

**1.**[15] Gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako edo Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentua edo haiei atxikitako organismo edo entitatea izango dira zergaren foru arauaren 64.3 artikuluan aipatzen diren txosten arrazoituak egiteko organo eskudunak.

**2.** Arrazoitutako txostena –aurrerantzean «zerga ondorioetarako kalifikazio txostena»– egiteko eskaerak urtero aurkeztu behar dira, abenduaren 31 baino lehen beti, organo eskudunari zuzenduta. Eskatzailea nor den eta zertan diharduen adierazteaz gainera, eskaerari proiektuari buruzko memoria bat erantsi behar zaio.

Memorian eskatzaileak eta berak azpikontratatzen dituen pertsonek edo erakundeek egingo dituzten jarduerak zehaztu behar dira, bai eta proiektutik ondorioztatzen diren gastuen eta inbertsioen zenbatekoak ere, urteka banatuta.

**3.** Proiektuak beste entitate batzuekin lankidetzan egiten badira, proiektu bakoitzeko eskaera bakar bat aurkeztu behar da urtero, entitate guztiek sinatuta, eta partaideetako bat izendatu behar da solaskidea izateko, harremanetan aritzeko eta jakinarazpenak jasotzeko. Parte hartzen duen entitate bakoitzak zer jarduera egin dituen eta zenbateko aurrekontua izango duen zehaztu behar da proiektuaren memorian.

Proiektuan parte hartzen duten entitateei txosten bana emango zaie.

---

[13] Kapitulu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren bigarren ordinalak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2025-12-15ko GAO) eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu.

[14] Kapitulu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren bigarren ordinalak gehitu du, eta momentu horretara arte III tituluak zuen edukia jasotzen du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2025-12-15ko GAO) eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu.

[15] Apartatu hau, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 7. Artikuluaren bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2023-12-18ko GAO).

**4.**[16] Nolanahi ere, organo eskudunak egoki irizten duen dokumentazio eta informazioa eskatu diezaieke entitate eskatzaileei, aurkeztu duten eskaera egoki ulertu, izapidetu eta ebaluatzeko.

**5**[17]**.** Organo eskudunak ematen dituen txosten arrazoituetan behar bezala bereizita identifikatu behar dira zergaren foru arauak 62. eta 63. artikuluetan jasotako kontzeptuen arabera garatuko diren jarduerak, betiere horietako bakoitzari lotutako gastu eta inbertsioak egotzita.

## 35. artikulua. Txostenaren ondorioak eta Zerga Administrazioaren ahalmenak.

**1.** Aurreko artikuluan aipatutako organo eskudunak egin dituen txosten arrazoituek Zerga Administrazioa lotuko dute, jardueraren izaerari dagokionez nahiz hura ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologiko gisa kalifikatzeari dagokionez.

**2.** Zerga Administrazioak egiaztatu behar du inbertsioak eta gastuak benetan egin izana eta egindako jarduerak txostenean jasotakoei egokitu izana; horretarako, beharrezko deritzon justifikazioa eskatu dezake edonoiz.

**3.** Zerga Administrazioak eskatuta aurreko artikuluan aipatutako txosten arrazoitua aurkezten duen zergadunak aplikatu behar ditu zergaren foru arauak 62. eta 63. artikuluetan jasotako kenkariak.

Era berean, Zerga Administrazioak erregelamendu honek 34. artikuluaren 1. apartatuan aipatutako organoari eskatu diezaioke txosten osagarri bat egin dezala, zergadunek ikerketaren, garapenaren edo berrikuntza teknologikoaren alorrean egiten dituzten jardueren izaerari eta kalifikazioari buruzko informazioa gehitzeko.

**4.** Hala badagokio, Zerga Administrazioak txosten bat eskatu ahal izango dio, alorrean eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamenduari, kenkarirako eskubidea akreditatzen duten jardueren izaerari eta kalifikazioari buruz.

## 35 bis artikulua. Negozio prozesuak berrikuntza teknologikoaren esparruan. [18]

Zergaren foru arauaren 63. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, negozio prozesutzat hartuko dira honako jarduera hauek:

a) Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena: baliabideak edo lehengaiak azken produktu bihurtzea helburu duten jarduerak dira, izan ondasunak izan zerbitzuak. Jarduera bat ondasunen eta zerbitzuen ekoizpentzat jotzeko, jarduera horrek lotura bat izan behar du enpresaren negozio nagusiarekin.

---

[16] Apartatu honi zenbaki berria eman zaio, uztailaren 24ko 22/2018 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bat apartatuaren bidez. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/07/27 GAO), eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

[17] Apartatu honi zenbaki berria eman zaio, uztailaren 24ko 22/2018 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bat apartatuaren bidez. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/07/27 GAO), eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

[18] Artikulu hau, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 7. Artikuluaren bi apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2023-12-18ko GAO).

Letra honetan sartuko dira jarduera hauek:

— Ingeniaritza jarduerak.

— Produktuen muntaketa.

— Ekoizpenaren kudeaketa.

— Zerbitzu prestazioaren kudeaketa.

— Kalitate kontrolen ezarpena.

— Ekoizpenean laguntzen duten proba teknikoak, analisiak eta ziurtagiriak.

— Osagaien fabrikazioa.

b) Administrazioa eta kudeaketa: beharrezko jarduera operatiboak dira, azken produktuarekin edo zerbitzuarekin zuzenean lotuta ez daudenak, baina enpresaren jarduera nagusiari laguntzen diotenak baliabide eta prozesu finantzario eta administratiboak kudeatuz, kontrolatuz eta optimizatuz.

Letra honetan sartuko dira jarduera hauek:

— Enpresaren eta estrategiaren kudeaketa eta antolaketa.

— Gobernantza korporatiboa (legeria, plangintza eta harreman publikoak).

— Kontabilitatea, liburuak, auditoretza, ordainketak, eta finantzen edo aseguruen inguruko beste jarduera batzuk.

— Pertsonen kudeaketa (prestakuntza eta heziketa, langileen kontratazioa, lantokiaren antolaketa, aldi baterako langileen hornidura, nominen kudeaketa, osasun laguntza eta arreta medikoa).

— Ondasunen eta laguntza zerbitzuen erosketen kudeaketa.

— Kanpo harremanen kudeaketa: hornitzaileak edo aliantzak bereziki.

c) Banaketa eta logistika: hornigaiak eta produktuak erosi eta biltegiratzea, eta produktu bukatuak bezeroenganaino garraiatzea xede duten jarduerak dira.

Letra honetan sartuko dira jarduera hauek:

— Eskariaren inbentarioa eta plangintza.

— Lehengaien eta produktuen erosketen kudeaketa.

— Biltegiaren kudeaketa.

— Eskarien prozesaketa.

— Produktuen enbalajea.

— Artikuluen garraioa eta entrega.

d) Marketina eta salmentak: kontsumitzailearen beharrak eta jokabideak aztertzea eta merkatuaren eskaria asetuko duen produktua edo zerbitzua sustatu, ezagutarazi eta saltzea xede duten jarduerak dira.

Letra honetan sartuko dira jarduera hauek:

— Merkatuaren ikerketa.

— Publizitatea eta komunikazioa.

— Merkatu berriak garatzeko jarduerak.

— Prezioak finkatzeko estrategiak eta metodoak.

— Salmenta kanalen estrategia eta kudeaketa.

— Salmentako eta salmenta ondoko jarduerak, bezeroaren arretarako zerbitzuak barne.

e) Informazio eta komunikazio sistemak: enpresaren gainerako negozio prozesuen kudeaketa operatiboari laguntzeko beharrezkoa den hardwarea eta softwarea kudeatzea, garatzea eta mantentzea xede duten jarduerak dira.

Letra honetan sartuko dira jarduera hauek:

— Beharren eta zehaztapen funtzionalen identifikazioa.

— Hornikuntza (CPUak, RAM, txartel grafikoa, lizentziak edo antzekoak).

— Diseinua, garapena, mantenimendua eta eguneratzea.

f) Produktuaren eta negozio prozesuen garapena: ondasun edo zerbitzu bat edo enpresaren negozio prozesuetako bat (ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, administrazioa eta kudeaketa, banaketa eta logistika, marketina eta salmentak, eta informazio eta komunikazio sistemak) diseinatzearekin eta birdiseinatzearekin zer ikusia duten jarduerak dira.

Letra honetan sartuko dira jarduera hauek:

— Produktuaren edo zerbitzuaren kontzeptua eta ideia sortzea.

— Bideragarritasun teknikoari eta ekonomikoari buruzko azterketak (negozio planak egitea).

— I+G jardueren kudeaketa.

— Diseinua eta garapena.

— Prototipoa sortzea, testatzea eta baliozkotzea.

— Negozio prozesuaren ezarpena.

— Produktua merkaturatzea (ondasunen industrializazioa barne).

### 35 ter artikulua. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzea.[19]

**1.** Ulertuko da zergadun batek beste zergadun baten ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektu baten finantzaketan parte hartzen duela zergaren foru arauaren 64 bis artikuluan xedatutakoarekin bat, diru-kopuruak jartzen dituenean proiektuaren kostuak osorik edo partez ordaintzeko, proiektua egiten duenaren aldetik kopuru horiek zertan itzuli gabe.

**2.** Itzuli behar ez diren ekarpen horiek, aurreko apartatuan aipatuak, gastuak eta inbertsioak egin aurretik edo egin ondoren egin ahal izango dira, baina inoiz ez proiektua amaitzen den zergaldia bukatu eta gero.

**3.** Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren kostuak zergaren foru arauaren 64 bis artikuluaren arabera finantzatzen badira, ekarpena jasotzen den zergaldian gertatu behar dira.

**4.** Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak eta haren finantzaketan parte hartzen duenak finantzaketa kontratu

[19] Artikulu hau abenduaren 23ko 27/2025 FORU DEKRETUAren 2. artikuluaren lehenengo ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2025-12-30ko GAO), eta 2025eko urtarrilaren 1 etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak. Hala ere, azken xedapenetako bigarrenaren bigarren gidoian aurreikusitakoaren arabera, artikulu honen 5. apartatuko c) letran aurreikusitakoa aplikagarria izango da, lehenengo aldiz, 2026ko ekitaldiari buruzko komunikazioei dagokienez.

bat sinatu beharko dute, zergaren foru arauaren 64 bis artikuluko 3. apartatuan jasotako edukiarekin.

**5.** Zergaren foru arauaren 64 bis artikuluko 7. apartatuaren arabera Zerga Administrazioari egin behar zaion komunikazioa proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aurkeztuko du, finantzaketa kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan beranduenik.

Aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, eta, gutxienez, informazio hau jaso beharko du:

a) Aurreko 4. apartatuan aipatutako finantzaketa kontratua.

b) Zergaren foru arauaren 64 bis artikuluaren 2. apartatuko d) letran aipatzen den txosten arrazoitua, edo, halakorik oraindik egin ez bada, hura eskatu izanaren frogagiria.

c) Finantzaketa kontratuaren egituraketan esku hartzen duen bitartekariarekin sinatutako kontratuaren kopia, hala badagokio.

**6.** Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen duten zergadunek frogatzen duten kenkaria ezingo da izan ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko jarduerak egin dituzten zergadunek frogatuko zutena baino handiagoa.

Zergaren foru arauaren 64 bis artikuluko 4. apartatuan ezarrita dagoen 1,20ko muga zergaldi bakoitzean aplikatuko da, baita modu globalean ere proiektuak irauten duen zergaldi guztietarako ere.

Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuak egin dituzten zergadunek ez badute aplikatzen aurreko mugatik ondorioztatzen den soberakina, 64 bis artikuluko zergadunek izango dute hura hurrengo zergaldietan aplikatzea, betiere behar besteko diru ekarpena egiten badute.

### 36. artikulua. Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzea helburu duten proiektuetan egiten diren inbertsio eta gastuen kenkaria.[20]

---

[20] Artikulu hau abenduaren 23ko 27/2025 FORU DEKRETUAren 2. artikuluaren bigarren ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2025-12-30ko GAO), eta 2025eko urtarrilaren 1 etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

Gainera, foru dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak honela dio:

*Hirugarren xedapen gehigarria. Fiskalitate berdeari dagokionez foru dekretu honetan aurreikusitako neurri jakin batzuen berrikuspena eta indarraldia.*
*Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako berrikuspen prozesua amaitzen ez den bitartean, eta bidezkoak diren emaitzak ondorioztatu arte, foru dekretu honen 1. artikuluko laugarren ordinalean eta 2. artikuluko bigarren ordinalean onetsitako xedapenek indarrean jarraituko dute haien epemugaren unean aurreikusitako baldintzetan.*

Eta xedapen iragankor bakarrak honela dio:

*Xedapen iragankor bakarra. Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatze aldera 2025ean hasitako proiektuekin lotutako inbertsio eta gastuen kenkaria eskatzeko araubide iragankorra.*
*Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuei 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehen zergaldian ekin bazaie, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 36. artikuluaren 6. apartatuan aipatzen den eskaera 2026ko martxoaren 31ra arte egin ahal izango da.*

**1.** Zergaren foru arauaren 65. artikuluan aipatzen diren kenkariak aplikatzeko, definizio hauek erabiliko dira:

a) Iturri berriztagarrien energia: baliabide energetiko ez-fosiletatik lortutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko (EB) 2018/2001 Zuzentarauak, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoak, 2.1) artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Erregai berriztagarriak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauak, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoak, definitutako iturri berriztagarrietatik datorren eduki energetikoa dutenak. Jatorri ez biologikokoak eta jatorri biologikokoak barnean hartzen ditu (bioerregaiak, biolikidoak, biogasa eta biomasa erregaiak). Bioerregaiek, biolikidoek, biogasek eta biomasa erregaiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauan ezarritako jasangarritasun irizpideak eta emisioak murrizteko irizpideak bete beharko dituzte. Zuzentarau hori iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa da.

c) 65. artikuluko 1. apartatuaren a), b) eta c) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, hidrogeno berdetzat hartuko dira bai hidrogeno berriztagarria bai hidrogeno hipokarbonikoa, eta erregai hipokarbonikoak barnean hartuta daudela ulertuko da. Energia iturri horiei honako definizio hauek aplikatuko zaizkie:

- Hidrogeno berriztagarria: biomasaz bestelako iturri berriztagarrietatik datorren energiaren bidez ekoiztutako gas berriztagarria, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko ekainaren 13ko (EB) 2024/1788 Zuzentarauan jasotzen den moduan. Zuzentarau hori gas berriztagarriaren, gas naturalaren eta hidrogenoaren barne merkatuetarako arau komunei buruzkoa da, eta (EB) 2023/1791 Zuzentaraua aldatu eta 2009/73/EE Zuzentaraua indargabetzen du.

- Hidrogeno hipokarbonikoa: gas hipokarbonikoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko ekainaren 13ko (EB) 2024/1788 Zuzentarauaren 2.11) artikuluan definitzen den bezala. Zuzentarau hori gas berriztagarriaren, gas naturalaren eta hidrogenoaren barne merkatuetarako arau komunei buruzkoa da, eta (EB) 2023/1791 Zuzentaraua aldatu eta 2009/73/EE Zuzentaraua indargabetzen du.

- Erregai hipokarbonikoak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko ekainaren 13ko 2024/1788 (EB) Zuzentarauaren 2.13) artikuluan jasotakoak. Zuzentarau hori gas berriztagarriaren, gas naturalaren eta hidrogenoaren barne merkatuetarako arau komunei buruzkoa da, eta (EB) 2023/1791 Zuzentaraua aldatzen du eta 2009/73/EE Zuzentaraua indargabetzen du.

d) Energia sortzeko instalazioa: banatu eta/edo kontsumitzekoa den energia ekoiztuko duen unitate benetan operatibo bat konfiguratzeko beharrezkoak diren elementuen multzoa, besteak beste, kasu hauek barne hartzen dituena:

d.1. Energia sensu stricto sortzeko ekipamendua, hala nola plakak, biomasako galdara edo antzeko osagaiak.

d.2. Barne eroanbideak, kontsumorako jartzen diren punturaino.

d.3. Ekipo inbertsoreak eta egokigailuak.

d.4. Sorkuntzarako beharrezkoa den elementu oro, instalazioaren parte dena, elementuak bereizita eta modu isolatuan eskuratzeko inbertsioa kontuan hartu gabe.

d.5.Energia biltegiratzeko eta/edo berreskuratzeko ekipoak.

e) Energetikoki efizienteak diren ekipamenduak: arlo horretako Europako zein estatuko araudiak efizientziari buruz ezarritako gehieneko estandarrak betetzen dituzten ekipoak eta sistemak, edo etiketa energetikoa edo egiaztagiri baliokidea dutenak.

Zehazki, aurreko paragrafoan aipatzen den baldintza betetzat joko da baldin eta ekipoak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko uztailaren 4ko (EB) 2017/1369 Erregelamenduko 2.19 artikuluan aipatzen den A etiketa lortu badu. Erregelamendu horren bidez, energia etiketatzeko esparrua ezarri eta 2010/30/EB Zuzentaraua indargabetzen da.

f) Emisioak atzematea eta erabiltzea: berotegi efektuko gasak atzematen dituzten teknologia eta prozesuak, $CO_2$ bereziki, bai eta beste emisio mota batzuk ere, hala nola beroa, partikula esekiak edo konposatu kimikoak, besteak beste, dela modu seguruan biltegiratzeko edo industria prozesuetan erabiltzeko, dela produktuak edo energia modu jasangarrian sortzeko.

Aplikatzekoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentarauak hondakinei dagokienez 4.1 artikuluan aipatzen duen hierarkia errespetatu beharko da (2008/98/CE Zuzentaraua, hondakinei buruzkoa, zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituena).

**2.** Zergaren foru arauaren 65. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren kenkarien ondorioetarako, honako erregela hauek aplikatuko dira:

a) 65. artikuluaren 1. apartatuko a) letran xedatutakoaren ondorioetarako, sortutako iturri berriztagarrietako energia, hidrogeno berdea edo erregai berriztagarriak inbertitzailearen instalazioetan zuzenean kontsumitzeko edo, bestela, banaketa sareetara eramateko erabili beharko dira, Batzordeak 2025eko ekainaren 25ean emandako Komunikazioaren 5. Sekzioan aurreikusitako maximoa errespetatuz (Industria Garbiaren aldeko Ituna babesten duten estatu laguntzen inguruko neurriei aplikatu beharreko esparruari buruzko komunikazioa).

Elementu horiek banaketa sareetara eramaten diren kasuetan, jarduera ekonomikoa garatzen duen zergadunaren instalazioetan gauzatu behar dira inbertsioak, eta jarduera ekonomiko horrek nahitaez izan behar du iturri berriztagarrietako energia, hidrogeno berdea edo erregai berriztagarriak sortu eta merkaturatzea ez den beste jarduera bat. Zergadunaren jarduera ekonomikoa garatzen den lekutik hurbil dauden beste eremu batzuetan ere kokatu ahal izango dira inbertsioak, betiere hari zerbitzua ematen badiote autokontsumoaren, autokontsumo partekatuaren, komunitate energetikoaren, tokiko merkatuen edo antzekoen araubidean.

Zehazki, energia elektrikoa sortzeko instalazioak aurreko paragrafoaren azken tartekian xedatutakoa betetzen duela ulertuko da, baldin eta behar diren baldintzak betetzen badira instalazio horiek barne sareko hurbileko instalazio gisa edo sarearen bidezko instalazio hurbil gisa kalifikatzeko, kontuan hartuta «Kontsumo instalazioetatik hurbil eta haiei lotuta dagoen ekoizpen instalazioa» definizioa, zeina jasota baitago apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren g) letran; errege dekretu horren bidez, Energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dira.

b) 65. artikuluaren 1. zenbaki horretako b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, exijituko da iturri berriztagarrietatik, hidrogenotik (berriztagarria izan edo hipokarbonikoa izan) edo erregai berriztagarri edo hipokarbonikoetatik datorren instalazioaren eta ekipamenduaren kontsumoa 100eko 100ekoa izatea, funtzionatzen hasten den lehen zergaldian eta ondorengo lau zergaldietan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den energia berriztagarriaren kontsumo portzentajea lortzen dela frogatzeko, zergadunak jatorri bermeak aurkeztu ahal izango ditu, AIBk (Association of Issuing Bodies) kudeatzen duen EECS (European Energy Certificate System) sistemaren arabera jaulkiak eta ezeztatuak, kenkaria sortzen den zergaldiari eta hurrengo lau zergaldiei dagozkienak. Portzentaje hori frogatzeko, baliozkoa izango da, halaber, jatorri berriztagarriko elektrizitatea epekako tresnen kontratazioa erabiltzea, dela zuzenean dela zeharka, gutxienez bost urteko iraupenarekin.

Letra honetan xedatutakoa betetzen ez bada, zergadunak kenkaritik ondorioztatzen den kuota gehi berandutze interesak sartu beharko ditu epea amaitu den zergaldiari dagokion autolikidazioan.

Gainerako kasuetan, zergadunak behar bezala frogatu beharko du haren konplimendua, jatorria bermatzeko sistema indardunen arabera, ahal dela.

Letra honetatik kanpo geratuko dira garraiobideetan, altzarietan, ekipamendu informatikoan eta industriakoak ez diren beste erabilera batzuetarako makinerian egindako inbertsioak.

c) 65. artikuluko 1. apartatuaren c) letran xedatutakoaren ondorioetarako, kenkaria aplikatzen duen zergadunak frogatu beharko du aipatutako aktiboak letra horretan ezarritako helburuetarako soilik erabiltzen direla.

Aurreko c) letran aipatzen den kenkaria ez zaie aplikatuko sortutako energia apartatu honen a) letran aurreikusitako banaketa sareetara eramatea errazten duten instalazioetan egiten diren inbertsioei.

Letra honetatik kanpo geratzen dira garraiobideetan egindako inbertsioak.

d) 65. artikuluko 1. apartatuaren e) letran xedatutakoaren ondorioetarako, sortutako energia inbertitzailearen instalazioetan zuzenean kontsumitzeko erabili beharko da, edo, bestela, banaketa sareetara eramateko, apartatu honen a) letran xedatutako baldintzetan.

e) 65. artikuluko 1. apartatu horren f) letran xedatutakoaren ondorioetarako, Hondakinei buruzkoa den eta zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentarauaren 4.1 artikuluan aipatzen den hondakinen hierarkia errespetatu beharko da, eta, era berean, honako hau aplikatuko da:

a') Hondakinak murrizteko jardueratzat hartzen da substantzia, material edo produktu bat sortzeko, diseinatzeko, ekoizteko, banatzeko edo kontsumitzeko jarduera oro, honako hauek murrizteko dena:

1.a Hondakin kantitatea, baita produktuak berrerabiliz edo produktuen balio bizitza luzatuz ere.

2.a Sortutako hondakinek ingurumenean eta gizakien osasunean dituzten inpaktu kaltegarriak, materialen edo energiaren erabileran aurreztea barne.

3.a Materialetan eta produktuetan dauden substantzia arriskutsuen edukia.

Hondakinak murrizteko jarduera ekipoen edo instalazioen ordeztearen bidez artikulatzen bada, beharrezkoa izango da, ISO 14040/44 arauaren araberako bizi zikloaren analisia aplikatuta, ingurumen edo karbono aztarna gutxienez 100eko 40 murriztea, ordeztutako ekipo edo instalazioarekiko unitate funtzional operatiboan oinarrituta.

b') Hondakinak birziklatzeko jardueratzat hartuko da balorizazio jarduera oro, zeinaren bidez hondakinetako materialak berriro bihurtzen baitira produktu, material edo substantzia, dela jatorrizko helburuarekin dela beste edozein

helbururekin. Barruan sartzen da material organikoaren eraldaketa. Erregai gisa edo betelanetarako erabiliko diren materialak eraldatzea ez da letra honetan sartuko.

c') Balorizazio materialeko jardueratzat balorizazio eragiketa oro hartzen da, baldin eta haren xedea ez bada balorizazio energetikoa edo erregai gisa edo energia sortzeko bitarteko gisa erabiliko diren materialen eraldaketa. Halaber, ez dira balorizazio materialeko eragiketatzat hartuko betelanak eta apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzekoak, II. eranskinean jasotzen dituen eragiketak, honako kode hauek dituztenak: R0509, R1001, R1002, R1203 (salbu eta hondakin izateari utzi izanaren ziurtagiria lortzen badute), R1204, R1205, R1206, R1208, R1211, R1212, R1301, R1302, R0508.

Hondakinen balorizazio energetikoko jarduerak eta hondakinak ezabatzekoak ez dira sartuko, inola ere, aurreko a´), b´) eta c´) letretan.

65. artikuluaren 1. apartatuko f) letran aipatzen den kenkaria aplikatzeko, zergadunaren jarduerak nahitaez izan beharko du hondakinak kudeatzeko jarduera profesionalaz bestelakoa. Hondakinak kudeatzeko jarduera profesionala, bestalde, apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoak, 2. artikuluaren n) letran definiturik dagoen moduan ulertu behar da.

Ez da aplikatuko aurreko paragrafoan hondakinak birziklatzera eta balorizatzera bideratutako ekipamendu edo instalazioetan inbertitzeari buruz xedatutakoa, baldin eta ekipamendu edo instalazio horiek gutxienez 100eko 80ko berreskuratze materialaren errendimendua badute, ondoriozko produktuei dagokienez merkatuko aginduak betetzen badituzte, deskarbonizazio industrialari laguntzen badiote eta dagokion ingurumen baimena lortzen badute.

**3.** Zergaren foru arauaren 65. artikuluko 2. apartatuaren a) letran aipatzen den kenkaria aplikatzeko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Administrazio eskudunak baimendu beharko ditu proiektuak.

b) Kenkaria ezin izango du aplikatu lurzorua kutsatu edo eraldatu zuen zergadunak.

Apartatu honetan aipatzen den kenkariaren parte izango dira honako gastuak, besteak beste: lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehatuetatik eta lurzoruaren azken egoeraren ikerketetatik eratorritako gastuak, eta zergadunaren instalazioan bertan edo baimendutako kanpoko instalazio batean egindako tratamenduaren ondorio direnak, betiere deskontaminazioaren ondorioz hondakina balorizatzen bada.

**4.** Zergaren foru arauaren 65. artikuluko 2. apartatuaren b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, garapen jasangarriaren arloko proiektutzat hartuko dira ingurumen inpaktuaren murriztapenaren, trantsizio energetikoaren eta ekonomia zirkularraren eremuaren barruan, erregela hauek betetzen dituztenak:

a) 65.2.b artikulu horretako a`) letran xedatutakoaren ondorioetarako, balorizazio materialaren xede izan ezin daitezkeen hondakinen balorizazio energetikotzat joko da bihurketa termiko kontrolatuko prozesuen bidez energia iturri gisa hondakin ez birziklagarriak erabiltzea, betiere aplikatu beharreko araudian ezarritako efizientzia eta emisio estandarrak betetzen badira.

Ondorio horietarako, sortutako iturri berriztagarrietako energia, hidrogeno berdea edo erregai berriztagarriak, norberaren edo instalazioetan zuzenean kontsumitzeko erabili beharko dira, edo, bestela, banaketa sareetan sartzeko, artikulu honetako 2. apartatuaren a) letran xedatutakoaren arabera.

b) Aipatutako 65.2.b artikuluaren b`) letran xedatutakoaren ondorioetarako, honako helburu hau duten inbertsioak hartuko dira konpentsazio neurriak edo borondatezko beste jarduketa mota batzuk gauzatzearen ondorioz naturaguneetako ingurumena berroneratzetzat: natura ondarea hobetzea, eragin negatiboak arintzea, lurraldea klima aldaketaren aurrean egokitzea eta haren erresilientzia handitzea eta ingurumen balioak handitzera, betiere espazioak berroneratuz, biodibertsitatea sustatuz eta ekosistemen egitura eta funtzionamendu ekologikoa hobetuz eta, beraz, naturaren zerbitzuak hobetuz.

Berroneratze jardueretan egindako ordainketak kenkariaren oinarrian sartuta daudela joko da, baldin eta inbertsiogilearen aktibo ibilgetuaren parte badira edo haren parte izango badira. Jarduera horiek egin daitezke edo administrazio ebazpen batean jaso diren konpentsazio neurri ez derrigorrezkoak betetzearen ondorioz, edo natura ingurunean eragina duten bestelako borondatezko jarduketa batzuen ondorioz.

Naturagunearen ingurumen kalitatearen hobekuntza datu kuantitatiboetan edo kualitatiboetan islatuko diren ekintzen bidez gauzatuko da, abiapuntuko egoera egiaztatzeko aukera emango duten adierazleen bidez.

Basoberritzeen kasuan, espezie autoktonoekin egingo dira, aplikatzekoa den foru araudiaren arabera eta flora eta fauna kudeatzeko planak kontuan hartuta.

c) 65.2.b artikuluaren c`) letran jasotakoaren ondorioetarako, ur kontsumoa minimizatze eta ura araztetzat hartuko dira hobekuntza dakarten inbertsioak, zergadunek legez dituzten arazketa betebeharren inguruan izan edo inbertsioa egin aurreko ur kontsumoen inguruan izan.

Zehazki, ur kontsumoa minimizatu dela ulertuko da zergadunak bere jarduketen bidez frogatzen duenean inbertsioak ezarritako aurrerapen teknologikoek, inbertsioaren aurreko egoerarekin alderatuta, inbertsioak eragiten duen ekoizpen prozesuaren etapa espezifikoan uraren kontsumoa gutxienez 100eko 25 murriztu dutela eta, era berean, jardueraren ur kontsumo osoa eta produktu unitateko kontsumoa nabarmen gutxitzen dutela.

Bestetik, honako hau hartuko da hondakin uren arazketa hobekuntzatzat, legezko arazketa betebeharrei dagokienez: jardueraren isuri likido kutsatzaileek lurrazaleko edo lurpeko ur masen egoera kimikoan zuzenean edo eskualdeko saneamendu azpiegituretan duten eragina murrizteko inbertsio guztiak, haien errendimendua eta kontserbazioa hobetzeko. Era berean, aurreko manuetako bat betetzeaz gain, arauz bete behar dituzten isurketen legezko mugak hobetzen dituzten instalazioetan egindako inbertsioak bakarrik kendu ahal izango dira.

Azkenik, euri ura hartzeko, biltegiratzeko eta autokontsumorako instalazioak ere kengarritzat hartuko dira, bai eta soberako urak edo ekoizpen prozesuetan erabilitako urak berrerabiltzeko instalazioak ere, baldin eta, inbertsioaren aurreko egoerarekin alderatuta, guztizko ur kontsumoa eta produktu unitateko kontsumoa nabarmen murrizten badute eta/edo, hala badagokio, karga kutsatzaile txikiagoa isurtzen badute naturagunera.

d) Aipatutako 65.2.b) apartatuko d`) letran xedatutakoaren ondorioetarako, egungo ekipamendu eta instalazioen ordez energia eta baliabideak efizientzia handiagoz erabiltzen dituzten instalazioak jartzeko, frogatu egin beharko da ekipamendu eta instalazio horiek merkatuko teknologia estandarren aldean hobekuntza gehigarria dakartela.

Zehazki, energiaren erabileran efizientzia handiagoa izateari dagokionez, baloratuko da energia galeren murriztapena eta energia berriztagarriak ekoizteko eta biltegiratzeko ahalmenaren hazkuntza dakarten ekipoak eta instalazioak ordeztea, modernizatzea edo berrindartzea. Nolanahi ere, justifikatu beharko da

kontsumitutako energia-intentsitatea gutxienez 100eko 20 murriztu dela inbertsioaren aurreko egoerarekin alderatuta.

Bestetik, baliabideen erabileran efizientzia handiagoa izateari dagokionez, lehengai berriztaezinen kontsumoa termino erlatiboetan (produktu unitateko) gutxienez 100eko 15 murrizten duten ekipoak eta instalazioak erostea edo ordeztea baloratuko da, inbertsioaren aurreko egoerarekin alderatuta.

Azkenik, teknika erabilgarri onenak (MTD) edo sortzen ari diren teknikak (TE) dituzten ekipo eta instalazio berriak erosiz gero, aipatzen diren erreferentziazko dokumentu sektorialak (BREF) edo arau baliokideak aipatu beharko dira, eta behar bezala justifikatutako antzeko jarduerak baloratu ahal izango dira.

e) Aipatutako 65.2.b) artikuluaren e`) letran xedatutakoaren ondorioetarako, mugikortasun eta garraio jasangarriko inbertsiotzat joko da zero emisioko ibilgailuen bidez edo erregai berriztagarriak edo hipokarbonikoak erabiltzen dituzten ibilgailuen bidez egiten dena.

Mugikortasuna eta garraio jasangarria antolatu eta hobetzea ahalbidetzen duten ekipo edo sistemetan egindako inbertsioak ere hartuko dira kontuan.

**5.** Aurreko 4. apartatuan zehaztutako murrizketak edo hobekuntzak proiektuan zehaztutako balorazio parametroen eta kontzeptuen arabera kalkulatuko dira, proiektua gauzatzen hasi aurreko zergaldiari dagokionez.

Enpresak edo ekipamendu edo instalazio berriak ezartzen badira, murriztapenak edo hobekuntzak funtzionamendu ereduei edo merkatuko teknologia estandarrei dagokienez ere kalkulatuko dira, eta horiekiko hobekuntza gehigarria justifikatuko da. Alderdi horiek, hala badagokio, gaiaren arabera eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuaren foru agindu bidez zehaztu ahal izango dira.

**6.** Proiektuen kasuan, kenkarirako eskubidea proiektu bakoitzeko eskatu beharko da, eta, horretarako, eskaera bat zuzendu beharko zaio, idatziz, Gipuzkoako Foru Aldundian gaian eskudun den Departamentuari edo Eusko Jaurlaritzako kasuan kasuko Sailari edo hari atxikitako organismo edo entitateren bati, dagokionaren arabera, zergadunak kenkari hori aplikatzen duen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

Eskaerak, gutxienez, honako informazio hau jaso beharko du:

a) Proiektuaren deskripzio zehatza, haren xedea identifikatuz, eta 65. artikuluan aipatutako kasuetako zeinetan sartzen den adieraziz.

b) Egin beharreko inbertsio planaren kuantifikazioa eta horiek gauzatzeko egutegia.

c) Erabiliko den teknologia, haren jatorria eta aurretik dauden erreferentziak. Erregelamendu honen 36.4.d) artikuluan jasotako kenkarien kasuan, kenkari kasu horren esparruan egindako inbertsioetan aplikatzeko alegatzen diren teknikak jasotzen dituzten erreferentziazko dokumentu sektorialak (BREF) edo arau baliokideak ere aipatu beharko dira.

d) Sektoreko Administrazioak edo entitate homologatuek eman beharreko baimena, adostasun txostena edota ziurtagiria.

e) Zergadunak bere enpresan egindako inbertsio baten kenkarirako ziurtagiri bat lehen aldiz eskatzen duenean, jarduera sailkatuaren lizentziaren edo bere jarduera garatzeko baimena ematen duen ingurumen baimen bateratuaren edo ingurumen baimen bakarraren kopia bat aurkeztu beharko du. Era berean, dokumentu horiek aurkeztu beharko dira, baldin eta, jarduera aldatu edo handitzeagatik edo igarotako denboragatik, baimen horien edukia aldatu bada.

Eskaera aurkezten duenean zergadunak ez badu jaso aurreko agirietako bat ere ez, onartzen zaizkionean aurkeztu beharko ditu nahitaez.

**7.** Zerga Administrazioak, zergaren foru arauaren 65. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoari jarraituta, eskatzen badu aurkezteko Gipuzkoako Foru Aldundian gaiaren arabera eskumena duen departamentuak luzatutako ziurtagiria edo Eusko Jaurlaritzak edo horiei atxikitako organismo edo entitateren batek emandako txosten arrazoitua, zergadunak sei hilabeteko epea izango du hura aurkezteko, eta bertan jasota utzi beharko da inbertsioak egokiak direla, kenkariaren aplikazioari begira.

Ziurtagiria edo txosten arrazoitua ez bada adierazitako epean aurkezten zergadunari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kenkaria aplikatzeko eskubidea galduko da.

Orobat, zergadunak, bere borondatez, sozietateen gaineko zergaren autolikidazioarekin batera aurkez dezake ziurtagiri edo txosten arrazoitu hori, kenkari hau aplikagarri zaiola justifikatzeko.

**8.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 65.4 artikuluaren bigarren paragrafoan ezarritakoari dagokionez, egindako inbertsioei buruzko txosten arrazoitua edo ziurtagiria eskatu beharko zaie organismo eskudun hauei:

- 65.1 artikuluko 1. apartatuaren c) eta e) letretan eta 2. apartatuaren a) letran aipatzen diren kenkarien kasuan, eskaera Eusko Jaurlaritzari edo hari atxikitako organismo edo entitate bati bidali beharko zaio.

- 65.1 artikuluaren a) letran aipatzen diren kenkarien kasuan, eskaera Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali beharko zaio iturri berriztagarrietatik, hidrogeno berdeetatik edo erregai berriztagarrietatik datorren energia sortzeko instalazioetan 1 MW-eko edo gutxiagoko edukiera instalatua duten inbertsioetarako; aldiz, Eusko Jaurlaritzari edo hari atxikitako organismo edo entitate bati bidaliko zaizkio gainerako instalazioetarako.

- 65.1 artikuluaren b) letran aipatzen diren kenkarien kasuan, eskaera Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali beharko zaio, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako jarduera sailkatuaren lizentziaren eta jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren araubide juridikoen mende dauden zergadunek egiten dituzten inbertsioetarako; aldiz, Eusko Jaurlaritzari edo hari atxikitako organismo edo entitate bati bidaliko zaizkio ingurumen baimen integratuaren eta ingurumen baimen bakarraren esku hartze araubideen mende dauden zergadunen eskaerak.

- 65.1 artikuluaren f) letran aipatzen diren kenkarien kasuan, eskaera Gipuzkoako Foru Aldundira bidali beharko da etxekoekin pareka daitezkeen industria eta merkataritza hondakinen kudeaketari eragiten dioten inbertsioetarako. Etxeko hondakintzat hartuko dira Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2. artikuluaren definizioan jasotakoak. Eusko Jaurlaritzara edo hari atxikitako organismo batera bidaliko dira, aldiz, gainerako industria edo merkataritza hondakinen kudeaketari eragiten dioten inbertsioetarako.

### 36 bis artikulua. Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuen finantzaketan parte hartzea.[21]

[21] Artikulu hau abenduaren 23ko 27/2025 FORU DEKRETUAren 2. artikuluaren bigarren ordinalaren bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten ditu.

**1.** Ulertuko da zergadun batek beste zergadun baten proiektuaren finantzaketan parte hartzen duela (garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzea helburu duen proiektu baten finantzaketan) zergaren foru arauaren 65 bis artikuluan xedatutakoarekin bat, diru-kopuruak jartzen dituenean proiektuaren kostuak osorik edo partez ordaintzeko, proiektua egiten duenaren aldetik kopuru horiek zertan itzuli gabe.

**2.** Itzuli behar ez diren ekarpen horiek, aurreko apartatuan aipatuak, gastuak eta inbertsioak egin aurretik edo egin ondoren egin ahal izango dira, baina inoiz ez proiektua amaitzen den zergaldia bukatu eta gero.

**3.** Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituen proiektua zergaren foru arauaren 65 bis artikuluaren arabera finantzatzen bada, beharrezkoa izango da haren kostuak gertatzea ekarpena jasotzen den zergaldian, edo, bestela, aurreko lehenengoan.

**4.** Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituen proiektua egiten duen zergadunak eta haren finantzaketan parte hartzen duenak finantzaketa kontratu bat sinatu beharko dute, zergaren foru arauaren 65 bis artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako edukiarekin.

**5.** Zergaren foru arauaren 65 bis artikuluko 6. apartatuaren arabera Zerga Administrazioari egin behar zaion komunikazioa proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aurkeztuko du, finantzaketa kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan beranduenik.

Aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, eta, gutxienez, informazio hau jaso beharko du:

a) Aurreko 4. apartatuan aipatutako finantzaketa kontratua.

b) Zergaren foru arauaren 65 artikuluko 4. apartatuan aipatzen den txosten arrazoitua, edo, halakorik oraindik egin ez bada, hura eskatu izanaren frogagiria.

c) Finantzaketa kontratuaren egituraketan esku hartzen duen bitartekariarekin sinatutako kontratuaren kopia, hala badagokio.

**6.** Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituen proiektuaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek frogatu dezaketen kenkaria ezingo da izan garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzeko jarduerak egin dituzten zergadunek frogatuko zutena baino handiagoa.

Zergaren foru arauaren 65 bis artikuluko 4. apartatuan ezarrita dagoen 1,20ko muga zergaldi bakoitzean aplikatuko da, baita modu globalean ere proiektuak irauten duen zergaldi guztietarako.

Garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzea helburu duten proiektuak egin dituzten zergadunek ez badute aplikatzen aurreko mugatik ondorioztatzen den soberakina, 65 bis artikuluko zergadunek izango dute hura hurrengo zergaldian aplikatzea, betiere behar besteko diru ekarpena egiten badute.

### 37. artikulua. Kenkaria enplegua sortzeagatik.

---

Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2025-12-30ko GAO), eta 2025eko urtarrilaren 1 etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

**1.**[22] Zergaren foru arauak 66. artikuluaren 1. apartatuko hirugarren paragrafoan ezartzen duen kenkari gehitua aplikatu ahal izan dadin, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoak diren eta lan kontratu mugagabea duten langileen kopurua ez murriztea hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, eta lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako langile kopuru hori kenkarirako eskubidea sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea, gutxienez, kenkari gehitua aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopuru berean.

b) Zergaren foru arauak 66. artikuluaren 2. apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen duen langile kopurua (lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetan lan kontratu mugagabea duten langileena) kontratazioak egin aurreko zergaldikoa baino handiagoa izatea, gutxienez, kenkari gehitua aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopuru berean. Ondorio horietarako, artikulu honetako 2. apartatuan ezarritako erregela aplikatuko da.

Apartatu honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioa egitean sartu beharko ditu kenkaria gehitzeagatik ondorioztatzen den kuota gehi dagozkion berandutze interesak.

**2.**[23] Zergaren foru arauak 66. artikuluaren 1. apartatuko hirugarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da kontratatutako pertsona lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetakoa dela baldin eta, kontratazioaren unean, talde hauetako baten barruan sartuta badago:

a) Kontratazioaren unean 30 urte baino gutxiago edo 45 urte baino gehiago dituzten langileak.

b) 100eko 33ko edo hortik gorako desgaitasun maila aitortua duten pertsonak.

c) Iraupen luzeko langabeak. Ondorio horietarako, iraupen luzeko langabeak izango dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu zerbitzu publiko batzuetan enplegu eskatzaile gisa izena emanda daudenak, baldin eta kontratazioa egin aurreko azken 540 egunetatik gutxienez 360 egunetan langabetuta egon badira. Langabetasuna frogatzeko, lan bizitzaren agiria aurkeztu beharko da.

d) Guraso bakarreko familietako aita edo ama, baldin eta kontratatutako pertsona, kontratazioaren aurreko hiru hilabeteetan gutxienez, langabezian egon bada eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu zerbitzu publiko batzuetan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta agertu bada. Ondorio horietarako, egoera horretan egongo da ordainpeko jarduerarik egiten ez duen ondorengo

[22] Apartatu hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

[23] Apartatu hau azaroaren 22ko 18/2022 Foru Dekretuaren 2. artikuluak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2022-11-28ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

ahaide bat edo gehiago bere kargura dituen pertsona. Langabetasuna frogatzeko, lan bizitzaren agiria aurkeztu beharko da.

e) Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak. Egoera horretan egongo dira ezkontidearengatik edo antzeko afektibitate harreman baten bitartez haiekin lotura egonkorra duen edo izan duen pertsonarengandik indarkeria fisiko edo psikikoa jasan duten emakumeak edo haien seme-alabak, beharrezkoa izanik, horrelakoetan, egoera hori frogatzea Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan xedatutako eran edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiak genero indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta haiei laguntzeko duen Zerbitzuak esku hartu duela frogatzen duen dokumentua aurkeztuta.

f) Azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan arautzen diren laneratze enpresetan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua amaitu duten pertsonak, betiere kontratazioa prozesu hori amaitu eta hurrengo hamabi hilabeteetan egiten bada.

g) Laguntza hauen onuradunak: Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean ezarritakoak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea garatuz aurreikusten dituenak, Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean jasotakoak, eta lurralde administrazio publikoek antzeko helburu batekin ematen dituzten bestelako laguntza publikoak.

h) Toxikomano izandakoak. Ondorio horietarako, halakotzat joko dira talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio eta desohitze faseak behin gaindituta eta etengabeko tratamenduan 6 hilabete baino gehiago emandakoan, lanaren bidez gizarteratzeko programa batean sartzeko moduan dauden pertsonak.

i) Espetxeetan dauden pertsonak, lan kontraturik ez dutenean eta espetxe erregimenak lanpostu bat lortzeko aukera ematen dienean, bai eta preso ohiak ere, betiere kontratazioa espetxetik atera ondorengo 12 hilabeteetan egiten bada.

j) Atzerrian bizi diren langileak (lanean ari direnak zein langabeak), lan egiteko Euskadira itzultzeko asmoa eduki eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan itzultzeko borondatea duten emigrante gisa izena emanda daudenean.

**3.**[24] Zergaren foru arauaren 66. artikuluaren 2. apartatuko bigarren paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, kontuan hartuko da kontratazioak egin aurreko zergaldiko egun guztietan dauden langileen kopurua.

**4.**[25] Zergaren foru arauak 66. artikuluaren 2. apartatuko azken paragrafoan ezarritako baldintza ez da betegabetzat joko, baldin eta soldata murrizketa

---

[24] Apartatu honen numerazioa azaroaren 22ko 18/2022 Foru Dekretuaren 2. artikuluak aldatu du, 2. apartatua 3. apartatua bihurtzen da. Aipatutako foru dekretuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2022-11-28ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

[25] Apartatu hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

Apartatu honen numerazioa azaroaren 22ko 18/2022 Foru Dekretuaren 2. artikuluak aldatu du, 3. apartatua 4. apartatua bihurtzen da. Aipatutako foru dekretuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua

gertatzen bada langileak lanaldia murrizteko eskubidea baliatu duelako, soldata proportzionalki murriztuta, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 37. artikuluko 4tik 8ra bitarteko apartatuetan aitortzen dion moduan.

### 37 bis artikulua.[26] Ikus-entzunezko lanak produzitzeko inbertsio eta gastuen kenkaria. Kultur ziurtagiria eta filmotekako gordailua.

1. Ikus-entzunezko lanaren kultur izaeraren frogagiria Gipuzkoako Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan kultura arloko eskumena duen departamentuari eskatu ahal izango zaio bereziki, baina baita horiei atxikitako erakunde edo entitateren bati ere.

Kultur ziurtagiria lortzeko, zergadunak justifikatu behar du eskaeraren xede den lanak kultura sustatzen eta Europako ondarea kontserbatzen laguntzen duela. Ziurtagiria emateko, aintzat hartu ahal izango dira, besteak beste, obraren hizkuntza edo hura girotzeko tokia, haren garrantzi historiko edo kulturala, eta aniztasun kulturalari, sozialari, erlijiosoari, etnikoari, filosofikoari edo antropologikoari egiten dion ekarpena.

Kultur ziurtagiria ikus-entzunezko lanaren ekoizpena amaitu ondoren edo ekoizpenaren edozein fasetan eskatu ahal izango da; hala ere, azken kasu horretan, zergaren foru arauaren 66 ter artikuluan aipatzen diren zergadunek ikus-entzunezko obren finantzaketan parte hartzeagatik arautzen den kenkaria aplikatu ahal izatea izan behar du xede eskaerak.

Nolanahi dela ere, ziurtagiri hori ikus-entzunezko lanaren ekoizpena amaitzen den zergaldiari dagokion autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari.

Apartatu honetan aipatutako ziurtagiria loteslea izango da Zerga Administrazioarentzat ikus-entzunezko lanaren kultur izaerari dagokionez. Dena den, Zerga Administrazioari dagokio egiaztatzea inbertsioak eta gastuak benetan egin direla eta gauzatutako jarduerak ongi egokitzen direla emandako ziurtagirian jasotakoetara.

2. Ikus-entzunezko lanak bildu, katalogatu, kontserbatu, zaharberritu edo jendearen eskura jartzeko eskumena duten erakunde edo organismoetan edo Euskadiko Filmategian kopia berri bat gordailutu izanaren justifikazioa ikus-entzunezko lanaren ekoizpena amaitzen den zergaldiari dagokion autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari, betekizun hori aplikagarria den kasuetan.

### 37 ter artikulua.[27] Ikus-entzunezko lanak ekoizteko inbertsio eta gastuen kenkaria. Kreditu tituluen eta material grafikoaren inguruko beharkizunak.

---

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2022-11-28ko GAO) eta aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

[26] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

[27] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga

Ikus-entzunezko lanen produkzioetan egindako inbertsio eta gastuen kenkaria aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Eskubideen titularrek baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari obraren titulua erabiltzeko eta, estreinaldi komertzialetik bi hilabete igaro ondoren, filmaketaren edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egindako beste edozein ekoizpen prozesuren material grafiko eta ikus-entzunezkoa eskuratzeko, kultura, turismo edo ekonomia gaietan eskumenak dituzten sektore publikoko entitateek lurraldea sustatzeko jarduerak egin eta materialak presta ditzaten soil-soilik.

b) Ikus-entzunezko obran hau agertzea:

—Hasierako kreditu tituluetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren logotipoa.

—Amaierako kreditu tituluetan, aipamen hau: «La producción se ha acogido a los incentivos fiscales previstos en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa / Ekoizpen hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan aurreikusten diren zerga-pizgarrien babesarekin egin da / This production has benefited from the tax incentives included in the Corporate Tax Law of Gipuzkoa.

## 37 quater artikulua.[28] Ikus-entzunezko lanak produzitzeko inbertsio eta gastuen kenkaria. Obra zailak.

Obra zailaren kalifikazioa zergaren foru arauaren 66 bis.Bat artikuluko 5. zenbakiaren i) letran ezarritakoaren arabera lortzeko, eskaera bat aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Aurkezpen hori zergadunak kenkarirako eskubidea frogatzen duen lehen zergaldia amaitu aurretik egin beharko da.

Eskaera izapidetzeko, erregelamendu honen 44. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraituko zaio, kasuan kasu aplikagarri zaizkion berezitasunak kontuan hartuta.

Hala ere, eskaera aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta Zerga Administrazioak, interpretazio irizpideen bidez edo zerga kontsulta idatziak direla medio, berariazko jarraibideak argitaratu baditu haiekin zehazteko zergaren foru arauaren 66 bis.Bat artikuluko kenkaria aplikatu behar zaion obrak obra zailaren kalifikazioa duela.

## 37 quinquies artikulua.[29] Arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatik aplikatu beharreko kenkaria. Kultur ziurtagiria eta ikuskizuna gauzatzekoa.

---

pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

[28] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

[29] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

1. Zergaren foru arauaren 66 bis. Bi artikuluko 2. zenbakian arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatik arautzen den kenkaria aplikatzeko behar den ziurtagiriak zirkunstantzia hauek frogatu beharko ditu:

a) Ekoizpenak kultur izaera duela.

b) Arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizuna benetan gauzatu dela.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ziurtagiria Gipuzkoako Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan kultura arloko eskumena duen departamentuari eskatu ahal izango zaio bereziki, baina baita horiei atxikitako erakunde edo entitateren bati ere.

3. Ziurtagiriaren eskaerak datu hauek jaso beharko ditu gutxienez:

a) Ekoizpenaren, jaialdiaren edo espazio eszenikoaren izenburua.

b) Egindako funtzio kopurua, guztira.

c) Lehen eta azken emanaldiaren datak.

d) Erlazionatutako ikuskizun, jaialdi edo espazio eszenikoko programazio bakoitzerako, jarraian aipatzen den dokumentazioa erantsiko da (ziurtagiria eskatzen duen zergadunak ekitaldiaren antolatzaile gisa agertu behar du esplizituki bertan):

—Emanaldirako formalizatu den legezko titulua, esate baterako, hitzarmenak, kontratuak edo egile eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

—Promoziorako dokumentuak, hala nola iragarkiak, prentsako iragarkiak, eskuko programak, kartelak eta buletinak, besteak beste.

e) Kenkaria aplikatu nahi zaion ikuskizunak kultura sustatzen eta Europako ondarea kontserbatzen laguntzeari buruzko justifikazioa. Ondorio horietarako, kontuan hartu ahal izango dira, besteak beste, ikuskizunaren hizkuntza edo hura girotzeko tokia, haren garrantzi historiko edo kulturala, eta aniztasun kulturalari, sozialari, erlijiosoari, etnikoari, filosofikoari edo antropologikoari egiten dion ekarpena.

4. Ziurtagiria eskatu ahal izango da zuzeneko ikuskizunaren ekoizpena eta erakustaldia amaitu ondoren, edo erakustaldia amaitu aurretik, baina, kasu horretan, ikuskizunaren izaera kulturala baino ez da ziurtatuko bertan, eta zergaren foru arauaren 66 ter artikuluan aipatzen diren zergadunek arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzeagatik arautthough kenkaria aplikatu ahal izateko baino ez da emango. Ondorio horietarako, ziurtagiriaren eskaeran bakar-bakarrik justifikatu beharko da ikuskizunak kultura sustatzen eta Europako ondarea kontserbatzen laguntzen duela.

Zuzeneko ikuskizunaren erakustaldia amaitu ondoren, zergadunak beste eskaera bat aurkeztu beharko du, kasuan kasu, aurreko 1. apartatuan xedatutako betekizunekin amaitzeko. Ziurtagiriaren eskaerak aurreko 3. apartatuan aipatu diren gainerako datu eta agiriak jaso beharko ditu ikuskizuna benetan gauzatu dela frogatzeko.

5. Aurreko 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, ziurtagiria eskatu ahal izango da zergaldian gertatutakoari soilik erreparatuta, eta zergaldi bakoitzaren barruan –banaka hartuta– gauzatutako ikuskizunaren lehen eta azken saioak hartuko dira erreferentziatzat, zergaldi horietan ikuskizuna luzatzen bada.

6. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den ziurtagiria zuzeneko ikuskizunaren erakustaldia amaitzen den zergaldiari dagokion autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari.

Aurrekoa gorabehera, zuzeneko ikuskizunaren erakustaldiak irauten duen bitartean, aurreko 5. apartatuan aipatzen den ziurtagiria bertan ziurtatzen den zergaldiari dagokion autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko zaio Zerga Administrazioari.

7. Estatuko edo autonomia erkidegoetako organismo eskudunek edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean kokatutako organismo baliokideek emandako ziurtagiriak ere baliodunak izango dira kenkaria aplikatzeko, betiere aurreko 1. apartatuan aipatutako inguruabarrak frogatzen badituzte.

Ziurtagirian ikuskizuna benetan egin izana bakarrik jasotzen bada edo hura kultur arlokoa dela besterik ez badu esaten, kasu bakoitzean beharrezkoa den ziurtagiria ere eskatu beharko da, bi alderdiak frogatuta gera daitezen.

8. Ziurtagiria loteslea izango da Zerga Administrazioarentzat, ikuskizunaren izaera kulturalari eta hura benetan gauzatu izanari dagokienez. Dena den, Zerga Administrazioari dagokio egiaztatzea inbertsioak eta gastuak benetan egin direla eta gauzatutako jarduerak ongi egokitzen direla emandako ziurtagirian jasotakoetara.

**37 sexies artikulua.[30] Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Beharkizunak.**

1. Zergaren foru arauaren 66 ter artikuluaren bigarren paragrafoan aipatzen diren itzuli beharrik gabeko ekarpenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ikus-entzunezko lanen produkzio kostua eta zuzeneko ikuskizunen ekoizpen eta erakusketa kostu zuzenak finantzatzeko zenbatekoak gastuak eta inbertsioak egin aurretik edo ondoren eman ahal izango dira, baina inoiz ez produkzio-etxeak ikus-entzunezko obraren ekoizpena edo zuzeneko ikuskizunaren ekoizpena eta erakustaldia amaitzen duen zergaldia amaitu ondoren.

Emandako zenbatekoak produkzio-etxeak ekarpena jasotzen duen zergaldian edo, hala badagokio, aurreko lehen zergaldian egindako gastuak ordaintzeko erabili beharko dira.

b) Ikus-entzunezko lanen kasuan, kopiak, publizitatea eta sustapena lortzeko gastuak finantzatzeko zenbatekoak produkzio-etxeak gastu horiek egin aurretik edo ondoren eman ahal izango dira, baina inoiz ez produkzio-etxeak gastu horiek egiten dituen zergaldia amaitu ondoren.

2. Ekarpen horiek finantzaketa kontratu batean jaso beharko dira, eta kontratu horretan datu hauek adierazi beharko dira:

[30] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

a) Ikus-entzunezko lanaren edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunaren produkzioan eta finantzaketan parte hartzen duten zergadunen identitatea.

b) Ikus-entzunezko lanaren edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunaren deskribapena.

c) Ikus-entzunezko lana edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizuna ekoizteko aurrekontua, gastuak zehatz deskribatuz, eta, ikus-entzunezko lanen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egingo diren gastuak, denbora egozpena ere adieraziz.

Honako hauek ere sartuko dira:

a’) Ikus-entzunezko lanen kasuan, produktorearen konturako kopiak lortzeko eta publizitatea eta sustapena egiteko gastuen aurrekontua eta denbora egozpena, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan egingo direnen deskribapen xehatuarekin.

b’) Zuzeneko ikuskizunen kasuan, emanaldi gastuen aurrekontua eta denbora egozpena.

d) Finantzatzeko modua, honako hauek bereizita: zer kantitate jartzen dituen ikus-entzunezko obra edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizuna produzitzen duen zergadunak, zer kantitate jartzen dituen finantzaketan parte hartzen duen zergadunak, eta zein zenbateko dagozkien finantza entitateen kredituei, dirulaguntzei eta bestelako laguntza neurriei.

e) Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak egiazta dezakeen kenkariaren kuantifikazioa, betiere ordaindutako gastuak eta haiek egiteko zergaldia zehaztuta. Zenbateko horrek beti errespetatu beharko du zergaren foru arauaren 66 ter artikuluaren 5. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritako 1,20ko muga.

Finantzaketa kontratuak ekoizpen bat baino gehiago hartzen baditu, aurreko letren edukia ekoizpen bakoitzerako bereizita emango da.

3. Zergaren foru arauaren 66 ter artikuluko 8. apartatuan aipatzen den komunikazioa finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aurkeztu beharko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta, horretarako, baita finantzaketa kontratua erantsi ere.

Era berean, ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren kultur izaera frogatzen duen ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko du, hain zuzen ere erregelamendu honen 37 bis eta 37 quinquies artikuluetako 1. apartatuetan aipatutakoarena hurrenez hurren, eta, oraindik eman ez bada, hura eskatu izanaren dokumentazioa.

### 37 septies artikulua.[31] Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Mugak.

1. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzen duten zergadunek ezingo dute egiaztatu

[31] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko sei apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

66 bis artikuluko bat eta bi apartatuetan aipatutako zergadunek egiaztatuko zutena baino kenkari handiagorik.

2. Zergaren foru arauaren 66 ter artikuluko 5. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritako 1,20ko muga zergaldi bakoitzean aplikatuko da, baina, baita ere, modu globalean, ikus-entzunezko lana produzitzen den edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen produkzioak eta erakustaldiak irauten duten zergaldi guztietarako.

66 bis artikuluko bat eta bi apartatuetako zergadunek ez badute aplikatzen aurreko mugatik ondorioztatzen den soberakina, 66 ter artikuluko zergadunek aplikatu ahal izango dute, hurrengo zergaldian, soberakin hori, betiere behar besteko diru ekarpena egiten badute.

## 37 octies artikulua.[32] Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Erregularizazioa.

Finantzaketa kontratuaren bi alderdiek zergaren foru arauaren 66 bis artikuluko bat eta bi apartatuetan eta 66 ter artikuluan xedatutako kenkariak aplikatu badituzte, kasuan kasu, zergaren foru arauaren 66 bis.Bat artikuluko 2. zenbakiaren azken paragrafoan ezarritakoagatik edo bestelako arrazoiengatik egitekoa litzatekeen erregularizazioa 66 bis artikuluko bat eta bi apartatuetako zergadunek aplikatutako kenkarien gainean egingo da lehen-lehenik, eta kenkari horiek ez badira nahikoa bidegabe kendutako zenbateko guztiak estaltzeko, erregularizazioak 66 ter artikuluko zergadunek zenbateko horretaraino egin duten kenkariari eragingo dio.

## 37 nonies artikulua.[33] Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea. Datuak zabaltzea.

Datuak zergaren foru arauaren 66 bis.Bat artikuluko 7. zenbakian aurreikusitako eran zabaltzeari begira, Gipuzkoako Foru Aldundiak ikus-entzunezko lanaren ekoizlea edo ekoizle exekutiboa identifikatuko du pizgarriaren onuradun gisa, eta ez lanaren finantzaketan parte hartzen duen zergaduna.

## 37 decies artikulua.[34] Kultura sustatzeko pizgarriak egiaztatzen dituzten zergadunen informazio betebeharrak.

---

[32] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko zazpi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

[33] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko zortzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

[34] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bederatzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

Zergaren foru arauaren 66 bis artikuluko lehen eta bigarren apartatuetan aurreikusitako kenkariak egiaztatzen dituzten zergadunek gutxienez honako informazio hau eman beharko dute zergaren autolikidazioa aurkeztean:

a) Zergaldian egin diren ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen identifikazioa, pizgarrirako eskubidea dutenean.

b) Hala badagokio, obra edo ikuskizun bakoitzean parte hartu duten gainerako pertsona edo entitate ekoizle edo sustatzaileen identifikazioa, eta haien partaidetza.

c) Obra edo ikuskizun bakoitzeko jasotako laguntza edo dirulaguntza publikoen zerrenda.

d) Hirugarren batzuek obraren edo ikuskizunaren finantzaketan parte hartzen badute foru arauaren 66 ter artikuluan aurreikusitakoarekin bat, haien identifikazioa.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zehaztuko du, zergaren autolikidazioari dagokion eredua onesteko foru aginduaren bidez, eman beharreko informazio osoa.

## 37 undecies artikulua. Kenkariak enpresek gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioengatik. Urteko soldata gordina entitate enplegatzailean.[35]

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako, entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Kontribuzio enpresarialak egiten diren zergaldian entitate enplegatzaileko langile guztiek urtean jasotako soldata gordin osoa konputatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, gizarte aurreikuspeneko planak negoziazio kolektiboaren ondorioz sortu badira eta haiei atxikitzea langileen borondatezko erabakia bada, plan horiei atxikitako langile guztien urteko soldata gordina hartuko da kontuan.

b) Entitate enplegatzaileko langile bakoitzaren urteko soldata gordina zehaztuko da Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak 190 ereduari buruz onetsitako foru aginduan ezarritakoari jarraituta (190 eredua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena»), aurreko a) letraren arabera entitate enplegatzailean aintzat hartzekoa den plantillari dagokiona.

## 37 duodecies artikulua. Kenkaria bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak ezartzeagatik.[36]

---

[35] Artikulu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu.

[36] Artikulu hau abenduaren 23ko 27/2025 FORU DEKRETUAren 2. artikuluaren lehenengo ordinalaren bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten ditu.

Zergadunaren Kontziliazio Plana, zergaren foru arauaren 66 quater artikuluan aipatzen dena, honela jaso beharko da:

1) Kooperatiba sozietateen kasuan eta bazkide langileei edo lan bazkideei dagokienez, entitatearen funtzionamendua eta lan araubidea erregulatzen dituzten arauetan xedatutakoaren arabera.

2) Gainerako kasuetan, negoziazio kolektiboaren ondorioz adostutako erabakietan.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

# IV. TITULUA
# ZERGA ARAUBIDE BEREZIAK

## I.KAPITULUA.[37] Itsas garraioko enpresen araubidea.

### 38. artikulua. Aplikazio eremua eta jakinarazpenaren edukia itsas garraioko enpresen araubidean.

**1.** Zergaren foru arauaren 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, entitate batek araubide hau hautatzen duela ezagutarazteko jakinarazpena bidaltzen duenean, araubide horretan ustiatzen dituen itsasontzi guztiak sartu behar ditu jakinarazpenean, bai propioak bai pleitatuak, bai eta geroago eskuratzen edo pleitatzen dituenak ere.

**2.** Zerga baterakuntzaren araubide berezian tributatzen duten entitateen kasuan, komunikazioa talde fiskala ordezkatzen duen entitateak bidali behar du, eta talde fiskala osatzen duten entitateen itsasontzi guztiak hartu behar ditu barne, aurreko paragrafoan azaldutako terminoetan.

**3.** Jakinarazpena egiten duen entitateak denbora baterako eta bidaia jakinerako pleitamenduan hartutako itsasontziak ere sartu ahal izango dira araubidean, zergari buruzko foru-arauaren 70. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eta kanpoan geratuko dira artikulu horretan aurreikusitako mugak gainditzen dituzten ontziak.

**4.** Komunikazioarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Araubidea aplikatzeko arrazoi diren entitateek egiten dituzten jardueren identifikazioa eta deskripzioa.  .

b) Honako hau frogatzeko dokumentazioa: itsasontzi bakoitza zer titulu dela medio erabiltzen den edo erabiliko den, zein lurralde eremutan egingo den haien kudeaketa estrategikoa eta komertziala, eta, azkenik, zein bandera daramaten. Horrez gain, itsasontziak zergaren foru arauaren 70. artikuluan ageri diren jarduerei atxikita daudela frogatu beharra dago.

---

Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2025-12-30ko GAO), eta 2025eko urtarrilaren 1 etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

[37] I. kapitulu hau abenduaren 17ko 1/2024 Foru Dekretu-Arauak, 2024. urterako zenbait zerga neurri onesten dituenak, 6. artikuluko bigarren ordinaleko bat apartatuak gehitu du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/19ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak.

### 39. artikulua. Komunikazioa egiteko epeak, aplikazioa luzatzea, aplikazioari uko egitea eta ukoak edo ez-betetzeak dakarren zehapena..

**1.** Ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan bidali behar dio komunikazioa zergadunak Zerga Administrazioari, eta 10 urterako izango du balioa.

**2.** Lehen komunikazioaren indarraldia amaitutakoan, zergadunak araubidearen aplikazioa luzatzeko komunikazioak bidali ditzake, eta beste 10 urtez luzatzeko eskatu. Ondorioak izan behar dituen zergaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan bidali beharko da luzapenaren komunikazioa.

**3.** Baldin eta komunikazioa bidali ondoren, hots, araubidea aplikatzen ari dela, zergadunak araubidearen beharkizunak betetzen dituzten beste itsasontzi batzuk eskuratu, alokatu edo pleitamenduan hartzen baditu, beste komunikazio bat aurkeztu beharko du itsasontzi horiei buruz, artikulu honetan xedatutakoari jarraituz. Araubidea aplikatzeko aurrenik bidalitako komunikazioari zer indarraldi geratzen zaion eta horrek markatuko du komunikazio berriaren indarraldia.

**4.** Zergadunak ez badu aplikatzen araubidea gutxienez 10 urtean, araubide horretan tributatzeari uko egiten diola joko da. Zergadunak ukoak ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan komunikatu behar dio Zerga Administrazioari araubideari uko egiten diola, eta horrek berekin ekarriko du ezingo dela beste komunikazio bat egin araubidea aplikatu den urtea amaitu eta hurrengo 5 urteetan.

**5.** Zergadunak ez baditu betetzen zergaren foru arauaren 70. eta 72. artikuluetan arauttakoaraubidearen beharkizunak, araubidea aplikatzeko eskubidea galduko du, eta, gainera, haren obligazioa izango da, ez-betetzea gertatzen den ekitaldian, zergaldi horretako kuotarekin batera ordaintzea araubide hau aplikatu duen ekitaldi guztietan araubide orokorraren arabera ordaindu beharko zituen kuota guztiak, betiere bidezkoak diren berandutze interesak, errekarguak eta zehapenak galarazi gabe. Orobat, zergadunak ezingo du bidali araubide honen aplikazioa hautatzeko beste komunikaziorik, ez-betetzea gertatu den zergaldia hasi eta hurrengo bost urteetan.

Apartatu honetan ezarritakoa ez da aplikatuko ez-betetzea gertatzen bada zergadunari leporatu ezin zaizkion zirkunstantzia bereziengatik edo ezinbesteko arrazoiengatik.

### 39 bis artikulua. Itsas garraioko enpresen informazio betebeharrak.

Itsas garraioko enpresen araubide berezia aplikatzen duten zergadunek, informazio hau eman beharko dute urtero, itsasontzi bakoitzari buruz, sozietateen gaineko zergaren autolikidazioarekin batera:

a) Itsasontziaren identifikazioa.

b) Daraman bandera zein herrialderena den.

c) Erregistro garbiko tona kopurua.

d) Operatibo egon den egun kopurua.

e) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 70.3 artikuluan aurreikusten den beharkizuna betetzeari buruzko frogagiria (itsasontziaren barruan segurtasunari, fidagarritasunari, ingurumen prestazioei eta lan baldintzei buruz nazioartean zein Europar Batasunean ezarrita dauden arauak betetzeko obligazioa).

# II. KAPITULUA.[38] Beste zerga araubide berezi batzuk.

## 40. artikulua. Espainiako zein Europako ekonomia intereseko taldeen eta aldi baterako enpresa elkarteen betebeharrak.

**1.** [39] Zergaren foru arauaren VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikagarri duten Espainiako eta Europako ekonomia intereseko taldeek, zergaren autolikidazioarekin batera, zerrenda bat aurkeztu behar dute; bertan agertuko dira zergaldiko azken egunean taldeko bazkide diren Espainiako egoiliarrak edo bazkide izateari dagozkion eskubideak dituzten pertsona edo entitateak. Zerrenda horretan datu hauek agertu behar dira:

a) Bazkideen edo bazkide izateari dagozkion eskubideak dituzten pertsona edo entitateen identifikazioa, helbide fiskala eta partaidetza portzentajea.

Zentzu horretan, bazkideak bereizita identifikatu beharko dituzte, baldin eta, kontabilitate irizpideen arabera, haien ekarpenak ezaugarri bereziko ondare tresna gisa kalifikatu behar badira.

b) [40] Kontzeptu hauengatik egotzi beharreko kopuruen zenbateko osoa:

1. Kontabilitate emaitza.

2. Zergaren foru arauaren 25 bis artikuluari jarraituz, Interes Ekonomikoko Taldeak zergaldian kendu ez dituen finantza gastu garbiak.

3. Zerga oinarria.

4. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkariaren oinarria, zer motatako entitatetik datozen errentak, eta haren gaineko partaidetza portzentajea.

5. Zergaren foru arauaren V. tituluko III. kapituluan ezarritako kenkarien oinarria eta interes ekonomiko taldeak aplikagarri duen beste edozeinena, honako hau izan ezik: zergaren foru arauaren 62tik 64ra arteko artikuluetan interes ekonomikoko taldeko bazkideentzat aurreikusitako kenkariena, baldin eta, kontabilitate irizpideak aplikatuta, bazkide horiek ekonomia intereseko taldeei egindako ekarpenak ezaugarri bereziko ondare tresna gisa kalifikatu behar badira.

6. Interes ekonomikoko taldeari dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.

c) Kontabilitate irizpideei jarraituz ezaugarri bereziko ondare tresnatzat hartu behar diren ekarpenak egiten dituzten ekonomia intereseko taldeetako bazkideek taldearen kapitalera eramandako ekarpenak.

---

[38] II. kapitulu hau abenduaren 17ko 1/2024 Foru Dekretu-Arauak, 2024. urterako zenbait zerga neurri onesten dituenak, 6. artikuluko bigarren ordinaleko bi apartatuak gehitu du. (40. artikulutik 43.era arteko egungo edukia kapitulu berrian sartu da). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/19ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak.

[39] Apartatu hau, ekainaren 27ko 14/2017 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua eta, aurretiazko tributazio proposamen bereziei dagokienez, 2006ko abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2017-06-29ko GAO).. Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatuko da.

[40] Letra hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

d) Erreserben kargura banatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak. Sozietateari araubide berezi hau aplikatu ezin izan zaion ekitaldietakoak bereizi behar dira.

**2.** [41] Ekonomia intereseko taldeek euren bazkideei edo bazkide izateari dagozkion eskubideak dituzten pertsona edo entitateei jakinarazi beharko diete zer zenbateko oso egotziko diren eta bakoitzari aurreko apartatuko b) letran ezarritako kontzeptuak direla-eta zer zenbateko egotziko zaion ere bai, baldin eta zenbateko horiek egozgarriak badira zerga honen edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arabera.

Era berean, kapitalari egindako ekarpenen zenbatekoaren berri eman beharko diete bazkideei haien ekarpenak kontabilitate irizpideen arabera ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat jo behar badira.

**3.** Dibidenduek eta mozkinetako partaidetzek ez tributatzeko, zergaren foru arauaren 73. artikuluko 3. apartatuko lehenengo paragrafoan ezarritakoarekin bat, taldeek jarraian adieraziko den informazioa eman behar dute urteko kontuen memorian:

a) Araubide orokorrean tributatu zuten zergaldietako erreserbei aplikatutako mozkinak.

b) Araubide berezian tributatu zuten zergaldietako erreserbei aplikatutako mozkinak. Bereizi egin behar dituzte, alde batetik, egoitza Espainiako lurraldeko egoiliar diren bazkideei zegozkienak, eta, bestetik, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren bazkideei zegozkienak.

c) Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak erreserben kargura banatu badira, zein erreserba aplikatu den zehaztu behar dute, hau da, aurreko a) eta b) letretan aipatutako hiruretatik zein aplikatu den mozkin motaren arabera.

**4.** Aurreko apartatuan adierazten diren urteko memoriako aipamenak berdin-berdin egin behar dira, apartatu horretako b) letran aipatutako erreserbak dauden bitartean, nahiz eta entitateak araubide berezian tributatu ez.

**5.** Artikulu honetako 3. eta 4. apartatuetan ezarritako informazio betebeharrak berdin galdatuko zaizkie 3. apartatuko b) letran aipatutako erreserben titulartasuna duten ondorengo erakundeei ere.

**6.** Artikulu honetako aurreko apartatuetan ezarritakoak -aplikatu beharrekoa den heinean- zergaren foru arauaren VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide berezian dauden aldi baterako enpresa elkarteei ere eragingo die, zergaldiko azken egunean Espainiako lurraldeko egoiliar diren enpresa elkartekideei dagokienez.

## 40. bis artikulua. Muga jartzea ekonomia intereseko taldeetako bazkideei diru kopuruak egozteari. [42]

[41] Apartatu hau, ekainaren 27ko 14/2017 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua eta, aurretiazko tributazio proposamen bereziei dagokienez, 2006ko abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2017-06-29ko GAO).. Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatuko da.

[42] Artikulu hau, ekainaren 27ko 14/2017 Foru Dekretuaren artikulu bakarraren hiru apartatuak gehitu du. Aipatu foru dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua eta, aurretiazko tributazio proposamen bereziei dagokienez, 2006ko abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2017-06-29ko GAO).. Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatuko da.

**1.** Zergaren foru arauaren 73. artikuluaren 1. apartatuaren b) letran kontabilitate irizpideei jarraituz ezaugarri bereziko ondare tresnatzat hartu behar diren ekarpenak egiten dituzten ekonomia intereseko taldeetako bazkideentzat jarritako muga modu orokorrean aplikatuko zaio taldean duen partaidetza mantentzen duen zergaldien multzoari.

**2.** Zergaldi jakin batean, aurreko paragrafoan aipatutako mugaren ondorioz egozteko dauden diru kopuruak daudenean, kopuru horiek ondorengo zergaldietan egotzi ahal izango dira, nolanahi ere muga hori beteta.

### 40 ter artikulua. Errenta jakin batzuk lortzen dituzten arrisku-kapitaleko entitateek egin beharreko komunikazioak.[43]

1. Zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuaren d) letraren arabera Zerga Administrazioari egin behar zaion komunikazioa arrisku-kapitaleko entitateak aurkeztuko du finantza kontratuetatik datozen errentak lortzen dituenean eta horien ordainsaria diruzko zati batek eta gauzazko beste batek osatzen dutenean (azken hori entitate finantzatuaren akzio edo partaidetzak erosteko eskubide moduan eratua).

Komunikazio horri, non gutxienez alderdi kontratugileak identifikatu behar baitira, egindako finantzaketa eragiketa deskribatu, finantzaketa kontratutik eratorritako ordainsaria identifikatu (diruzko zatia eta gauzazkoa zatia bereiziz), eta kontratuaren iraupena zehaztu, dokumentazio hau erantsiko zaio:

— Arrisku-kapitaleko entitatearen eta entitate finantzatuaren artean sinatutako finantzaketa kontratua. Kontratu horretan, besteak beste, jaso beharko da ezen bai arrisku-kapitaleko entitateak eta bai entitate finantzatuak 10. apartatuan ezarritako zerga tratamenduaren aplikazioa aukeratzen dutela eta, hala badagokio, entitate finantzatuak uko egiten diola gastu fiskala aplikatzeari. Hala aukera hori nola aipatutako ukoa zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuaren d) letran aipatzen dira.

— Bi entitateen –finantzatzailearen eta finantzatuaren– erantzukizunpeko adierazpena, zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuan aurreikusitako beharkizunak betetzeari dagokionez.

2. Zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuaren azken paragrafoaren arabera, finantza kontratuetatik datozen errentak lortzeagatik eta horien ordainsaria diruzko zati batek eta gauzazko beste batek osatzeagatik (azken hori entitate finantzatuaren akzio edo partaidetzak erosteko eskubide moduan eratua) arrisku-kapitaleko entitateek Zerga Administrazioari aurkeztu behar dioten urteko komunikazioak zergaldian indarrean izandako kontratuen zerrenda jaso beharko du, eta haietako bakoitzerako datu hauek zehaztu:

— Formalizazioaren urtea.

— Entitate finantzatuaren identifikazioa.

— Zergaldiari dagokion ordainsariaren zenbatekoa, diruzko zatia eta gauzazkoa bereizita.

— Zergaren sortzapen egunean entitatean duen partaidetza portzentajea.

---

[43] Artikulu hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

Urteko komunikazioa hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, komunikazio horretan aipatzen den zergaldia amaitzen denetik zenbatzen hasita.

### 41. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidearen aplikazioa eta araubide horretara bildutako entitateen informazio betebeharrak.[44]

**1.** Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzea nahi dela.

Jakinarazpenean datu hauek jaso behar dira:

a) Talde fiskala osatzen duten entitateen identifikazioa.

Entitate nagusia ez bada egoiliarra lurralde espainiarrean, entitate hori ere identifikatu behar da eta, hala badagokio, eragiketen zenbateko handiena duen entitatea ere bai.

Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten entitateen establezimendu iraunkorrak izanez gero, establezimendu horiek lurralde espainiarretik kanpoko zein entitatetakoak diren ere identifikatu behar da.

b) Taldeko entitateek zerga baterakuntzaren araubidea aukeratzeko hartutako erabakien kopia, eta entitate nagusia ez-egoiliar bada lurralde espainiarrean, entitate ordezkaria izendatzen duen dokumentua.

c) Talde fiskala osatzen duten entitateetan entitate nagusiak zuzenean edo zeharka dituen partaidetza portzentajeak, haietan dagozkion boto eskubideen portzentajea, eta partaidetza horien eskurapen data.

Entitate ordezkariak adierazi behar du zergaren foru arauaren 85. artikuluan ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen direla.

**2.** Zerga Administrazioak entitate ordezkariari jakinarazi behar dio zer zenbaki eman zaion talde fiskalari.

**3.** artikulu honetan aipatutako komunikazioa eta talde fiskalaren osaerak izan dezakeen aldaketarena –zergaren foru arauaren 88. artikuluko 6. apartatuaren bigarren paragrafoan aipatua– Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen dituen tokian eta moduan aurkeztu behar dira.

### 42. artikulua. Aplikatzea bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak, aktibo nahiz pasibo osoaren lagapenak eta europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste estatu batera aldatzea arautzen dituen araubide berezia.

**1.** Zergaren foru arauaren VI. tituluko VII. kapituluan ezartzen den araubidea aplikatu ahal izateko, araubidea aplikatzeko aukera egin behar da, foru arau horretako 114. artikuluko 3. apartatuan ezartzen denarekin bat.

**2.** Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio aukera hori egin dela, artikulu honetan ezartzen den eran.

---

[44] Artikulu hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren Lehen ordinalaren Bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO)

**3.** Aukera hori jakinarazteko hiru hilabeteko epea dago, eragiketaren eskritura publikoa inskribatu den egunetik aurrera.

Inskripzioa ez bada beharrezkoa, epe hori eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egilesten den egunetik aurrera zenbatuko da, eta gainera, zergaren foru arauaren 114. artikuluko 3. apartatuan ezartzen denez, eskrituran nahitaez adierazi beharko da araubidea aplikatzeko aukera egin dela.

Helbide soziala aldatzeko eragiketetan, berriz, jakinarazpena egin behar da, eragiketa hori dokumentatzeko eskritura publikoa edo agiri baliokidea helbide sozial berria dagoen estatu kideko erregistroan inskribatu ondorengo hiru hilabeteetan egin ere.

**4.** Bat-egite edo zatiketa eragiketak direnean, aurreko apartatuan aipatzen den jakinarazpena entitate eskuratzaileak edo eskuratzaileek egin beharko dute.

Bat-egite edo zatitzetze eragiketak egiten badira, baina entitate eskuratzailearen eta entitate eskualdatzailearen egoitza fiskala ez badago Espainian eta eragiketa horietan ez bada aplikatu behar zergaren foru arauaren 102. artikuluan ezartzen den araubidea, entitate eskualdatzaileak herrialde horretan establezimendu iraunkorrik ez izateagatik, bada, orduan, eragindako bazkide egoiliarrak aukeratuko du araubide berezia aplikatzea. Izan ere, aukera hori egiteko, hala adierazi behar du zerga hau edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga autolikidatzeko ereduan.

**5.** Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean eta aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean, entitate eskuratzaileari edo eskuratzaileei dagokie jakinarazpena aurkeztea.

Entitate horien egoitza fiskala ez dagoenean Espainian eta herrialde horretan establezimendu iraunkor baten bidez aritzen ez direnean, pertsona edo entitate eskualdatzaileak izango du jakinarazteko betebeharra.

**6.** Baloreak trukatzen direnean, entitate eskuratzaileak aurkeztu behar du jakinarazpena.

Baloreak eskuratzen dituen entitatea eta baloreak trukatzen dituen entitate partaidetua ez badira Espainian egoiliarrak, eragindako bazkide egoiliarrak aukeratuko du araubide berezia aplikatzea. Izan ere, aukera hori egiteko, zerga hau edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga autolikidatzeko ereduan dagokion laukian hala adierazi behar du.

**7.** Helbide soziala aldatzeko eragiketetan, sozietateak berak aurkeztu behar du jakinarazpena.

**8.** Jakinarazpen horretan, eragiketan parte hartzen duten entitateen identifikazio datuak adierazi behar dira, eta eragiketa bera ere deskribatu behar da. Behar denean, jakinarazpenari honako dokumentazio hau erantsi behar zaio:

a) Bat-egite edo zatiketa kasuetan, Merkataritza Erregistroan bat-egiteari edo zatiketari buruz inskribatutako eskritura publikoaren kopia, eta, era berean, merkataritza arauei jarraituz eskritura erregistroan inskribatzeko hari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Inskripzioa ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren kopia aurkeztu behar da. Gainera, zergaren foru arauaren 114. artikuluko 3. apartatuan ezartzen denez, eskrituran nahitaez adierazi beharko da araubidea aplikatzeko aukera egin dela.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean eta aktibo nahiz pasibo osoa lagatzen denean edo baloreak trukatzen direnean, kapital soziala eratu edo

zabaldu izanaren eskritura publikoaren kopia, eta merkataritza arauei jarraituz eskriturari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Kapital soziala eratu edo zabaltzeko eskritura ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskrituraren kopia aurkeztuko da.

c) Aurreko eragiketak akzioak erosteko eskaintza publiko baten bidez burutu badira, eskaintza horri dagokion informazio liburuxkaren kopia ere aurkeztu beharko da.

d) Helbide soziala aldatzeko eragiketetan, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren edo agiri baliokidearen kopia aurkeztuko da, bai eta aldaketa hori egoitza aldatuko den estatu kideko erregistroan inskribatzeko derrigorrezkoak diren beste agirien kopia ere.

**9.** Zergaren foru arauaren 107. artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako kasuetan, entitate eskuratzaileak jarraian adieraziko den informazioa aurkeztu behar du, eskurapen balioaren eta ondare garbiaren arteko diferentziaren zatia zerga oinarrian ez sartzeari buruz xedapen horretan ezartzen dena aplikatzen duen ekitaldietako zerga honen autolikidazioarekin batera. Hona hemen informazio hori:

a) Entitate eskualdatzailearen identifikazioa, eta horren gaineko partaidetza portzentajearena.

b) Entitate eskualdatzailearen partaidetzen eskurapen balioa eta data, bai eta partaidetza horiei dagokien funts propioen balioa ere, urteko kontu homogeneizatuen bidez zehaztuta.

c) Partaidetzen eskuraketa prezioaren eta partaidetza horiei entitatea desegin zen datan funts propioetan zegokien balioaren arteko diferentzia badago, horri dagokionez justifikatu egin behar da zer irizpide erabiliko diren, batetik, diferentzia horren balioespena eta denbora homogeneizaziorako, eta, bestetik, diferentzia hori entitate eskualdatzailearen ondasun eta eskubideei egozteko.

**10.** Artikulu honetan aipatutako komunikazioa Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak erabakitzen dituen tokian eta moduan aurkeztu behar da.

### 43. artikulua. Higiezinen errentamendu jarduera kualifikatua egiten duten entitateen araubide bereziaren aplikazioa.[45]

**1.** Higiezinen errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateen araubide berezia aplikatzea aukeratu nahi bada, Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio.

**2.** Jakinarazpen horretan zehaztu behar da aktiboko zer elementu afektatzen diren higiezinen errentamenduaren arloko jarduerara, eta datu esanguratsu guztiak jaso behar dira, araubide berezia aplikatzeko betekizunak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.

Zergaren foru arauaren 115. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren entitateen kasuan, aurreko datuez gainera, zehaztu behar da entitateak badituela araubide berezia aplikatu ahal izateko exijitzen diren langileak, eta bakoitzak betetzen

---

[45] Artikulu honen errubrika abenduaren 23ko 27/2025 FORU DEKRETUAren 2. artikuluaren lehenengo ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2025-12-30ko GAO), eta 2025eko urtarrilaren 1 etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

dituen eginkizunak eta entitatearekin lotzen dituen harremana espezifikatu behar dira.

Zergaren foru arauaren 115. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren entitateen kasuan, higiezinak zehaztu behar dira eta adierazi behar da zein den haien azalera eraikia, metro koadrotan, eta zer proportzio betetzen duten etxebizitzekin batera errentan ematen diren eraikin bereko garaje plaza eta eranskinek.

**3.**[46] Zergaren foru arauaren 115. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa berdin aplikatuko zaie etxebizitzen edo haien gaineko gozamen eskubide errealen titular diren zergadunek egindako errentamendu edo lagapenei, programa hauen esparruan egindakoak badira:

a) Eusko Jaurlaritzaren programak, horien esparrua izanik abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez arautukako «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa, «ASAP» Merkatu Libreko Etxebizitzen Alokairurako Bitartekaritza Programa (Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuaren bidez arautua), edo autonomia erkidegoan, foru lurraldean edo udaletan abian jarritako antzeko beste plan edo programa batzuk.

b) Gipuzkoako udalek tokiko talentua itzularazteko onetsitako programak, itzuleraren unean aldi baterako etxebizitza bat eskura jartzea xede dutenak.

# V. TITULUA
# ZERGAREN KUDEAKETA

## I. KAPITULUA. Eskabideak izapidetu eta onesteko prozedura orokorra

### 44. artikulua. Eskabideak izapidetu eta onesteko prozedura orokorra.

**1.** Eskabidean, eskaeraren xede den gaiarekin lotura zuzena duten datu guztiak jaso behar dira.

**2.** Eskabidea kasu bakoitzean ezarritako epearen barruan aurkeztuko da, edo, eperik ez badago, onetsitako irizpideek ondorioak sortu behar dituzten eragiketak egin ondorengo hiru hilabeteetan.

Zergadunak eskubidea du berak egindako eskabidea uko egiteko.

**3.** Zerga Administrazioak beharrezko diren datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatu ahal izango dizkio zergadunari. Sei hilabeteko epea izango du ebazpena jakinarazteko. Epe hori eskabidea Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroan sarrera eman zaion edo eskatutako informazio gehigarria jasotzen den egunean hasiko da zenbatzen.

Zergadunak entzunaldiaren izapidearen aurreko prozeduraren edozein unetan aurkeztu ahal izango ditu berak egoki iritzitako alegazio, agiri eta frogagiriak.

**4.** Prozedura instruituta, eta ebazpen proposamena idatzi aurre-aurretik, espedientea zergadunari azalduko zaio. Zergadunak hamabost eguneko epea izango du berak egoki iritzitako alegazio, agiri eta frogagiriak aurkezteko.

---

[46] Apartatu hau abenduaren 23ko 27/2025 FORU DEKRETUAren 2. artikuluaren lehenengo ordinalaren hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2025-12-30ko GAO), eta 2025eko urtarrilaren 1 etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango, baldin eta prozeduran jasota dauden eta kontuan hartzen diren egitate bakarrak horiek badira eta alegazio eta froga bakarrak zergadunak adierazitakoak badira.

**5.** Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak hauetako bat egin dezake:

Zergadunak Zerga Administrazioari eskatzen badio berak proposatutako plan, irizpide edo kenkari-aplikazio bat onesteko, Zerga Administrazioak hau ebatz dezake:

a) Zergadunak hasieran proposatutako plana, irizpidea edo kenkari aplikazioa onestea.

b) Zergadunak prozeduraren barruan proposatutako plan, irizpide edo kenkari-aplikazio bat onestea.

c) Zergadunak proposatutako plana, irizpidea edo kenkari-aplikazioa ezestea.

**6.** Aurreko 3. apartatuan aipatzen den epea igaro bada, onetsitzat hartuko da zergadunak egindako eskabidea.

**7.** Artikulu honetan ezarritakoa orokorrean aplikatuko da. Hala ere, kontuan hartuko dira erregelamendu honetan arlo bakoitzerako ezarritako berezitasunak.

## II. KAPITULUA. Entitateen indizea.

### 45. artikulua. Entitateen indizea.

Zergaren foru arauaren 119. artikuluan aipatzen den entitateen indizea Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan ezartzen direnaren arabera aurkeztu beharreko zentsu aitorpenetan jasotako datuekin osatuko da (erregelamendu hori 2013ko abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Entitateen indizeko alta, aldaketa edo baja erregelamendu horretan ezarritako prozedurekin bat egingo da.

### 46. artikulua. Entitateen indizean alta berritzea eta bazterreko oharra deuseztatzea.

Entitateen indizean behin-behineko baja ematea erabaki bada zergaren foru arauak 120. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, eta dagokion erregistro publikoan orri bazterreko oharra egin bada, Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuko buruak erabakiko du indize horretan alta ematea eta aginduko du bazterreko oharra deuseztatzea, entitate interesdunak hala eskatuta. Horretarako, ezinbestekoa da entitateak egunean izatea bere zerga betebehar guztiak.

Entitate hori konkurtsoan sartzen bada, ez da ezinbestekoa izango konkurtsoen legeriari jarraituz derrigorrez betetzekoak ez diren zerga betebeharrak betetzea.

### 47. artikulua. Lankidetzan jarduteko betebeharra.

Zergaren foru arauaren 121. artikuluan jasotakoaren arabera Gipuzkoako lurralde historikoko erregistro publikoen titularrek hilero Ogasun eta Finantza Departamentuari bidali behar dizkioten entitate zerrenda Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak ezartzen dituen tokian, moduan eta ereduan aurkeztu behar da. Foru diputatuak erabaki ahal izango du zer baldintzatan behartu daitekeen zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarri baten bidez aurkeztea.

## 48. artikulua. Ofiziozko itzulketa.

Zergaren foru arauaren 12. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen diren entitate partzialki salbuetsiek autolikidazioa aurkeztu behar dute foru arau horretako 129. artikuluan jasotako itzulketa lortzeko, nahiz eta behartuta ez egon foru arau horretako 126. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan jasotakoari jarraituz hura aurkeztera.

# III. KAPITULUA. Konturako ordainketak

## 49. artikulua. Atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errentak.

**1.** Honako hauen gaineko atxikipena egin behar zaio jasotzaileari, sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa gisa:

a) Edozein entitate motaren funts propioetan parte hartzeagatik eta hirugarren batzuei kapital propioak lagatzeagatik datozen errentak eta Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 36. eta 37. artikuluetan aipatuta dauden gainerako errentak.

b) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzearen ondorioz ematen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu zehatz batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egon ala ez.

c) Beste sozietate batzuetako administratzaile edo aholkulari karguen ondorioz lortutako kontraprestazioak.

d) Irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatzetik edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozen errentak, ekonomi ustiapenetatik datozen sarrerak izanik ere.

e) Hiri higiezinen errentamendutik edo azpierrentamendutik datozen errentak, ekonomia ustiapenetatik datozen sarrerak izanik ere.

f) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errentak.

**2.** Kontratu berean, zerbitzu prestazioez edo ondasun higiezinen lagapenaz gainera Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 37. artikuluan sartuta dauden ondasun eta eskubidetako batzuk lagatzen badira, zenbateko osoaren gainean egin beharko da atxikipena.

Kontratu berean, landa finken errentamendu, azpierrentamendu edo lagapenaz gainera beste ondasun higigarri batzuena ere sartzen bada, ez da atxikipenik egingo. Hala ere, atxikipena egingo da errenta eman edo lagatzen dena negozioa edo meatzea bada.

**3.** Jasotzaileari dagokion sozietateen gaineko zergaren konturako sarrera egin beharko da aurreko apartatuetako errentak direla eta, haiek gauza bidez ordaindu edo abonatzen direnean.

**4.** Atxikipenak eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu beharko dira, 2014ko urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 91. artikuluan horretarako ezarritako irizpideen arabera.

## 50. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharraren salbuespenak.

Ez da atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar honako hauek direla eta:

1) Diru merkatuan esku hartzeko tresna erregulatzaile diren eta Espainiako Bankuak jaulki dituen baloreen etekinak nahiz Altxorreko Letren etekinak.

Guztiarekin ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek beren bezeroekin Altxorreko Letren eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituztenean, behartuta egongo dira atxikipena egitera kontu horien titularrek lortutako etekinengatik.

2) Estatuak kreditu ofizialari emandako maileguen kontraprestazio bezala Altxorraren aldeko eskubidea osatzen duten interesak.

3) Espainiako Bankuko erregistro berezietan inskribatuta dauden eta egoitza Espainiako lurraldean duten kreditu entitateen eta kredituko establezimendu finantzarioetan sarrera diren maileguen komisioak eta interesak.

Aurreko salbuespena ez zaie aplikatuko obligazioen, bonuen edo nazioko edo atzerriko entitate publikoek eta pribatuek jaulkitako beste titulu batzuen interes eta etekinei, baldin eta obligazio, bonu edo titulu horiek aipatutako entitateen balore zorroa osatzen badute.

4) Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateak kapitalaren gehiengoa duen sozietateekin egiten dituen mailegu, kreditu edo aurrerakin eragiketa aktibo eta pasiboen interesak. Salbuespen hori ezin da zabaldu zedulen, obligazioen, bonuen eta antzeko tituluen interesetara.

5)[47] Balore sozietateek jasotako interesak, Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 126. artikuluko b) letran aipatutako baloreen salerosketa eragiketekin lotuta emandako kreditu edo maileguen ondorio direnean, bai eta inbertsio zerbitzuetako enpresek jasotako interesak ere Inbertsio zerbitzuetako enpresen eta inbertsio zerbitzuak ematen dituzten gainerako entitateen araubide juridikoari buruzko azaroaren 8ko 813/2023 Errege Dekretuaren 70. artikuluko 1. apartatuan aipatutako mailegu edo gordailuen eragiketa aktiboei dagokienez.

Era berean, ez da atxikipenik egin beharko kontrapartida zentraleko entitateek eta kontrapartida zentraleko entitate bateko kide diren entitateek jasotako interesen gainean, baldin eta Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 97.2 artikuluan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012/EB Erregelamenduaren 41. eta 42. artikuluetan (burtsatik kanpoko eratorriak, kontrapartida zentraleko entitateak eta eragiketen erregistroak arautzen ditu) eta kontrapartida zentraleko entitatearen beraren erregelamenduan eta hura garatzeko zirkularretan aurreikusitakoa aplikatuz eratutako bermeen kontraprestazio gisa jasotzen badituzte.

Orobat, ez da atxikipenik egin beharrik izango Baloreak ordaintzeko eta kitatzeko sistemei buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legearen arabera aitortutako ordainketa sistemen kudeaketa entitateek jasotako interesei dagokienez, ez eta sistema horietan partaide diren entitateek jasotako interesei dagokienez ere, baldin eta lege horren 2. artikuluko d) letran aurreikusitakoa aplikatuz eratutako bermeetatik badatoz, edo dagokion ordainketa sistemaren berezko eragiketak egitearen ondorio hutsa badira.

6) Obligazioak akzio bihurtzeko primak.

---

[47] Zenbaki hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 2. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

7) Akzio edo partaidetzen jaulkipen prima banatzetik datozen errentak.

8) Egoitza Espainian duen sozietate nagusi batek egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan duten bere sozietate filialetatik jasotako mozkinak, erregelamendu honetako 51. artikuluaren 2. apartatuan ezarritako atxikipenari dagokionez, baldin eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 14. artikuluko 1. aparatuko g) letran ezarritako betekizunak betetzen badira.

9) Landa higiezinen errentamendutik edo azpierrentamendutik datozen etekinak, kasu hauetan:

a) Etxebizitza enpresek beren enplegatuentzat alokatzen duenean.

b) Errentariak errentatzaile berari ordaindutako errentak urteko 900 euro baino gehiago ez izatea.

c) Errentatzailearen jarduera 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugileak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duenak, jasotako tarifen lehen sekzioaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigraferen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrentan ematen diren ondasun higiezinen balio katastralari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko arauak aplikatuta zero kuota ateratzen ez denean.

Ondorio horietarako, errentatzaileak betekizun hori bete duela frogatu beharko dio errentariari, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen duenaren arabera.

d) Etekinak zergaren foru arauaren 18. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren finantza errentamenduko kontratuen ondoriozkoak izatea, kontratuon xedea hiri ondasun higiezinak badira.

10) Espainiako edo Europako ekonomia intereseko talde baten eta beraren bazkideen artean exiji daitezkeen etekinak eta aldi baterako enpresa elkarte baten eta beraren enpresa kideen artean exiji daitezkeenak.

11) Hipoteka partaidetzen, maileguen eta titulizazioko funtsen sarrera osatzen duten beste eskubide batzuen etekinak.

12) Egoitza Espainian duten finantza establezimendu eta kreditu etxeen atzerriko establezimendu iraunkorrek ordaindu edo abonatutako kanpoko kontuen etekinak.

13) Espainiak izenpetutako nazioarteko tratatu batean xedatutakoari jarraiki zerga honetan salbuetsita dauden entitateei ordaindutako etekinak.

14) Zergaren foru arauaren VI. tituluko VI. kapituluan arautatako baterakuntza fiskalaren araubide berezian tributatzen duen talde bateko sozietateek elkarri ordaintzen dizkioten dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, interesak eta gainerako etekinak.

15) Espainiako eta Europako ekonomia intereseko taldeek eta aldi baterako enpresa elkarteek ematen dituzten dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, zergaren arau orokorren arabera tributatu behar dutenak izan ezik, baldin eta dibidendu edo mozkinetako partaidetza horiek zerga oinarriaren egozpena jasan behar duten bazkideei badagozkie eta entitatea zergaren foru arauaren VI. tituluko III. kapituluko araubide berezian egon den zergaldietan sortu badira.

16) Zergaren foru arauaren 12. artikuluko 1. apartatuan aipatutako entitate salbuetsiek lortutako errentak, bai eta sozietateen gaineko zergari buruz Euskal

Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetan, Nafarroako Foru Komunitatean eta araubide erkideko lurraldean indarrean dauden artikulu baliokideetan aipatzen diren entitate salbuetsiek lortutakoak ere.

Entitate batek zuzenbidean onartutako frogabideetako edozein erabil dezake entitate salbuetsia dela egiaztatzeko. Zerga Administrazioak ezarri ahal izango ditu entitate bat salbuetsitzat jotzeko bideak eta modua.

Zenbaki honetan aipatzen diren entitate salbuetsiek Estatuaren Zor Publikoko tituluen ondorioz jasotako etekinak direla-eta atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharretik salbuesteko prozedura ere ezarri ahal izango da.

17) Zergaren foru arauaren 33. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, bai eta aseguru orokorren mutuek, gizarte aurreikuspeneko entitateek, elkarrekiko berme sozietateek edo elkarteek banatutakoak.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, entitate jasotzaileak atxikipena egin behar duen entitateari jakinarazi beharko dio ea artikulu horretan ezarritako betekizunak betetzen diren. Jakinarazpen horretan sartuko dira, jasotzailearen identifikazio datuez gain, betekizun horiek betetzen direla justifikatzeko agiriak.

18) Zerga honen zergadunek lortutako errentak, aktibo finantzarioetatik datozenak, baldin eta honako betekizunok betetzen badituzte:

a) Kontuko idatzoharren bitartez adierazita egotea.

b) Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofizial batean negoziatzea.

Hala ere, baldin eta kreditu etxeek eta gainerako finantza entitateek beren bezeroekin aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, kreditu etxe eta gainerako finantza entitateok atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.

Zenbaki honetan sartuta dauden baloreen interesak ordaintzen dituzten edo balore horien eskualdaketa, amortizazio edo itzulketan esku hartzen duten finantza entitateek kalkulatu behar dute balorearen titularrari egotzi beharreko etekina, eta haren berri eman behar diete bai titularrari bai Zerga Administrazioari. Era berean, lehenago zerrendatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsonei buruzko datuak emango zaizkio Zerga Administrazioari.

Halaber, Zerga Administrazioak bitartekotza eta informazio betebeharrak ezarriko ditu, printzipalaren eta kupoien negoziazio bereizia baimendu zaien Zor Publikoko baloreen bereizketa, eskualdaketa, berreraketa, itzulketa edo amortizazioa direla eta. Kasu horietan, idatzoharren bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzaileek titularrari egotzi beharreko etekina kalkulatu beharko dute, eta horren berri eman beharko diete bai titularrari bai Zerga Administrazioari. Administrazio horri, gainera, balore horien gaineko eragiketetan esku hartzen duten pertsonei buruzko informazioa eman beharko diote.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio zenbaki honetan arautu den atxikipenerako salbuespena betearazteko prozedura ezartzeko.

[48]19) Aurreko artikuluaren 1. apartatuko b) letran aipatzen diren sariak, haien atxikipen oinarria 300,51 eurotik gorakoa ez denean.

---

[48] Zenbaki hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari

20) Zerga honen zergadunek Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeetako administrazio publikoek jaulkitako zorretik eta herrialde horietako merkatu arautuetan negoziatutako aktibo finantzarioetatik lortzen dituzten errentak.

Hala ere, kreditu etxeek eta gainerako finantza entitateek beren bezeroekin aurreko paragrafoan aipatuta dauden aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, kreditu etxe eta gainerako finantza entitateok atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.

Zenbaki honetan sartuta dauden baloreen interesak ordaintzen dituzten edo balore horien eskualdaketa, amortizazio edo itzulketan esku hartzen duten finantza entitateek kalkulatu behar dute balorearen titularrari egotzi beharreko etekina, eta haren berri eman behar diete bai titularrari bai Zerga Administrazioari; gainera, azken horri lehenago zerrendatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsonei edo entitateei buruzko datuak emango dizkiote.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio zenbaki honetan arautu den atxikipenerako salbuespena betearazteko prozedura ezartzeko.

21) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzio zein partaidetzak eskualdatu edo itzultzetik datozen errentak, honako hauek lortzen dituztenean:

a) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen bidez araututako inbertsio funts finantzarioek eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, baldin eta funts eta sozietateon kudeaketa erregelamenduetan edo estatutuetan ezarrita badago beren ondarearen 100eko 50, gutxienez, inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuen akzioetan edo partaidetzetan inbertitu behar dutela. Erakunde horiek Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduko 48. artikuluko 1. apartatuko c) eta d) letretan zehaztutakoak izan behar dute (erregelamendua 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen).

b) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen bidez araututako inbertsio funts finantzarioek eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, baldin eta funts eta sozietateon kudeaketa erregelamenduetan edo estatutuetan ezarrita badago beren ondarearen 100eko 85, gutxienez, inbertsio funts finantzario bakar batean inbertitu behar dutela. Inbertsio funts finantzario bakar horrek Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduko 3. artikuluko 3. apartatuko lehen tartekian arautzen diren inbertsio funts finantzarioetako bat izan behar du (erregelamendua 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen). Inbertsio politika hori inbertsio funtsaren edo sozietatearen konpartimentu bati badagokio, atxikipena eta konturako sarrera egiteko salbuespena –zenbaki honetan aurreikusten dena– bakarrik aplikatuko zaie erakundearen ondaretik konpartimentu horri dagokion zatia osatzen duten inbertsioei.

Atxikipena egiteko obligaziotik 21. zenbaki honetan ezarritakoaren arabera salbuesteko, ezinbestekoa da inbertsioa egiten duen erakundea a) eta b) letretan adierazitako inbertsio motetarako Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak ezarritako kategoriakoa izatea. Kategoria hori erakundearen informazio liburuxkan jaso behar da.

---

Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

22)[49] Aseguru entitateek pentsio planak aseguratzearren pentsio funtsei ordaintzen dizkieten zenbatekoak.

Orobat, ez da atxikipena egiteko betebeharrik egongo pentsio funts edo pentsio plan inbertsiogileetako partaidetzak itzuli edo mobilizatzeagatik pentsio funts irekiek ordaindutako kopuruei dagokienez, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginean eta haren garapenezko arauetan ezarritakoaren arabera (testu bategin hori azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

23) Bizitza aseguruen hornidurak aktiboetan inbertituta egonez gero aktibo horiek aldatzean lortzen diren errentak, aseguru hartzaileak bere gain hartzen badu inbertsioaren arriskua.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, aktiboak eskualdatu edo itzultzen direnean, aseguru entitateek atxikipena egitera behartuta dauden entitateei jakinarazi behar diete aseguru kontratuan hartzaileak bere gain hartu duela inbertsioaren arriskua eta Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 57. artikuluko 2. apartatuko h) letran ezarritako betekizunak betetzen direla. Atxikipena egin behar duen entitateak gorde egin behar du jakinarazpen hori, behar bezala sinatuta.

24) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak aseguru entitateak likidatzeko eginkizunak betez nahiz erakundeon konkurtso prozeduretan zehar lortzen dituen errentak, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Lege Estatutuaren testu bategineko 24. artikuluko 1. apartatuko hirugarren paragafoan ezarritakoarekin bat (testu hori 2004ko urriaren 29ko 7/2004 Errege Dekretu Legegilearen bidez onetsi zen).

25) Plan finantzario baten xede izan den aseguru kolektiboko kontratu batean bideratuta dauden pentsioengatiko konpromisoak aldatzeagatik enpresa hartzaileetan agerian jartzen diren errentak, harik eta plan hori guztiz bete arte, Enpresek pentsioak direla-eta langileekin eta onuradunekin hartutako konpromisoak bideratzeari buruzko Erregelamenduko 36. artikuluko 5. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat (erregelamendu hori 1999ko urriaren 29ko 1.588/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

26)[50] Partaidetzak edo akzioak itzuli edo eskualdatzeagatik lortutako errentak, akzio edo partaidetzak inbertsio kolektiboko erakunde hauek jaulki dituztenean:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduak, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 79. artikuluan arautzen dituen funts kotizatuak eta kapital aldakorreko inbertsio indize sozietate kotizatuak.

b) Atzerrian eratutako inbertsio kolektiboko erakundeak, aurreko 1. zenbakian aipatutakoen parekoak baina zergaren foru arauaren 81. artikuluan aurreikusitakoak ez bezalakoak, merkatu arautu batean nahiz negoziazio sistema aldeaniztun batean kotizatzen dutenak, edozein dela ere erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziatzat hartzen duten indizearen osaera, baldin eta,

[49] Zenbaki hau uztailaren 24ko 22/2018 Foru Dekretuaren 2 artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/07/27 GAO), eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

[50] 26. zenbaki hau, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 7. artikuluaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2023-12-18ko GAO).

gainera, itzulketa edo eskualdaketa ez bada egiten jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotzen den herrialde edo lurralde batean kokatutako merkatu batean.

27)[51] Kontrapartida zentraleko entitateek urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 82. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoa aplikatuz egindako balore maileguengatik jasotzen dituzten ordainsariak eta eskubide ekonomikoen konpentsazioak (878/2015 Errege Dekretua, urriaren 2koa, kontuko idatzohar bidez adierazitako balore negoziagarrien konpentsazio, likidazio eta erregistroari buruzkoa, baloreen gordailuzain zentralen eta kontrapartida zentraleko erakundeen araubide juridikoari buruzkoa, eta bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako baloreen jaulkitzaileen gardentasun-eskakizunei buruzkoa).

Era berean, kontrapartida zentraleko entitateek ez dute atxikipena egiteko betebeharrik izango, aurreko paragrafoan aipaturiko baloreen mailegu-eragiketak direla-eta ordaintzen dituzten ordainsariei eta eskubide ekonomikoen konpentsazioei dagokienez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du kentzen errenta horiei bidezko atxikipena aplikatzea errenta horien onuradunaren zerga pertsonalaren araudiari jarraituz. Gainera, atxikipena egin behar bada, ordainketan bitartekari den entitateak egin beharko du, eta, ondorio horietarako, ez da ulertuko ordainketa bitartekaritza soil bat egiten duenik.

28) Zenbatekoa dela-eta Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian jasotako karga berezitik salbuetsita dauden loteria eta apustuen sariak.

## 51. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egitera behartuta dauden subjektuak.

**1.** Erregelamendu honetako 49. artikuluan ezarrita dauden errentak ordaintzen edo abonatzen dituztenek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute; hain zuzen ere, hauek egin beharko dute:

a) Pertsona juridikoak eta gainerako entitateak, ondasun erkidegoak, jabeen erkidegoak eta errenta esleipenaren araubidean dauden entitateak barne.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak egiten badituzte eta jarduera horietan aritzeagatik errentak ordaintzen badituzte.

c) Egoitza Espainian ez duten pertsona fisiko, juridiko eta gainerako entitateak, Espainian establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten badute.

**2.** Ez da ulertuko pertsona edo entitate batek errenta bat ordaindu edo abonatzen duela baldin eta pertsona edo entitate horrek ordainketan bitartekaritza hutsa egiten badu, hots, ordainketa hori hirugarren baten kontura eta hark aginduta egiten badu. Hala ere, kasu honetan bai ulertuko da pertsona edo entitate horrek errenta ordaindu edo abonatzen duela: pertsona edo entitate hori Espainiako egoiliar direnen atzerriko baloreen gordailu entitatea bada, edo pertsona edo entitate horrek bere kargura badu balore horien errenten kobrantzaren

[51] Zenbaki hau uztailaren 24ko 22/2018 Foru Dekretuaren 2 artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/07/27 GAO), eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

kudeaketa. Gordailu entitateek atxikipena egin beharko dute, baldin eta errenta horiek Espainian aurretik atxikipenik jasan ez badute.

**3.** Sarien kasuan, sariok ordaintzen dituen pertsona edo entitateak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.

**4.** Aktibo finantzarioei buruzko eragiketetan, honako hauek daude atxikitzera behartuta:

a) Aktibo finantzarioen amortizazio edo itzulketan lortutako etekinetan: pertsona edo entitate jaulkitzailea. Hala ere, eragiketa horiek egitea finantza entitate bati aginduz gero, eragiketaz arduratzen den finantza entitateak egin beharko du atxikipena.

Jaulki ondoren aktibo finantzario bilakatu diren igorpen tresnen kasuan, aktibo horiek beren epemugan kobratzeko aurkeztuko dituen fede emaile publikoak edo finantza entitateak egin beharko du atxikipena.

b) Aktibo finantzarioen eskualdaketan lortutako etekinen kasuan (aurreko letran aipatzen diren igorpen tresnenak barne), eskualdaketa finantza entitate baten edo gehiagoren bitartez bideratzen bada: eskualdatzailearen kontura ari den bankua, kutxa edo finantza entitatea.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da eskualdatzailearengandik aktibo finantzarioak saltzeko agindua jasotzen duen banku, aurrezki kutxa edo finantza entitatea diharduela haren izenean.

c) Aurreko letretan jasotzen ez diren kasuetan, eragiketan nahitaez parte hartu behar duen fede emaile publikoa.

**5.** Estatuaren Zorreko baloreak eskualdatzen direnean, eragiketa horretan parte hartzen duen idatzoharren bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzaileak egin behar du atxikipena.

**6.** Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarea ordezkatzen duten akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean, honako pertsona edo entitate hauek egongo dira behartuta atxikipena edo konturako sarrera egitera:

1.ª Inbertsio funtsetako partaidetzen itzulketa egiten denean, sozietate kudeatzaileek egin behar dute, salbu entitate merkaturatzaileen izenean eta partaideen kontura erregistratutako partaidetzen kasuan; izan ere, kasu horretan, entitate merkaturatzaileek eurek egin beharko dute atxikipena edo konturako sarrera.

2.ª Kapital aldakorreko inbertsio sozietate baten akzioak ez badute kotizatzen burtsan edo baloreak negoziatzeko bestelako merkatu edo sistema antolatu batean eta sozietate horrek berrerosi egiten baditu zergadunak zuzenean edo merkaturatzaile baten bidez berari eskuratutako akzioak, sozietateak berak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera. Alabaina, sozietate kudeatzaile batek esku hartzen badu, horrexek egingo du atxikipena edo konturako sarrera.

3.ª Atzerrian helbideratutako inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, entitate merkaturatzaileek edo erakundeon akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko ahaldundutako bitartekariek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera, itzulketa egiten dutenean, edo, modu subsidiarioan, baloreak harpidedun potentzialen artean merkaturatzeko edo banatzeko ardura duten entitateek.

4.ª Zerbitzuak emateko askatasunez diharduten kudeatzaileen kasuan, Hainbat zerga neurriri buruzko apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera izendatutako ordezkariak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.

5.ª Aurreko zenbakietan ezarritakoarekin bat etorriz atxikipenik egin behar ez den kasuetan, konturako ordainketa egin beharko du eskualdaketa egin edo itzulketa lortzen duen bazkideak edo partaideak. Konturako ordainketa hori erregelamendu honetako 53. artikuluko 4. apartatuko lehenengo paragrafoan, 54. artikuluko 3. apartatuan eta 55. artikuluko d) letran ezarritako arauekin bat egin behar da.

**7.**[52] Zerbitzu prestazio librean jarduten duten Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batean helbideratuta dauden aseguru entitateek Espainian egindako eragiketetan, atxikipena edo konturako sarrera egiteko obligazioa aseguru entitate berak izango du.

**8.** Atxikitzera behartuta dauden subjektuek diru Gipuzkoako Foru Aldundian egiteko betebeharra onartuko dute; eta lehenengoa bete gabe izan arren, bigarrena berdin bete beharko dute.

Etekina ordaintzen duen erakundea Foru Aldundia denean, etekin horri dagozkion atxikipena eta diru sarrera zuzenean egingo dira.

### 52. artikulua. Aktibo finantzarioen kalifikazioa eta horiek eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko betekizun fiskalak.

**1.** Etekina jarraian adieraziko diren zenbateko bien arteko diferentzia eginez zehazten duten aktibo finantzarioak hartuko dira etekin inplizituko finantza-aktibotzat. Zenbateko horiek biak hauek dira: batetik, jaulkipenean, lehen aldiz merkaturatzean edo endosuan ordaindutako zenbatekoa; bestetik, etekina, osorik edo zati batean, besteren errekurtsoak erakartzeko erabiltzen diren edozein balore higigarriren bidez zehazten duten eragiketek mugaeguneratzean itzultzeko konprometitutako zenbatekoa.

Jaulkipen, amortizazio eta itzulketa primak etekin inplizituen barruan sartuko dira.

Aldiz, ez dira etekin inplizituak izango aktibo finantzarioak merkaturatzeko hobariak edo primak, jaulkipen prezioaren gainekoak, baldin eta halakoak ematea merkatuko jardunbideen barruan sartzen bada eta prima edo hobariok, osorik, sarrera badira xedapen honetan araututako aktibo finantzarioak jaulki eta zirkulazioan jartzen jarduten duen bitarteko, bitartekari edo merkaturatzaile finantzarioarentzat.

Etekin inplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira edozein igorpen tresnatatik datozen etekinak, merkataritzako eragiketek sortutakoak barne, tresna hori endosatzen edo eskualdatzen den unetik aurrera, non eta endosua edo lagapena ez den gauzatzen hornitzaileen kreditu baten ordainketa gisa.

**2.** Etekin esplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira interesak edo kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ordainez itundutako beste edozein ordainsari sortzen dituztenak, baldin eta sortzen den kontraprestazioa ez bada sartzen aurreko zenbakian definitutako etekin inplizituen kontzeptuaren barruan.

**3.** Etekin mistoko aktibo kasuan etekin esplizituko aktibo finantzarioen araubidea aplikatuko da, baldin eta urtean sortzen den izaera horretako eskudirua jaulkipenaren unean indarrean zegoen erreferentzia tasaren berdina edo hura baino handiagoa bada, nahiz eta jaulkipen, amortizazio edo itzulketa baldintzetan

---

[52] Apartatu hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren Bigarren ordinalaak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).

era inplizituan beste etekin gehigarriren bat finkatu. Erreferentzia tasa hori honako hau izango da hiruhileko natural bakoitzean: aurreko hiruhilekoan Estatuaren bonoekin egindako azken enkantean ateratako batez besteko prezio haztatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren 100eko 80. Horretarako, lau urteko edo hortik beherako epea duten aktibo finantzarioak badira, hiru urterako bonoen enkanteko prezioa hartuko da; lau eta zazpi urte bitarteko epea duten aktibo finantzarioak badira, bost urterako bonoen enkanteko prezioa hartuko da; eta, azkenik, epe handiagoa duten aktibo finantzarioak badira, hamar, hamabost edo hogeita hamar urterako obligazioen enkanteko prezioa hartuko da. Eperen baterako erreferentzia tasa zehaztu ezin bada, prestatutako jaulkipenaren epetik hurbilen dagoen epeari dagokion tasa aplikatuko da.

Apartatu honetan ezartzen denerako, etekin aldakorra edo flotatzailea duten aktibo finantzarioen jaulkipenetan hau izango da eragiketa horien interes efektiboa: eragiketaren barne errendimenduko tasa. Dena dela, etekin esplizituak bakarrik hartuko dira kontuan, eta, gainera, tasa hori kalkulatzerakoan aintzat hartuko da sortutako etekinen behin betiko zenbatekoa aldizka finkatzeko erabiltzen den parametroaren hasierako balioespena.

Nolanahi ere, etekin mistoko zor publikoa bada eta haren kupoiak eta amortizazio-zenbatekoa prezioen indize bat aintzat hartuta kalkulatzen badira, lehenengo paragrafoko ehunekoa 100eko 40 izango da.

**4.** Eskualdaketaren, amortizazioaren edo itzulketaren unean atxikipena jasan behar duten etekin inplizituko aktibo finantzarioak edo tituluak nahiz eta etekin esplizituko aktibo finantzarioak besterentzeko edo haien itzulketa lortzeko, egiaztatu beharko da aktibo eta titulu horiek aurretik eskuratu direla eta eskuraketa horretan parte hartu dutela atxikipena egin behar duten fede emaileek edo finantza erakundeek, eta egiaztatu beharko da, halaber, zein izan den eragiketa horren prezioa.

Igorpen tresna bat zirkulazioan jarri ostean aktibo finantzario bihurtzen denean, lehenengo endosu edo lagapena fede emaile publikoaren edo finantza erakundearen bitartez egin beharko da, endosu hartzailea edo eskuratzailea bera finantza erakundea denean izan ezik. Fede emaile edo finantza erakundeak agirian jasoko du aktibo hori finantza-aktiboa dela, eta haren lehenengo eskuratzaile edo edukitzailea identifikatuko du.

**5.** Aurreko apartatuan ezartzen denerako, pertsona edo entitate jaulkitzaileak, haren kontura jarduten duen finantza erakundeak, fede emaile publikoak edo eskuratzailearen edo gordailugilearen kontura jardun edo esku hartzen duen finantza erakundeak, kasu bakoitzean dagokionak, honakook egiaztatzen dituen agiria egin beharko du:

a) Eragiketaren data eta aktiboaren identifikazioa.

b) Eskuratzailearen izena.

c) Eskuratzaile edo gordailugile horren identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Eskurapen prezioa.

Hirukoizturik egingo den ziurtagiri horren bi ale eskuratzaileari emango zaizkio, eta bestea ziurtagiria egiten duen pertsonaren edo entitatearen eskuetan geratuko da.

**6.** Finantza entitateek edo fede emaile publikoek ez dute bitartekari bezala jardun edo esku hartuko aktiboon eskualdaketan, baldin eta eskualdatzaileak ez badu justifikatzen –artikulu honetan xedatutakoarekin bat– aktiboak eskuratu dituela.

**7.** Aurreko 4. apartatuan aipatzen diren finantza aktiboen pertsona edo entitate jaulkitzaileek ezin dute haien itzulketa egin, baldin eta edukitzaileak ez badu justifikatzen aktibook aurretik eskuratu dituela; aurreko 5. apartatuan zehazten denaren araberako ziurtagiria erabili behar du horretarako.

Jaulkitzaileak edo eragiketaz arduratzen den finantza erakundeak, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, ezin badiote itzulketa egin edukitzaileari, orduan kopuru horretako gordailu bat osatu beharko dute, eta agintaritza judizialaren esku utzi.

Aktiboak berrerosi, erreskatatu, kitatu edo aldez aurretik amortizatzeko, finantza erakundearen edo fede emaile publikoaren bitartekotza edo esku hartzea behar da. Aktiboa jaulki duen entitate edo pertsona eskuratzaile huts moduan geratuko da, titulua berriro zirkulazioan jarriz gero.

**8.** Tituluaren edukitzaileak, titulua erosi zuela frogatzen duen ziurtagiria galduz gero, haren kopia bikoiztua emateko eskatu ahal izango dio ziurtagiria eman zion pertsona edo entitateari.

Pertsona edo entitate horrek jasota utziko du kopia hori jatorrizkoaren bikoiztua dela, bai eta agiria zein egunetan eman duen ere.

**9.** Dohaineko eskualdaketetan, eskuratzaileak subrogatu egingo du eskualdatzailearen eskurapen balioa, harik eta kostu horren justifikazio nahikoa lortu arte.

### 53. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria.

**1.** Oro har, egin beharreko atxikipena egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria exijigarria den edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da.

**2.** Aktibo finantzarioen amortizazio, itzulketa edo eskualdaketaren kasuan, aktiboon amortizazio, itzulketa edo eskualdaketa balioaren eta eskurapen eta harpidetza balioaren arteko diferentzia positiboa izango da atxikipena egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria. Eskuraketa egiaztatzeko ziurtagirian agertzen den balioa hartuko da eskuraketa baliotzat. Ondorio horietarako, balio horretan ez dira eragiketaren gastu osagarriak gutxituko.

Eskualdatzaileari dagokion atxikipenaren kalterik gabe, entitate jaulkitzaileak berak jaulkitako aktibo finantzariorik eskuratzen badu, titulua gero edozein eratan eskualdatuz –amortizazioaren bidez izan ezik– lortzen duen etekinaren gainean egingo da atxikipena edo sarrera.

**3.** Atxikipena egiteko betebeharra erregelamendu honetako 49. artikuluko 1. apartatuko b) letran ezarritakoari jarraikiz sortzen bada, sariaren zenbatekoa izango da atxikipena kalkulatzeko oinarria.

**4.** Atxikipena egiteko betebeharra erregelamendu honetako 49. artikuluaren 1. apartauko f) letran ezarritakoari jarraikiz sortzen bada, atxikipen oinarria hau izango da: akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa balioaren eta eskuraketa balioaren arteko diferentzia. Horretarako, zergadunak lehenengo eskuratu zituen baloreak hartuko dira eskualdatu edo itzulitako baloretzat.

Aurreko paragrafoan baloreen antzinatasunari buruz zehazten dena partaideen edo akziodunen erregistroan jasota dauden baloreei dagokienez aplikatuko du itzulketa edo eskualdaketa egiten duen entitate kudeatzaile edo merkaturatzaileak, honako bi kasu hauetan: batetik, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio funtsetako partaidetzen itzulketa bada eta partaidetza horientzat, lege horretako 40. artikuluko 3. apartatua aplikatuz, partaideen erregistro bat baino gehiago badago;

bestetik, atzerrian helbideratutako inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partaidetzak eskualdatu eta itzultzen badira eta akzio edo partaidetza horiek Espainiako lurraldean merkaturatu edo banatu baziren.

**5.** Atxikipena egiteko betebeharra erregelamendu honetako 49. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoari jarraikiz sortzen bada, ondasunaren merkatuko balioa izango da hura kalkulatzeko oinarria.

Horretarako, hau hartuko da merkatuko baliotzat: ordaintzailearentzako eskurapen balio edo kostua 100eko 20 gehituz ateratzen dena.

**6.** Exijigarria den edo ordaindu den kontraprestazio osoa frogatzerik ez badago, Zerga Administrazioak hau konputatu ahal izango du haren zenbateko oso moduan: egin beharreko atxikipena kenduz benetan jasotakoa erakusten duen zenbatekoa.

**7.** Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra zergaren foru arauak 45. artikuluaren 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz sortzen bada, balio hitzartuaren eta merkatu balioaren arteko diferentzia izango da hura kalkulatzeko oinarria.

## 54. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortzea.

**1.** Oro har, atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortuko da edo exijigarriak direnean atxikipenaren edo konturako sarreraren menpean dauden etekinak –diruzkoak eta gauza bidezkoak–, edo etekinok ordaindu edo ematen diren unean, ordainketa edo ematea lehenago gertatzen bada.

Interesei dagokienez, kontratuan edo eskrituran haiek likidatzeko edo kobratzeko jasotzen diren mugaegunetan izango dira galdagarriak interesak, edo kontuan beste era batera aitortzen direnean, nahiz eta hartzaileak haien kobrantza erreklamatu ez arren edo etekinak eragiketaren printzipalari pilatu arren. Dibidenduak, berriz, haiek banatzeko akordioan ezarritako datan izango dira exijigarriak, edo, data hori zehaztu ez bada, banaketa erabakitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

**2.** Aktibo finantzarioen eskualdaketa, amortizazio edo itzulketatik datozen etekinen kasuan, eragiketa formalizatzen den unean sortuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra.

**3.** Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenten kasuan, eragiketa formalizatzen den unean sortuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra, kobratzeko itundutako baldintzak edozein direla ere.

## 55. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren portzentajea.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea hauxe izango da:

a) Oro har, 100eko 19.

b) Irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatzetik edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozen errenten kasuan, 100eko 24 izango da.

c) Hiri higiezinen errentamendu edo azpierrentamenduen kasuan, 100eko 19 izango da.

d) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako ondare irabazien kasuan, 100eko 19 izango da.

e) Zenbatekoa dela-eta loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga bereziari lotuta dauden eta, beraz, salbuetsita ez dauden loteria eta apustuen sarien kasuan, 100eko 20 izango da (karga berezi hori Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hamazortzigarren xedapen gehigarrian arautzen da).

Kasu horretan, lotuta eta salbuetsi gabe dagoen sariaren zenbatekoaren gainean aplikatuko da atxikipena, xedapen horretan ezarritakoaren arabera.

### 56. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa.

Atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa zehazteko, aurreko artikuluan aipatzen den portzentajea aplikatuko zaio kalkulu oinarriari.

### 57. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.

**1.** Atxikitzaileak eta konturako sarrera egin behar duenak, hiru hilean behin, aurreko lehen hiruhileko naturalean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoen aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioaren organo eskudunari, eta zenbateko horiek Gipuzkoako Foru Aldundian sartu behar dituzte.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilabetean egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 71. artikuluaren 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen diren egoeretan badaude.[53]

Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak aitorpen negatiboa aurkeztuko du, baldin eta atxikipenaren eta konturako sarreraren menpeko errentak ordaindu arren ez badu inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin, ordaindutako errenten zenbatekoa dela eta. Ezingo da aitorpen negatiborik aurkeztu baldin eta aitorpen epean zehar ez bada ordaindu atxikipenaren eta konturako sarrerari lotutako errentarik.

**2.** Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak urtean egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkeztu behar du. Laburpen horretan, identifikazio datuez gainera, jasotzaileen izen zerrenda egon dadin exijitu ahal izango da, eta zerrenda horrek honako datu hauek izango ditu:

a) Entitatearen izendapena.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Lortutako errenta, eta adierazi behar da zein den kontzeptu bakoitzaren identifikazioa, deskripzioa eta izaera, bai eta errenta horiek zer ekitalditan sortu diren ere.

d) Aplikatu den atxikipena edo egin den konturako sarrera.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebehar horiexek bete beharko dituzte Espainiako lurraldean egoiliarrak diren edo Espainiako lurraldean ordezkaritza duten entitateek, baldin eta besteren kontura atxikipenari lotutako errentak

---

[53] Paragrafo hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

**3.** Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak kontura egindako sarreren eta atxikipenen ziurtagiria eman behar dio zergadunari, baita zergadunari dagozkion gainerako datuena ere, baldin eta datuok aurreko apartatuan aipatzen den urteko laburpenean sartu behar badira.

Ziurtagiri hori zergadunaren esku jarri behar da, zerga honen aitorpena aurkezteko epea hasi baino lehen.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebehar horiexek bete beharko dituzte Espainiako lurraldean egoiliarrak diren edo Espainiako lurraldean ordezkaritza duten entitateek, baldin eta besteren kontura atxikipenari lotutako errentak ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

**4.** Ordaintzaileek, errentak ordaintzen dituzten unean, egin dieten atxikipena edo konturako sarrera jakinarazi behar diete zergadunei, eta aplikatu dieten portzentajea adierazi.

**5.** Artikulu honetan aipatutako aitorpenak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak errenta mota bakoitzerako ezartzen dituen ereduetan, eran, lekuan eta epeetan egingo dira. Era berean, foru diputatuak zehaztu ahal izango du aurreko 2. apartatuan jasotzen diren datuetatik zein sartu behar diren aitorpenetan. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak, bestalde, hari eragiten dioten datu guztiak jaso behar ditu aitorpenetan.

**6.** Erregelamendu honetako 51. artikuluaren 6. apartatuko 4. zenbakian aipatzen den konturako sarreraren edo ordainketaren aitorpena Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen dituen eran, lekuan eta epean egin behar da.

## 58. artikulua. Ordainketa zatikatuak.[54]

**1.** Zergaren foru arauak 130 bis artikuluan jasotakoaren arabera, zergadunek ordainketa zatikatu bat autolikidatu eta egin beharko dute urriaren 1ean abian den zergaldiko likidazioaren kontura.

Eragiketa bolumenaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, ordainketa zatikatuak Gipuzkoan egingo dira Gipuzkoari dagokion eragiketa bolumenaren proportzioan. Ondorio horietarako, azken autolikidazioan kalkulatutako proportzioa aplikatuko da.

**2.** Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabaki ahal izango du ordainketa zatikatua ofizioz likidatzea Foru Aldundiak, eta, horretarako, ezarriko du zein kasutan erabili likidatzeko modu hori.

## Xedapen gehigarri lehena. Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak.

**1.** Zergaren foru arauaren 53. artikuluko 5. apartatuan eta 61. artikuluko 2. apartatuan aurreikusten diren kasuetan, administrazioa aurrez lotesteko prozedura, artikulu horietan aipatua, izapidetuko da kontuan hartuta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren

---

[54] Artikulu hau abenduaren 27ko 31/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluaren zazpi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarri da indarrean, (2018-12-31ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ditu ondorioak.

arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 20. artikuluan xedatutakoa.[55]

**2.** Aipatutako 20. artikuluaren 4. apartatuko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, administrazioa aurrez lotesteko prozedura hasteko eskaerak honako hauek jaso beharko ditu zergaren foru arauko 53.5 artikuluan aurreikusten diren kasuetan:[56]

a) Ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia zuzkitzeko erabili den mozkina sortu den zergaldiko emaitza aplikatzeko proposamena.

b) Mozkina sortu den zergaldiko zerga oinarriaren kuantifikazioa.

c) Entitateak zerga ondorioetarako duen ondare garbiaren xehetasuna.

d) Ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziaren aurreko lau ekitaldietako xehetasuna eta mugimenduak.

e) Ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezirako zuzkidura erabili nahi den entitateetako partaidetzari buruzko azalpen zehatza.

f) Azalpen memoria bat, non jasoko den partaidetza eskuratu nahi zaion entitateak zer enpresa proiektu garrantzitsu egiten dituen; halako proiektuek jarduera, produktu edo merkatu berrien garapena, lehendik daudenak handitu edo finkatzea edo lanpostu egonkorrak sortzea eragin behar dute.

g) Inbertsio horiek partaidetutako entitatearen zerga ondorioetarako ondare garbiaren gehikuntza nabarmena ekarriko dutela justifikatzea.

h) Partaidetutako entitateak kapitalen merkatuetan sartzeko zailtasunak dituela justifikatzea; egin beharreko inbertsioen tamaina, berritasun edo arriskuak eragindako zailtasunak izan behar dira.

i) Zergadunaren eta partaidetutako entitatearen arteko harremana eratuko duten kontratuko elementuei buruzko azalpena, bai eta egingo diren proiektuetan bakoitzak hartuko dituen arriskuei buruzkoa ere.

j) Partaidetutako entitateak zergaren foru arauaren 13. artikuluko 3. apartatuko a) eta c) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituela justifikatzea.

k) Justifikatzea partaidetza ez zaiola eskuratu zergaren foru arauaren 42. artikuluko 3. apartatuan adierazten denaren arabera pertsona edo entitate lotua den bati.

l) Ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziaren saldoa aplikatuz eskuratuko diren partaidetzak eskuratzeko egutegia eta epeak.

m) Inbertsioak eskurapenaren osteko hurrengo bost ekitaldietan izango duen eragin ekonomikoa; zehaztu behar da zer zerga ondorio aurreikusten diren

---

[55]Apartatu hau apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren hirugarren azken xedapenak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onesten du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean, (2020-04-27ko GAO).

[56] 2. Apartatuko sarrera hau apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren hirugarren azken xedapenak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onesten du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean, (2020-04-27ko GAO).

ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko proiektua martxan jartzearen ondorioz.

**3.** Administrazioa aurretik lotesteko prozedura hasteko eskabidean honako hauek jaso behar dira, zergaren foru arauaren 61. artikuluko 2. apartatuan aurreikusten diren kasuetan:

a) Entitatearen aktibo ez-korronteko elementuetan egiten diren inbertsioak kontabilitatean hobekuntza moduan agertzen direla justifikatzea.

b) Zergaren foru arauaren 61. artikuluko 1. eta 3. apartatuetan ezartzen diren betekizunak betetzen direla justifikatzea.

c) Txosten tekniko bat, non egiaztatzen den inbertsioak garrantzitsuak direla, kopuruagatik edo izaeragatik, eta garrantzi horrek egiturazko aldakuntza edo aldakuntza funtzionalak dakartzala hobekuntza egin zaion aktiboan, eta, aldakuntza horien ondorioz, aktibo hori beste xede batzuetarako erabil daitekeela.

d) Aktiboak aurretik zeukan xedea aldatzeko beharrezkoak diren administrazio baimenak.

e) Inbertsioak egiteko egutegia eta epea, bai eta zehaztea aktibo zein unetatik aurrera egongo den xede berrian funtzionatzeko moduan.

## Bigarren xedapen gehigarria. Higiezinetako inbertsio kolektiboko erakundeen araubidea.

**1.** Higiezinetako inbertsio sozietateek eta higiezinetako inbertsio funtsek zergaren foru arauaren 56. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako karga tasa aplikatu ahal izateko, etxebizitzetan eta ikasleen eta adinekoen egoitzetan egin behar dute euren inbertsioen 100eko 50, gutxienez. Bada, ehuneko hori zenbatzean kontuan hartuko dira Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduko 86. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako inbertsioak (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), baldin eta 86. artikuluko 1. apartatuko b) letran ezarritako kasuetan, gainera, erregela hauek betetzen badira:

a) Eraikitzen ari diren ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatuta egon behar dira.

b) Higiezinok etxebizitzak, ikasleen egoitzak edo adinekoen egoitzak izan behar dira.

**2.** Ikasleen egoitzak hauek dira: ikasleen bizileku izateko berariaz diseinatu edo egokitutako higiezinak, modu ofizialean halakotzat aitortuta badaude.

Halaber, adinekoen egoitzak hauek dira: adinekoen bizileku izateko berariaz diseinatu edo egokitutako higiezinak, horretarako baimen ofiziala dutenak.

**3.** Xedapen gehigarri honetan azaldutako inbertsio koefizientea zenbatzeko hau aplikatuko da: Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduko 90. artikuluan ondasun higiezinetan egindako inbertsioaren ehunekoa zehazteko ezarritakoa (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

**4.** Zergaren foru arauaren 56. artikuluko 4. apartatuan ezarritako karga tasa behin-behinean aplikatu ahal izango zaie higiezinetako inbertsio sozietate eta inbertsio funts berriei, honako hau betez gero: bi urtez zergaren foru arauaren 78. artikuluko 2. apartatuan exijitzen den inbertsio ehunekora iritsi behar dira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean dagokien erregistroan inskribatzen direnetik

zenbatuta. Aurrekoa bete ezean, igarotako ekitaldietako sozietatearen gaineko zergaren tributazioa ekitaldi bakoitzean indarrean zegoen karga tasa orokorra aplikatuz kalkulatuko da, eta berandutze interesak ordaindu beharko dira.

**5.** Konpartimentuka ari diren higiezinetako inbertsio sozietate eta inbertsio funtsen kasuan, xedapen gehigarri honetan ezarritakoa konpartimentu bakoitzeko bete behar da.

## Hirugarren xedapen gehigarria. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea aplikatzea.

**1.** Zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatu aurretik horretarako eskabidea egin behar du zergadunak, xedapen gehigarri honetan ezartzen den eran.

**2.** Eskabidea erregelamendu honetako 44. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera egin behar zaio Zerga Administrazioari, tramitatua izateko, eta eskabide horrek hurrengo apartatuetan ezarritako berezitasunak izango ditu.

**3.** Araubide hori aplikatzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Entitatea eratzeko eskrituraren kopia.

b) Estatutuen kopia eta, hala denean, estatutu horiek aldatzeko proiektua.

c) Enpresa nazioartera zabaltzeko proiektua justifikatzen duen memoria bat aurkeztu behar dute; proiektu horrek enpresen internazionalizazioa sustatu behar du edo jarduera edo merkatu berriei ekitea bultzatu behar du.

d) Entitateak dituen partaidetzen zerrenda, bakoitzaren partaidetza portzentajea eta kotizatuak diren ala ez nahiz haien kontabilitate balioa zehaztuta; partaidetza horien artean entitateak aurreko c) letran aipatzen den proiektuaren bidez eskuratu nahi dituen partaidetzak ere sartu behar dira.

**4.** Eskabidea aurkeztu behar da, hain zuzen ere, zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubideak ondorioak sortzea nahi den lehenengo zergaldia hasi aurretik.

**5.** Ogasuneko zuzendari nagusiari dagokio tributazio araubide hori aplikatzeko baimena ematea, Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak txostena egin ondoren.

**6.** Entitate batek uko egin nahi badio zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari Zerga Administrazioari jakinarazi beharko dio, uko horrek ondorioak sortzea nahi den zergaldiko lehenengo hiru hilabeteetan.

## Laugarren xedapen gehigarria. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea errebokatzea.

**1.** Zerga Administrazioak errebokatu egin ahal izango du zergen foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko baimena, baldin eta egiaztatzen bada funtsean ez dela bete zergadunak garatu nahi zuen enpresa nazioartera zabaltzeko proiektua, enpresen internazionalizazioa sustatu edo jarduera edo merkatu berriei ekitea bultzatu behar zuena.

**2.** Zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko baimena eman zaion zergapeko bati zergen kudeaketari buruzko edo ikuskapenerako egiten zaion prozedura batean agerian jarritako arrazoizko zantzuek pentsarazten badute ez direla bete –aurreko zenbakian ezarritakoarekin bat– baimena emateko ezarri ziren baldintzak, bada, orduan,

txosten bat emango da. Eta txosten horretan jasoko da, hain zuzen ere, zer elementu erabili diren ez-betetzea frogatzeko eta zer egunettatik aurreikusten den izango lituzkeela ondorioak araubide berezia errebokazeko erabakiak.

Administrazio espedientea ikusita, Ogasuneko zuzendari nagusiak baimena errebokatzeko prozedura hasteko erabakia hartuko du, hala badagokio, eta horretarako eskuduna den zuzendariordetzari aginduko dio prozeduraren instrukzioa egitea. Zuzendariordetzak, bere aldetik, erabaki dezake edo instrukzioko egintzak berak egitea, edo instrukzio hori bere menpeko funtzionario bati eskuordetzea.

**3.** Aurreko apartatuan aipatutako erabakia zergadunari jakinaraziko zaio, emandako txostenarekin batera, eta hamabost egun balioduneko epea emango zaio bere eskubideen alde egokitzat jotzen dituen agiri eta alegazioak aurkez ditzan.

Gainera, egokitzat jotzen diren instrukzio egintza guztiak egin ahal izango dira, eta zergapekoak ezin izan badu haien gaineko alegaziorik egin, prozedura ebazteko proposamena egin aurretik, espedientea ikustera emango zaio eta alegazioak aurkezteko hamar egun balioduneko beste epe bat ere emango zaio.

**4.** Instrukzioa amaituta eta espedientean jasota dauden elementu guztiak ikusita, zuzendariordetza eskudunak prozedura ebazteko proposamena egingo dio Ogasuneko zuzendari nagusiari, eta proposamen horretan, gutxienez, honako hauek zehaztu behar dira:

a) Ea errebokatu egin behar den ala ez zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko eman zen baimena.

b) Espedientean agerian jarritako egitezko zer elementuk justifikatzen duten egindako ebazpen proposamena.

c) Errebokazio erabakia proposatzen bada, zehaztu behar da errebokatzeak zer egunetik sortu behar dituen ondorioak. Egun hori prozedura hasi zen egunaren aurreko egun bat izan daiteke, baina, nahitaez, araubide bereziaz gozatzeko ezarritako baldintzak ez-betetzeari buruzko ebidentziak dauden egunetik aurrerako egun bat izan behar da.

**5.** Ogasuneko zuzendari nagusiak, administrazio espedientea ikusita, ebazpena emango du, eta erabakiko du baimena errebokatzea edo prozedura artxibatzea. Ebazpena edozein dela ere, haren edukiaren berri eman behar zaio zergadunari.

## Bosgarrena xedapen gehigarria. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko 2014 eta 2015erako portzentajea.

**1.** 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko ondorioetarako, biak barne, erregelamendu honetako 56. artikuluaren a), c) eta d) letretan jasotako atxikipeneko eta konturako sarrerako portzentajea 100eko 21 izango da.

**2.**[57] 2015eko urtarrilaren 1etik uztailaren 11 bitartean, erregelamendu honen 55. artikuluko a) letran aipatzen den atxikipena eta konturako sarrera 100eko 20 izango da. 2015eko uztailaren 12tik abenduaren 31ra bitartean, portzentaje hori 100eko 19,5 izango da.

---

[57] Apartatu hau uztailaren 28ko 73/2015 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zenbait atxikipen eta konturako sarrera 2015. urterako aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2015-07-30ko GAO). Aldaketak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

**3.**[58] 2015eko urtarrilaren 1etik 79/2015 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa indarrean sartu bitartean, erregelamendu honetako 55. artikuluaren c) eta d) letretan aipatutako atxikipeneko eta konturako sarrerako portzentajea 100eko 20 izango da. Portzentaje hori 100eko 19,5 izango da 79/2015 Foru Dekretua indarrean sartzen denetik abenduaren 31ra bitartean.

## Seigarren xedapen gehigarria. *(indarrik gabea)*[59]

## Zazpigarren xedapen gehigarria. *(indarrik gabea)*.[60]

## Zortzigarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.[61]

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien erreferentziak zergaren foru arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.

## Bederatzigarren xedapen gehigarria. Aparteko mozkinen gaineko tributazio gehigarria.[62]

**1.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, kontabilitate emaitza positibotzat hartuko da zergadunaren finantza egoera-orrietatik eratorritako emaitza, zergak aplikatu aurrekoa, amortizazioak eta narriadurak konputatu gabe, zenbateko hauek murriztu eta gero:

a) Zergaren foru arauaren IV. tituluko III. kapituluan xedatutakoa aplikatuz, zergaldian zehar diru-sarreretan egin diren doikuntzak.

b) Behar bezala justifikatuta dauden aparteko zirkunstantzietatik ondorioztatutako emaitzak. Zirkunstantzia horiek apartekoak diren edo ez, Ogasuneko zuzendari nagusiak erabakiko du ebazpen bidez, zergadunak aldez aurretik eskatuta. Besteak beste, zirkunstantzia hauek baloratuko dira: enpresak kontzentratzeko eragiketak dauden, linealak ez diren ziklo ekonomikoak ageri

---

[58] Apartatu hau irailaren 1eko 79/2015 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak ondasun higiezinen errentamendutik eta azpierrentamendutik eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetatik datozen etekinei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak 2015. urterako aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu egunean jarri da indarrean (2015-09-02ko GAO). Aldaketak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak..

[59] Xedapen gehigarri hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamar apartatuak indarrik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

[60] Xedapen gehigarri hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamaika apartatuak indarrik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

[61] Xedapen hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 2. artikuluko sei apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

[62] Xedapen gehigarri hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 2. artikuluaren hirugarren ordinalak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako ondorioak ditu.

diren, aurreko zergaldietako emaitzak murrizteko kausak dauden, eta halabeharrezko beste egora batzuk gertatu diren.

**2.** Zergaren foru arauaren 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko erreferentziazko ekitaldian edo aurreko hiru ekitaldietako batean zergadunak kontabilitate emaitza negatiboak izan dituenean edo emaitza hori zero izan denean.

Era berean, apartatu horretan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta erreferentziazko ekitaldian edo aurreko hiru ekitaldietako batean zergadunak zergaren foru arauaren 61., 62tik 64ra, 65., 66. edo 66 quinquies artikuluetan araututako kenkariren baterako eskubidea frogatu badu.

**3.** Entitate sortu berrien kasuan, 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko jarduera hasi ondorengo lehen lau zergaldietan.

Apartatu honetan xedatutakoa aktibo ez dauden entitateei ere aplikatuko zaie, jarduera ekonomiko berriak hasten dituztenean edo beren jarduerei berriro heltzen dietenean.

Ondorio horietarako, entitate ez-aktibotzat hartuko da jarduera ekonomikoan gutxienez urtebetez aritu gabe egondakoa.

Jarduera ekonomiko baten hasiera eta amaiera datak zehazteko, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpenetan adierazitako alta edo baja datak hartuko dira kontuan, kontrako frogarik ezean.

**4.** Baterakuntza fiskaleko taldeen kasuan, zergaren foru arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ondorioetarako, zehaztapen hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, entitateak baterakuntza fiskaleko talde bateko kide badira zergaren foru arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ondorioetarako, abiapuntutzat hartuko da baterakuntza fiskaleko taldearen kontabilitate kontu bateratuetatik eratortzen den kontabilitate emaitza. Kontabilitate kontu bateratu horiek 56 artikuluko 7. apartatuan aipatutako ekitaldietako bakoitzaren zerga aitorpenean adierazitakoak izango dira. Hortaz, artikulu honen 1. apartatuan definitutako kalkulu irizpideak talde fiskalari buruzkoak izango dira.

b) Baterakuntza fiskaleko talde sortu berrien kasuan, 56 artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko harik eta baterakuntza fiskalaren araubidea aplikatu behar den bosgarren ekitaldira arte, kasu honetan izan ezik: araubidea aplikatutako lehen ekitaldian kontabilitate-emaitza bateratuari gutxienez emaitza positibo bateratuaren 100eko 80ko ekarpena egin dioten sozietateak eratuta bazeuden eta jarduera ekonomiko batean jardunean bazeuden baterakuntza fiskaleko araubidea aplikatu beharreko lehen aldiaren aurreko hiru ekitaldietan.

Azken kasu horretan, aurreko hiru zergaldietako kontabilitate emaitza positiboen batezbestekoa kalkulatuko da honako hauek kontuan hartuta:

a’) Baterakuntza fiskalaren araubidea aplikatu den aurreko ekitaldien kasuan, baterakuntza fiskaleko taldeak araubidea indarrean egon den ekitaldietan izan dituen kontabilitate emaitza positiboak.

b’) Baterakuntza fiskalaren araubidea aplikatu ez den aurreko ekitaldien kasuan, erreferentziazko zergaldian baterakuntza fiskaleko taldea osatzen duen entitate bakoitzaren kontabilitate emaitzen batura positiboa.

c) Baterakuntza fiskaleko taldea azkentzen bada edo entitateren bat banatzen bada taldetik, banaka tributatzera igarotzen diren entitateek –zergaren foru arauaren 56. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa aplikatzeko– banakako

araubidean tributatzen aritu izan balira bezala hartuko dituzte bai banakako araubideko ekitaldian lortutako kontabilitate emaitza positiboa bai aurreko hiru zergaldietan beren finantza egoera-orri indibidualetatik eratorritako kontabilitate emaitza positiboak, behin artikulu honen 1. apartatuan ezarritako gutxipenak eta zuzenketak aplikatu ondoren.

d) Baterakuntza fiskaleko talde batean entitate berriak sartzen badira, aurreko hiru zergaldietan lortutako kontabilitate emaitza positiboak zehazteko, zergaldi horietako bakoitzean talde fiskalak izan duen kontabilitate emaitza bateratuari taldean sartu den entitatearen kontabilitate emaitzak gehituko zaizkio, baina, betiere, baldin eta aipatutako zergaldietan entitatea eratuta egon bada eta jarduera ekonomiko bat egin badu.

Baterakuntza fiskaleko taldean sartu den entitatea ez bada egon eratuta eta jarduera ekonomiko bat egiten aurreko hiru zergaldietan, orduan, batezbestekoa kalkulatzeko, talde fiskalaren kontabilitate emaitza bateratuei bakar-bakarrik gehituko zaizkie entitate hori eratuta eta jarduera ekonomiko bat egiten egon den zergaldietan lortu dituen kontabilitate emaitzak.

e) Azkenik, xedapen gehigarri honen 2. apartatuan xedatutakoa baterakuntza fiskaleko taldeei ere aplikatuko zaie. Apartatu horren lehen paragrafoari dagokionez, 56 artikuluko 7. apartatuan xedatutakoaren aplikaziotik salbuetsita geratzeko, baldintza hau bete beharko da: artikulu honetan jasotako zehaztapenen arabera kontuan hartu beharko litzatekeen kontabilitate emaitza, taldeari dagokiona, negatiboa edo zero izatea, dela uneko zergaldian dela aurreko hiru zergaldietako edozeinetan.

## Xedapen iragankor lehena. Dokumentazio betebeharretatik salbuestea ondasun higiezinen errentamenduan, azpierrentamenduan edo haiek erabili eta gozatzeko eskubide errealen eraketan edo lagapenean.

Aurretik formalizaturik eta 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden kontratuei erregelamendu honetako 19. artikuluan ezartzen dena aplikatzeko, artikulu horretan zehazten diren erregelak aplikatuko dira, baina higiezinaren balioespenerako erreferentziatzat 2014ko urtarrilaren 1a hartuko da, bost urteko lehen aldirako.

## Bigarren xedapen iragankorra. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea.

**1.** Erregelamendu honetako bosgarren xedapen gehigarriko 6. apartatuan ezarritakoa gorabehera, zergaren foru arauaren hamahirugarren xedapen gehigarriko 1. apartatuan aipatzen diren zergadunek Erregelamendu hau indarrean jarri eta ondorengo lehen hiru hilabeteetan aurkeztu behar dute balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea aplikatzeari uko egiteko idazkia.

**2.** 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako azken zergaldira arte sozietateen gaineko zergako atzerriko baloreak dauzkaten entitateen araubide bereziko erregelen arabera tributatu duten zergadunek zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari uko egiten ez badiote, arau bereko hamahirugarren xedapen iragankorreko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, orduan xedapen gehigarri horretan ezarritakoa aplikatuko dute 2014ko urtarrilaren 1aren ondoren hasten diren ondoz ondoko bos urteetan.

Zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari uko egin nahi badiote, erregelamendu honetako laugarren xedapen gehigarriko 6. apartatuan ezarritakoaren arabera egin behar dute.

**3.** Aurreko 1. apartatuan aipatzen diren zergadunek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenengo zergaldian utziko diote zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari.

Nolanahi ere, hurrengo zergaldietan xedapen gehigarri horretan ezarritako araubidea aplikatzen jarraitu nahi badute, horretarako eskabidea aurkeztu beharko dute, zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian eta erregelamendu honetako laugarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan, zergaren foru arauaren hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako araubide iragankorra aplikatu behar den azken zergaldia amaitu aurreko azken sei hilabeteetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren manuetan zehazten den baimena jaso eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldia hasi ondoren, apartatu honetan aipatzen diren zergadunei osorik aplikatu beharko zaie zergaren foru arauaren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea, xedapen horretako 8. apartatuan jasotakoa barne.

## Hirugarren xedapen iragankorra.[63] Kultura sustatzeko pizgarriak 2023ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera aplikatzeko aukeratzea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita hamaikagarren xedapen iragankorrean xedatutako aukeraz baliatuta zergadunek aukeratzen badute zergaren foru arauaren hamabosgarren xedapen gehigarria aplikatzea 2023ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak ere aplikatuko dituzte, 2023ko abenduaren 31n indarrean zuten idazketa kontuan hartuta.

[63] Artikulu hau abenduaren 3ko 56/2024 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamabi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta kultura sustatzea helburu duten zerga pizgarriak garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2024/12/9ko GAO), eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

# ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak onartzen duen erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***73/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa, Pertsona Fisikoen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zenbait atxikipen eta konturako sarrera 2015. urterako aldatzen dituena (2015/07/30ko GAO).***
  - 2. artikuluak bosgarren xedapen gehigarriko 2. paragrafoa aldatzen du eta 3. paragrafo bat gehitzen du.

- ***79/2015 FORU DEKRETUA, irailaren 1ekoa, ondasun higiezinen errentamendutik eta azpierrentamendutik eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetatik datozen etekinei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak 2015. urterako aldatzen dituena.***
  - Bere 2. artikuluak erregelamenduaren bosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua aldatzen du.

- ***88/2015 FORU DEKRETUA, abenduaren 29koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena. (GAO 2015-12-30)***
  - Bere 2. artikuluak honako aldaketak onartzen ditu erregelamenduan.
    - Bere Lehen ordinalak, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, honako aldaketak onartzen ditu:
      - Bat apartatuak 38.2 artikulua aldatzen du.
      - Bi apartatuak 41 artikulua aldatzen du.
    - Bere Bigarren ordinalak, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 51.7 artikulua aldatzen du.

- ***2016ko abenduaren 20ko 28/2016 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituena, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena. (GAO 2016-12-26)***
  - Bere 2. artikuluak honako aldaketak onartzen ditu erregelamenduan:

- Bere lehen ordinalak, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, 20 bis artikulua gehitu du II. tituluaren III. kapituluko 2. sekzioaren barruan.
- Bere bigarren ordinalak, 2016ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, 13 bis artikulua gehitu du.

- ***14/2017 Foru Dekretua, ekainaren 27koa, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua eta, aurretiazko tributazio proposamen bereziei dagokienez, 2006ko abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua aldatzen dituena. (GAO 2017-06-29)***

  - Bere artikulu bakarrak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin honako aldaketak onartzen ditu erregelamenduan:

    - Bere bat apartatuak III. bis kapitulu bat gehitu dio II. tituluari, eta haren barne 32 bis artikulu berri bat.
    - Bere bi apartatuak 40. artikuluaren 1. eta 2. apartatuak aldatu ditu.
    - Bere hiru apartatuak 40 bis artikulua gehitu du.
    - Bere lau apartatuak lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuko sarrera aldatu du.

- ***22/2018 Foru Dekretua, uztailaren 24koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena***. *(GAO 2018-07-27).*

  - Bere 2 artikuluak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin honako aldaketak onartzen ditu erregelamenduan:

    - Bere bat apartatuak 34. artikuluaren 4. apartatua ezabatzen du, eta orain arteko 5. eta 6. apartatuak 4. eta 5. apartatu bihurtzen dira, hurrunez hurren.
    - Bere bi apartatuak 50. artikuluko 22) eta 27) zenbakiak aldatu ditu.

- ***31/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituena eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena***. *(GAO 2018-12-31).*

  - Bere 2. artikuluak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin honako aldaketak onartzen ditu erregelamenduan:

    - Bat apartatuak 9 bis artikulu berria gehitzen du.
    - Bi apartatuak 13 bis artikulua indargabetzen du.
    - Hiru apartatuak 23. artikuluko 2. apartatua.
    - Lau apartatuak 37. artikuluan 1. apartatua aldatzen du eta 3. apartatu berria gehitzen dio.

- Bost apartatuak 40.1 artikuluko b) letra.
- Sei apartatuak 50. artikuluko 19. zenbakia.
- Zazpi apatatuak 58. artikulua gehitzen du.

- ***57/2019 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen baita kultura sustatzea helburu duten pizgarriak garatzeko (2019/12/30eko GAO).***
  - Bere artikulu bakarrak seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak gehitzen ditu.

- ***5/2020 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua. (2020/04/27ko GAO).***
  - Foru Dekretuaren hirugarren azken xedapenak lehen xedapen gehigarriaren 1. apartatua eta 2. apartatuko lehen paragrafoa aldatu ditu.

- ***11/2021 Foru Dekretua, irailaren 29koa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak aldatzen dituena (2021/10/04ko GAO).***
  - Bere 3. artikuluak 32 bis artikuluaren 3. apartatuko b) letra aldatu du.

- ***Foru Dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baitira TicketBAI betebeharraren Erregelamendua onesten duen foru dekretua, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan zehazteko 2022an aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak onesten baitira (2021/12/30eko GAO).***
  - Bere 2. artikuluak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin seigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatua aldatzen du.

- ***18/2022 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen dituena. (2022/11/28ko GAO).***

  2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin:

- 37. artikuluari 2. apartatu bat gehitzen zaio, eta 2. eta 3. apartatuak 3. eta 4. apartatuak bihurtzen dira.

- ***56/2023 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituena (GAO 2023-12-18).***
  - Bere 7. artikuluak honako aldaketak onartzen ditu erregelamenduan:
    - Bat apartatuak 34. artikuluko 1. apartatua.
    - Bi apartatutak 35 bis artikulu berria gehitzen du.
    - Hiru apartatuak 50. artikuluko 26. zenbakia.

- ***55/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzekoa (2024/12/5ko GAO).***

  Bere 2. artikuluak aldaketa hauek onartzen ditu:

  - 14.1 artikuluko c) letra aldatzen du.
  - 35 ter artikulua gehitzen du.
  - 40 ter artikulua gehitzen du.
  - 50. artikuluko 5. Zenbakia aldatzen du.
  - 57.1 artikuluko bigarren paragrafoa aldatzen du.
  - Zortzigarren xedapen gehigarri bat txertatzen du.

- ***56/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen baita kultura sustatzea helburu duten zerga-pizgarriak garatzeko. (2024/12/9ko GAO).***

  Bere artikulu bakarrak aldaketa hauek onartzen ditu:

  - 37 bis artikulua gehitzen du.
  - 37 ter artikulua gehitzen du.
  - 37 quater artikulua gehitzen du.
  - 37 quinquies artikulua gehitzen du
  - 37 sexies artikulua gehitzen du.
  - 37 septies artikulua gehitzen du.
  - 37 octies artikulua gehitzen du.
  - 37 nonies artikulua gehitzen du.
  - 37 decies artikulua gehitzen du.
  - Indarrik gabe uzten du seigarren xedapen gehigarria.
  - Indarrik gabe uzten du zazpigarren xedapen gehigarria.

– Beste xedapen iragakorra gehitzen du, hirugarrena.

- ***1/2024 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 17koa, 2024 urterako zenbait zerga neurri onesten dituena. (2024/12/19ko GAO).***

  6. artikuluak neurri hauek sartzen ditu, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin:

  - Bigarren ordinalaren lehen apartatuak I. kapitulua sortzen du IV. tituluaren barruan (Itsas garraioko enpresen araubidea).
  - Bigarren ordinaleko bigarren apartatuak IV. tituluko II. kapitulu berria sortzen du, 40. artikulutik 43.era bitartekoen egungo edukia jasotzen duena.

- ***22/2025 Foru Dekretu, abenduaren 2koa, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzekoa (2025/12/15eko GAO).***

  2. artikuluak aldaketa hauek onartzen ditu eta 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan dituzte ondorioak:

  - 1. artikulua edukirik gabe uzten du
  - 2. artikuluko 3. eta 4. apartatuak edukirik gabe uzten ditu.
  - 37 undecies artikulua gehitzen du.

  5. artikuluak 14. artikuluko 1 apartatuaren c) letra aldatzen du eta 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

- ***27/2025 Foru Dekretu, abenduaren 23koa, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten dituena (2025/12/30eko GAO).***

  2. artikuluaren lehen ordinalak aldaketa hauek onartzen ditu 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko:

  - Bat apartatuak 35 ter artikulua.
  - Bi apartatuak 37 duodecies artikulua gehitzen du.
  - Hiru apartatuak 43. artikuluaren errubrika aldatu eta 3. apartatu bat gehitzen dio.

  2. artikuluaren bigarren ordinalak aldaketa hauek onartzen ditu 2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietan ondorioak izateko:

  - Bat apartatuak 36 artikulua.
  - Bi apartatuak 36 bis artikulua gehitzen du.